



Bertsio informatiko honen egilea: Josu Lavin; Urkiola, 1-1C 48990 - Getxo (Bizkaia).

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MogelJAAbarka.htm>

PERU ABARKA

Juan Antonio Mogel

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

EL DOCTOR
PERU ABARCA
CATEDRÁTICO DE LA LENGUA VASCONGADA
EN LA UNIVERSIDAD DE BASARTE
ó
DIÁLOGOS ENTRE UN RÚSTICO SOLITARIO BASCONGADO
Y UN BARBERO CALLEJERO LLAMADO MAISU JUAN
OBRA ESCRITA POR EL PRESBITERO
D. JUAN ANTONIO DE MOGUEL
DURANGO
IMP. Y LIB. DE JULIAN DE ELIZALDE
Artecalle, número 57,
1881



DIÁLOGO PRIMERO

ENTRE EL INCULTO BASCONGADO Y BARBERO MAISU JUAN Y EL CULTO CASERO PERU

Se dá principio al diálogo en una venta, donde se encontraron casualmente.

PERU: Jangoikuak egun onak emon daijozala.

MAISU JUAN: Bai zuri bere adiskidia.

PERU: Berori baisen jaun apaindu batek oñak imini ardan-etxe onetan? Toki au gizon baldres, zantar, aziera txarrekuentzat obia da, berori languentzat baño. Ez naz ni Jauna; abarkak oñetan, txapel bat buruban, gerrestuba gorputzian; au da nire apaindurija guztija: baño etxagun, izen onaren zalia nasan aldeti, ez oi nas sartu ardantegijetan nora ezian, premiñaz, ta ezin bestez baño, ez jakolako etxagun begiratu bati ondo egiten buruba bat egitia gizon ospetsu, burrukari, ondatzalle, alper, ta baldanakaz. Ez nau oraingino inok ikusi ardaauak igarota, gatx eginda, zabuka oñak lokaturik, ez miña motelduta, ez begijak lausotuta, asko legez euren osasun, ondasun ta arimen kaltian. Bein baño geijagotan izan nas neure erriko Buru, edo Piel, ta darda gañian erabilli daruadaz ardao saltzallak belutu, edo ondo gautu artian daukeezanian etxe barruban nekezaliak, edo ate edegijaz ardaau salduten badabe debekauta daguan orduban. Ez deust ezek gorroto ta iguin geijago emoten nekezale edan-sarri, ta ardao zaleegijak baño. Zer esan nei bada berori emen ikusita? Aserraturko ezpaltixakio jakin gura neuke nor dan, ta zek ekarri daben ona.

MAISU JUAN: Adiskidia; imini egizu txapela buruban, ta esango deustut nor nasan. Nas bada oraiñago igaro dozun erriko Barberua, ta deitu nabee gaiso bategana. Pagau deuste bisitako errial zidarra; baño ain dolo-rrak izan dira, zein da ez deusten atera trago bat: alan sartu nas emen kuartilla bat atera, eta zerbait jaatera, bada urrin egiten jat neure etxia barurik biurtuteko.

PERU: Nik uste neban bene benetako andikiren bategaz berba egiten nebala; agaiti nenguan txapela buruti kenduta lotsa nintzala berba egiten.

Jakin baneu lenengoti Barberu txar bat baño etziniala, ez nintzan Jaunka zugaz egongo, ez da bere buru utsian. Eta Barberu errukarri bat, ta inoren gatxaz bizi dana; gaisorik ezpadabil zer jan ez daukana, ain arro ta apaindu? Ainbeste soñoko bitxidunez, eta ori astegun buru zurijan bidez zabiltzala?

MAISU JUAN: Adiskidia, egizu berba modu obian: zuk ezdakizu zer dan Barberu izatia: lengo Barberu txaarrak ibilli oi zirian deshonetan euren opizijo onrauba; batuten zirian tabernetan ta nun nai; gitxi estudiantu, ta gero ill edo bizi, errezeta bat egin, botikako asko artu eragin, erremienta txarrak euki, ta barriketa batzuk nekezaliai esanda, trago galantak ezarrita, Mediki jakitun batek baño pama geijago euki eruen. Baña gaur Medikuben pare gara. Asko aurreratu da Zirujijan. Ni egon nas Madrilgo ospitalian urte bijan. Asko ikusi dot; ta asko dakusanak, asko ikasi darua. Ostera bere dirautsut; zer dala uste dozu Barberuba?

PERU: Barberuba barberu ta mozolua mozolo. Mozolua baño nun dago egazti edertuago janzirik? Baña ezdau inos mozolo izateti urten. Soñoko apaindubak ez deutsa gaisuari osasuna emongo. Biajon dagijala nire erriko Barberubak? Bere bideko janzija da txano gorri bat ta bere ganian txapel eskerge berrogei urte eukiko ditubana. Eztabil zu legez basatzarik basatza oñetako meiakaz, ta bai zaldi, berak beste urte ditubanian. Egija da, nun nai topetan dabela bazkari ta apartija. Guztijak asko gura deutsee bere lautasuna gaiti, ta jaten dau edozein gauza baserrijetan. Autor deustut, ardao zaletxuba dala, buruba ta barruba berotu daruazala larregi, ta ori eria dan guztijan. Baña katubagaz zutinik zuzen egon ezin darian, topetan ditubala zanak, ta eskutur sendo ta ikara bagiaz ateraten deustala ederto odola gaisuari. Au zelan dan ez dakit, alan dala bai.

MAISU JUAN: Orra nik dinodana, orrelango Barberu perdularijo molde bakaak galduten deutseela pama guztija Barberutziari. Eta, ze kulpa daukee beste gure opizijokuak zure erriko Barberuba baldresa, ardaora emona, ta astaki bat bada? Aztuko jakon gaztetan ikasi eban apurra.

PERU: Eztau berak orrelangorik uste, ta ori esango bazeunskijo berari, enzungo zendukez enzuteko onak. Ezdozu inos enzun *bakotxa bere zorruak bizj dabela?* Ak uste dau eztaguala bera legezko Barberurik Bizkai guztijan: bein banaan aterako deustuz egin dituban osakintza mirariraño jo eragitekuak. Zuk barriz dinozu, astaki bat izango dala dongaro jazten dalako, nekezaliakaz bat egiten dalako, ta liburu zaarrak austu ta baztertuta eukiko ditubalako. Ak esango leuskezu soñoko bitxidunak, ta janz-



barriak eztakarrela jakiturijarik, ta bai liburubetarako nagitasuna. Enzun neutsan egun baten esaten nekezale askoren aurrian, ta bere euskera txaarrian, *Jangoikuak libran zargizala Barberu modako, Dotore txar, apaindu, ta barri-txubetati. Kortejante batzuk dituzu; igaro ten jakee denporia zertzuk moda dirian konteetan. Pigurerija guztijak gura ditube, Jauntxo egin gura dabee, ta andikijak baño apaindubago ibiltan jatzuz. Ze kuraziño egingo dabee Barberu delikau oneek? Ibilliko dira gaisuen artian odolak mantxau eztagizan bildurrez sangrija bat egin biar damian.* Alan zinuan, ta ikusi bazenduz orrelan janzita esango eutsuzan enzun gurako etzenduzanak. A bizi dau bere zoruak ta zu zeuriak: eta guk, nori sinistu? Ari, edo zuri?

MAISU JUAN: Aren auaz, ta buruban, desberguenza gogorak esaten deustazuz.

PERU: Ze berba da desberguenzia? Nik eztakit. Esan gurako dozu lotsabagakerija. Egizu bada berba euskeraz. Ezteutsut nik lotsarik galdu, ez galduko bere; baño bai egija garbijak esan, ta minduten bazara, zeuria izango da erruba. Ezdozu igon biar zarian baño geijagora. Barberubaren izenak esan gura dau neure ustez *Bizargillia*; alan esaten deusagu guk. Zuk dinozu *apeitan* bizar egitia gaiti; esango bazendu apaindu, apeitau ordian, ederto esango zenduke; zeren zubeak apainduten dituzun gure arpegijak uraz, ta gero bizarra kendubaz. Zuk emoten deusazu labaniaren izena gure arpegijak apaindu ta garbituteko erremientiar, ta obeto izentauko zenduke *garbitzalle*, edo *apainkiñaren* berbiaz. Euskaldunak bagara, zetarako berba egin ez geure asaben berbakuntzan? Zetarako esan barberuba, labania, ta onelango izen arrotz, zantar, ta erbestekuai artubak?

MAISU JUAN: Agiri dozu, adiskidia, baserrijan azi zariala: eztozula inos Bizkai ta basoarteti urten. Barberu edo bizargillia baño geijago naz. Iru titulu emon eusteezan Madrilen, ta orretarako igaro nituban iru esamina krubel tribunale lotsa andiko baten. Nas bada Barberuba, Sangradoria ta Zirujauba.

PERU: Ori baño geijago ezpadakardazu, ni nas Arotza, Argiña, Itzaña, Atxurlarija, Baso-azterlarija, ta errazago ikasten dira zure biarginzak niriak baño.

MAISU JUAN: Guzurre dinozu. Asto andi bat zara. Asiko bazina zu norbait apetitetan, arpegi guztija itxiko zeunskijo odolez beteta. Artuko bazendu nire lanzetia, egingo zeunskio gaisuari zulo andi bat, edo bai

ebagi zana: eta zer izango litzate azur ausijak konpondu biar bazenduz, edo osatu golpe andi bat artu ta heridu dana?

PERU: Maisuba, eta zer egingo zenduke zuk burdi bat banatu, burpillak lokatu ta askora bat emongo balitxakezu? Etxenduke jakingo ziri bat egiten, ta galdubago largako zenduke burdi gaisotuba. Asiko bazina gero burtardatza egiten, apurtuko zenduke dana leundu biarrian ta ebagiko zenduke biar bada zeure oña edo berna azurra. Nok ikusi zeinkezan koltzagintza, arriak landuten, soloko biarretan! Zu bialdu biar zendukeez basuen azterrenak ateraten, ta ebaten gero zeinbat burdi ikatz daguan arlo, edo saill andi baten. Bizar egiten ikasten dabee mutillak laster. Badira baserritar bizar egiten jarduten dabeenak ta zuk baisen esku bigun samurrak baleukez, ta ez laija, atxur, ta askora kirtinakaz azaldubak, etzeunskijue irabaziko temarik nok obeto egin. Odola ateratia, eskutur ikara bagia ta begi zolijak ditubenentzat, ez da orren gauza gatxa. Amabost egungarreneko ikasiko leuke edozein andrak, ta zuk baisen ondo edo obeto iminiko litukee txaplatatxuhak, ta eraatsi zauritxuban lokaarriak askatuko ez dirian gisaan iñoren esku baga. Barriz; nok igarri zubei dakizuzan edo ez, osatuten zaurijak, ezagututen bedar onak? Zuk esan biar etzenduban ondo azija bazengoz, esan deustazuna aurkez aurke, edo neure musu garbijetan; *guzurre dinodala, asto andi bat nasala*. Asko nekezaleri esan bazeuntsa, etzenduban urtengo emendi beste barberu, edo zauriosagillaren baten premiña baga. Baña ni naz gizon baketsuba, eruapen andikua, dongaro enzun arren, ez dakidana dongarik egiten; berba baten, Jangoikuaren bildurrekua. Gorde zaite bada aurrerakuan orrelan berba egiteti.

MAISU JUAN: Ez egizu bada zuk bere ain dongaro esan nire opizijokuak gaiti.

PERU: Ez dinot nik dongarorik zure biargintzia gaiti: gizon biarrak zaree zelan bait: bizarra kendu baga ezin egon geindez; atera biar da odola gatx askotan, baño neure ustez, ez ainbestetan, zelan ateraten dan; eta nik agindu biar banau, odola ateratia gaiti ez leukee zubeak legezkuak diru berezkorik eruan biarko, edo beintzak ez odolateraterik egin Osagille nausi, Medikuben izena emoten jakeenak gaisua ikusi, ta oneek agindu artian.

MAISU JUAN: Zegaiti ez?



PERU: Zerren bestelango gaiso ikustetan baño aloger, edo biar sari geijago emoten bajatzu odola ateratiarren, bildur izateko da diru guriak azi edo geitu ezdegizan odola aterateko preminak.

MAISU JUAN: Orren arima galdukuak egiten gaituzu, zein da sangriak emongo ditugun diru geijago irabazterren? Zer daki medikubak guk baño geijago nos biar dan sangrija?

PERU: Beintzat ez dau itxutuko au diru gosiak odola aterateko agin-dubaz. Besteti; zegaitik orrenbeste arrotu zeure buruba uste izateko ak beste badakizula? Dakidana da, urte geijago iragoten ditubela ikasten gaiso osatutiak dakazan zeregiñak, ta guzurra ezpada, enzun dot, euren mendian egon biar dozubela zuk ta zu linguak; ta ezin odolik atera zeinkeela euren baidurija baga. Bakotxak gorde biar dau bere tokija, ta ez agertu eragin soñokoz, edo aoz eztana. Ez dozu inos enzun esakera asko esangurako au; *Marija bitxigina, suba da ogigiña?* Eta beste oneek; *Zulo bako-txari laakua: Azjak beria kirtena, ez dau gizonak izan biar urtena.* Zure aita ta asabak bizi zirian arrotasun baga; artua beuukeen, pozik jaten ebeela; abarkak zirian euren oñetakuak, ta ortozik ibilten bere ez zirian lotsatuten. Eta zelan azi zendubezan zu? Zelan zinuazan eskolara?

MAISU JUAN: Ori orrelan da. Baña nik igon badot opizijo honrau batera, zetako deshonrau biar dot erroa zantarrakaz janzirik?

PERU: Zagoz issillik. Bizkaitarra zarian aldeti eginda daukazu idalgija; ez baña Bizargin, Odolateratzalle, ta zauri-osatzallia zarianeti. Eskerrak emon egijozuz nekezaleen onegitasunari, zeintzuk esaten deitsuben *Maisu Jauna*, ta *berori*. Ni nas iru etxaguntzaren jaube; buruba larregi urratu baga, badaukat zer jan, ta zegaz janzi, ta ez dot oraindino Jaunaren ize-nik enzun neure umeen aoti bere, ta gura bere ez dot. Badakizu barriz zelan jazten nasan. Zer ete daukazu geijago? Bizi zara iñoren gatxaz, iñori miñ emonaz, iñori odola ateriaz. Uts edo bete emoten dituzu osagarri ize-nekuak. Illtera badua, atxakija, esesinoe, ta akiakulia auan. *Ai leenago dei egin baleneste! Ai nire esanak egin balira! Ai aua gorde balen! Orain ezzer ezin nei; datorrela Abadia Elessakuakaz.* Or konpon eginda, biar alper edo kaltegarri baten sarija artuta, zuaz zeure etxera, lo egiten dozu atsakaba gitxigaz Osatuten bada zelan edo alan, *zorijonian dei egin jatan; atera dot eriotziaren autzetati*, au dinozu arkuntza guztietan, ta zoro zoro zanzubez nekezale gaisuak. Alan jazoten da nik ezagutu ditudan zure biargintzakuakaz: zure barri garbirik ezdakit.

MAISU JUAN: Zetarako da ni bardin imintia zuk ezagutu dituzun Barberu txaar ta baldresakaz? Errebañu baten ardi batzuk dagoz mardo ta gizenak, ta bestiak makal ta argaltxak? Aek ezekijen Anatomijarik, nik bai; aek ez eben Ospitalean oñik imini; nik egin ditut urte bi. Zetako erasoten deustazu lengua?

PERU: Eta ze Anatomija dakije, nungo Gaisotegijetan egon dira andrakume azur imintzalla, barriketa ta berba laban baga azur lokatu, ta destokitubak zuzenduten dakijezenak? Zubek linguak baño osasun bedarren ezagera geijago daukee onelangoren batzuk. Zer da Anatomija dontsu ta izen ospe andiko ori? Berbia banzugu; baña zer dan, ez.

MAISU JUAN: Zuk ezin aitu zinaiz nik esan neikezan gauza asko Anatomija expliketako. Gure opiziokuak ebaten ditube gorputz illak, ta bein banaan ikusten ditugu barruban daukazan zati andi ta txikin guztiak. Badakizu gero zer nun dagan; nun min daben gaisuak; zek on leijon.

PERU: O gizon gogorak! Illai bere parketan ezdeutsazube! O zikin zantarrak! Ori epailla baten zeregiña da.

MAISU JUAN: Zer da epallia?

PERU: Epallia da zuk karnazeruba esango zeunskijona. Ikusi dozu inos onelanguak zer egiten dabeen idi ta belarluziak illten ditubenia? Alkandora besuak jaso, ta gañibet zantar bat aldian dabeela dabilz abere illen zatijak ateraten. Baña itxi daiogun oni gerorako, ta neuk aztertuko dot zure jakiturija andija, ta ikusiko dogu zarian edo ez ill-epalla edo anatomiko ona. Zer da baña bizijentzat zerbait aterako bazendu illak ebateti?

MAISU JUAN: Adiskidia banua ni emendi neure etxera. Ez naz etorri ona trago bat ezartera baño, ta ez zure desberguenza ta burlak enzutera.

PERU: Ez arren: emoten deitsut berbia ezdeutsudala aitatuko atsakaba emongo deitsudan gauzarik. Alan egin daiguzan bake osuak, emoidazu esku ori, ta adiskide garialako ezaugarriztat egin daigun alborokia, ta au neure diruti.

MAISU JUAN: Ez dirudi orrek ondo. Zuk aterako bazendu ardaa zeure kostura, urrengo baten esango zenduke barberu ta zirujaubak diriala dollor, prestubez, zikotz batzuk, iñoren lepotik ondo edaten dabeela. Nik pagauko dot ardaa, ta pagau egizu zuk bazkari arin bat.

PERU: Aurra bada, izan dedilla alan.



MAISU JUAN: Neska (*dice el Cirujano á una criada de la ventera*) atera egin azunbre bat ardao, ta esajon ugazaba andriari ipiñi daigula zerbait bazkaitako.

LA MOZA: Ez nas ni neskia, neskatilla utsa baño. Ikasi egizu beste berbeeta bat.

MAISU JUAN: Au zer da? Guztiak nire kontra? Ozta egin ditut bakiak gizon onegaz, ta esesten deust neska batek. Zer don bada neskatillia nes-
kia baño onradago?

LA MOZA: Zer dan? Neskatiilik urten lei nora nai bere ule trenza ederragaz; baño ez neskiak. Aituko dozu onenbestegaz.

MAISU JUAN: Ez nekijan orrenbeste, ta parkatu egidazu opendidu bazaitut, ta atera egizu ardaa.

PERU: Ezdaigun edan zerbait jan artian. Neskatiilla, ekarri egiguzuz topinian ikusi ditudan arbi, aza, ta okelia erretillu baten. Ez egizu ekarri saldarik, ta bai katillu bat, ardaa gero edateko.

MAISU JUAN: Adiskidia, zer da erretilluba? Platerian ateraten dira aza ta okelia.

PERU: Erretilluba da euskaldunen platera. Ekarriko deuskuben erretillubak euko ditu gitxienez berrogei urte, ta iraungo dau beste ainbeste urtian. Zure bestelango platerok austen dira egunian bein lurrezkuak badira, ta bestelanguak, edo urtu oi ditu subak, edo ausita saldu edo trukau biar izaten dira. Zurezko kollara bat ekarten badeuskube, ezta gitxi izango. Barriz alperrak dira nik etxe batzuketan ikusi ditudan oratzalle, zubek tenedoren izena emoten deusezunak. Zetako emon euskuzan Jangoikuak amar atzak edo atzamarrak? Askoz gozuago dira aza ta okela zati eskuz ebagi, atzakaz ta ogiz batu, ta jaten dirianak. Ondo izango da zamau lodi bategaz estalduten badeuskube mai ardao zetakaz zikinduba. Euskaldunak bagara benetan, bizi biar dogu geure aasabak erakatsi deuskubezan ekandubakaz. Serbilleta orainguen ordian eztaukazu imini baño aus zapi, edo marrats bat loitu etzaitian. Ekarri daigubela galleta baten ura, ardauari ezarri gura badeutsazu, bada niri ur-ardauak egingo leusket sabeleko miña. Nik biti bat; edo ardao utsa, edo geijenian ur utsa.

MAISU JUAN: Errazoia daukazu: ezdira alkar ondo konponduten ardaa ta ura. Urte asko da urik edan eztodala saldaan ezpada.

PERU: Neskatiilla, ingira zaite, sabel-zorrija egin jaku, ta edan guria ainbeste berbaren ondoren. Dulabre ta ezertakuak dirian otseñak, arin egin biar ditube gauza guztijak. Ekarrri eiguzu ekarriko dozuna.

(Viene la moza con la comida despues de haber colocado la mesa mal ó asquerosamente cubierta y dice ella):

LA MOZA: Egon zaree luzaro barriketean milla berba alper egiten, ta gero beinguan ito biarra. Ona emen lapiko galanta, ta pitxar bete ardao: ase zaiteze.

PERU: Adiskidia, etzazaudaz zeure izenez, ta baketu garian ezkerro, jakin gura neuke zelan deritxun.

MAISU JUAN: Niri esaten deuste Don Juan Jauna, baño zuk esaidazu naozun legez: ta zeuk, ze izen dozu?

PERU: Niri esaten deuste Peru batzuk, bestiak Periko: ezdot nik, umeetati bere, Jaunaren izenik enzuten, ta gitxiago *Donenik*. Izen ederra dozu. Done Juan, edo San Juan gauza bat dira. Donianiak esaten jakee San Juanetako egunai. Beraz zuk bere Doniane barri batzuk ekarriko dituzu, subak egin, donian bedarrak erre, ta egun gozatsu bat igaro eragiteko. Nik esango deusut emendik aurrera Maisu Juan, ta zuk niri Peru, ta alan aituko dogu alkar, itxirik ezjagokuzan Donok Abade, ta bene benetan Andikijak dirianai.

MAISU JUAN: Ondo dinozu, ta egija esango badeusut igarten neban ezjaotala niri zuri baño gejago, ez Jaunik, ez Donik. Asko da barbarik, ta ekin dajogun aurrian daukagun oni.

Empieza á comer Maisu Juan y dícele Peru:

PERU: Maisuba, bedeinkatu daigun majja; nire etxian ta baserrikoen artian beti jan aurreti alan egin oi da, baita jan ostian bere eskerrak emon Jangoikuari, zeñen eskubetati jatorkuzan on guztiak.

MAISU JUAN: Ni baño obiak zaree, ezdot nik mairik inos bedeinkatu.



PERU: Zer dinozu? Nun azi zara? Bedeinkatu egizu bada gaur esan eztaiguben kristinau gaistuak gariala.

MAISU JUAN: Baña ezdakit zelan egin; ta egizu zeuk.

PERU: Zagoz issillik. Zer esango litzate enzungo balitz baserriar batek bedeinkatuten dabela maija, ez jakinarren Barberu ain apaindu, ta Madrilen urtiak egin ditubanak? Eskolauba zara; erabilli ta irakurri dituzu liburu asko, ta zelan ikasi ez dozu?

MAISU JUAN: Peru, ez naizu lotsatu ta errezauegizu zer edo zer agin artian, ta eranzungo dot nik bere aldodana igarriko ezdeuskuben moduban nok bedeinkatuten daben maija.

PERU: Aurra bada: Asten nas, «Aitiaren, ta Semiaren, ta Espiritu Santubaren izenian»: *Neure Jauna ta Jainkua, gure itxadote guztiia zungun dago, ta emoten dozu bere denporan jaateko biar doguna. Zeure eskuha zabaldu, ta guztiok bedeinkatu gogizuz.* Aita guria Zerubetan zagozana... (*Reza.*)

MAISU JUAN: Ezdakit nik euskeraz Aita gurerik, ta eranzungo dot erdera.

PERU: Maisu Juan: etzara ori esaten lotsa? Nos aztu jatzuz txikitan guraso, edo Eskola Maisubak irakatsi eutsuzan eskaari Elesiak artuta daukazanak, ta Kristo berberak irakatsi eban Aita geuria? Ezkonduba zara? Booze umerik?

MAISU JUAN: Ezkonduba nas, ta baditut iru ume; baña Amak dauka dotrinia irakasteko arduria. Ezda ori nire opizijua. Ez eban Jesu Kristok euskerarik berba egin.

PERU: Ederto: ezda zure erdera mordolluan bere: baña nork nai jakin biar dau Aita guria bere Amaren sabeleti ikasi eban berbeetan. Zuri jaotzu Amari baño gejago umiai gauza on guztiak irakastia. Baña ezda orain berba egiteko denporia ta gakijozan aurrera: *Doe guztiem emolia ta gure Jauna; zure eskuti guk artu ta jan biar dogun guztiia, zuek bedeinkatu egizu, Jesu Kristo zeure Semia gaiti, ta bere izenian. Aita, Seme, ta Espiritu Santubak guztiok bedeinkatu gogizala, ta Zeruko bere maira betiko eruan gaitzala. Alan izan deilla.*

MAISU JUAN: Peru, nun ikasi dituzu erretalla luze orreek?

PERU: Erretallak esango zenduke Elesako erregu ta mai bedeinkatutekuak gaiti? Obeto egingo zenduban kendu bazendu buruko kerizgarri, zuben auan sonbrelluba deritxona, guk kenduten dogun legez buru-txa-

pela. Egija da zuben kapela barregarri, ta asmo barrikook ez diriala gauza, ez euriti, ez eguzkiti gizona gordeetako. Asko da: jan daigun.

MAISU JUAN: Ze okela plaga da au? Zalago dago zoruba bera baño. Azook balzak ta keetsubak jaraozak. Arbijak gogor egosi bagaak.

PERU: Maisuba, ondo milika, ta buperia zagoz. Uste zenduban ipiniko euskubezala eperrak, ollandak, ollagorak, ta andikijen maijetako janari gozuak? Okelatzen ipini jaku aketirenaren aragi gazituba. Idi gizen, ta zezin egitekuak eruatzen ditugu olagizon, ta aberatsen etxeetara, diru ederrak artuteko, ta gulanguen etxeetarako gordetzen ditugu txaaltxu, idisko, bei zar edo aketirenak. Gose onarentzat ezdago jaaki dongarik. Aberatsen maijetan etxakee ain gogoz ekiten geeli gizen, ta egaztijai, zelan baserri etxeetan arbi, aketiren, ta aza lurruna darijuenai. Ogi zurija aentzen baño, gozuago da guretzat arto erregutada galanta. Talo ondo egiña auspian, morokilla, eznia, gaztañak, ta sagarrak daukazan nekezalia, dontsuago da andiki guztiak baño. Milikerijen artian ezda aragi sendorik egiten. Begiratu baserri mutill, ta gizon gaztiai, zein mardo, ta mamintsubak daukeezan matralla alde ta zankuak. Zimentu onak daukazan etxia, iraunkorrrago da argalak daukazana baño. Ikusi egizuz andiki askoren alabak loraz ta bitxiz beteta. Itxurgatu, ta zurbilduta, gauza ez batzuk, argal, erkin, aise apur batek oeraten ditubala, oñak zerbait ezkotu, edo bustiten bajakez, estulga ito biar dabeela. Barriz gure neskatilla, euri ta aterri, eguraldi on edo txar, ortozik, edo abarka zulatubakaz dabilzanak, zein desbardinak besteetatik? Atxurren, laijetan, irabatuten, landara jorraan ta biargeirik gogorrenetan, gizonen albo ibilli arren, eztaue ain erraz estulik atera; ez osagille edo mediku atzian ibilli. Barijekubelan okelia jaateko gatx andija biarko dabee. Jatsiko dira meza enzutera jai egunetan indriska, ta eurra bada bere; ta ain sendo ta indartsubak dira, zein da urun zaku, edo zorro andi bat buruban dabeela, artuko litukee besape bijetan andikikume bi, bide luzian eruateko. Ezda alan? Maisu Juan, zetako zabiltz bada arpegi txar, iguina ta mukertasuna agertuten erretillu onetan bota deuskubezan lapikokuai? Jaizu arin.

MAISU JUAN: Jan biar zer edo zer besterik ezdaguanian. Baña bildur naz errebesau ezdaidan, edo aise dongas bete ez nadin.

PERU: Jan daigunian erdiraño, emongo deusut edaaten ardaa.



MAISU JUAN: Ezin egon neinde artietan edan baga. Artu ditut zelan alan atskada bi aza, aketiren onen atal bat; ta iruntsiko badot, edan biar dot. Ekartzu laster trago bat.

PERU: Eutsi bada neure eskuti.

MAISU JUAN: Au zer da, Peru? Ardao oni ezarri deutsee ura; motela dago, indarrrik ez dauka. Bestelango bazkarija. Artu daijogun kontu maija serbietan dabillen neskatilliar. Ze izen dau?

PERU: Praiska deritxo: baña orrelangorik aitatuten badozu emen, izango da atralaka, ta baralla andiren bat. Neskatilliak esango deutsa ugazaba-andriari; asiko da agiraka, txilijoka, ta barbarik onen esango deutsuna, izango da guzorra dinozu. Ta zer dakit nik Pielari dei eginda barregarritzko gauzaren bat emen ikusi ez daigun? Maisu Juan, obe izango da isillik egotia, ta ez ezer aitatutia. Gizon sakatu ta eruapen andikoak ezteutsa kalterik ekarriko burubari; baña irritu, aserrakor, sutsu ta miñarinekuak euki lei gerora damukizuna.

MAISU JUAN: Asko da zuk esatia, Peru; obeto dakizu oneetako barri, ta bazaut aserratuten bagara, eskatuko deuskula pagu andiren bat bazkari txar onegaiti; ta neurdin ezdeutsagu ura kenduko ardauari, ta ezdot uste beste zaragijetako ardauegongo dala purubagua. Zer daantzut?... Kantetan... Gagozan isillik zer dinuan... Peru, artu dozu goguan koplaxuba?

PERU: Bai.

MAISU JUAN: Zelan da?

PERU: Ona.

Aita semiak edanda dagoz

Ama alabak jokuan;

Ostera bere egongo dira

Soñoko zaarrak kakuan.

MAISU JUAN: Nor ete da kantoria?

PERU: Nik ezdakit; itanduko deutsagu neskatilliar, ta esango deusku.

MAISU JUAN: Praiska, nor da alango kantore ederra?

PRAISKA: Aita seme batzuk jua dira sabaira, aita katu andijaz ta semia bere bai zerbaitakuan. Lo egiteko asmoz igon dabee, baña emon

deutsa aguriak kantiari. Soñulari eder bat dozu ardaoz basa basa eginda bere.

MAISU JUAN: Peru, esaidazu arren ostera bersua, ta aterako ditut papera ta tinteruba beti aldian darabildazan legez, eskribiduko dot aztu eztakidan

PERU: Enzuizu bada ondo. *Repite el verso expuesto, y lo escribe el Maisu Juan y dice*

MAISU JUAN: Berso asko irakurri ditut neure aldijan erdaldunen liburubetan; baña ez berba gitxitan gauza geijago esan gura dabeni. Ai ostera kantauro baleu! Ai! Asi da... Gagozan issillik. Peru, artu goguan... Kantau ditut berso bi: zer dino?

PERU: Ona zer dinuan.

Egun baten gaba eginda

Ninoian neure etxera

Larrapastadatzar bat eginda

Jo neban beeko bidera.

Jaso nenduben danau mankauta

Bizkar azurra ausirik,

Miñaren miñaz katu guztia

Beinguan niri igarorik.

MAISU JUAN: Zetan parau ete zan Piestia? Nok osatu eban? Berso oneek gejaguen eske dagoz. Banua eurak eskribietara. (*Los escribe; y entre tanto oye que prosigue en cantar el borracho.*) Kontu goguan artutiaz. Zer esan dau?

PERU: Ona zer dinuan.

Ekarri eusten egun-sentijan

Maisu Juan Barberuba,

Gurago neban neure albu

Euki Gaiskin Diabruba.

MAISU JUAN: Ze diabru? Nungua da agure ordi kantore au?



PERU: Nik eztakit, baña bai zeu aitaturen zaitubana. ta Diabruba baño gaisto gogoragotzat zaukazana. Zeure errikua da, ta zeure egokiren bat. Aurra, artu egizu lumia, ta daukazun ur balz orregaz eratsi eiguzu zapi zuri orretan esan daben laukua besteen onduan. Onak ta txarrak, atsakabia ta atsegiña emoten dabeenak artu biar dira aserre baga. Etxatzu issilduko jazo jakon guztia bere soñuban esan baga. Ara,... badarraijo. Dino bada.

Borreru arek birau nenduban
 Albo bateti bestera,
 Egon biar dau onek, zinuan,
 Begira gaur bazterrera.
 Asi zan gero erremientak
 Bere ziskuti ateraten,
 Otso bijotzaz barre eginda
 An egozanai esaten.
 Kangrenatzar bat jajoko jako
 Ondo ezpadogu sajeetan;
 Ezdira ez onlango heridak
 Bedartxubakaz osetan.
 Jaurtigi neutsan ostikadiaz
 Ezarri neban lurrera
 Sartu eztedin Maisu Juane
 Nire etxian ostera.

MAISU JUAN: Badakit orain nor dan agure kantore au. Da ordi pusi-ga etxe guztija ondatu dabena; zoorrez beterik dago: tabernarik taberna dabill. Nosian bein darue banatuta, katubagaz duala, golpiak artuta. Alperrik illgo da nigaiti: ez nauka ostera atrapaurik. Nik ezdakit zelan osatu zan kantau daben tranzian: aragijak senduak ditu. Juan banakijo daguan lekura, irakatsiko deusat zelan berba egin; eztaukat aaztuta egi-eustana.

PERU: Obeko dozu jan, ta bakian itxi alango ordi galtzalla bati; ezpabere, orain adorerik beso ta oñetan euki ezarren, orrelanguak, edo bere

semiak emon leikezu makillaka galanta, ta buruba ausita itxi. Ara oraindi-no soñubetan, ta eztira alperrik igarotekuak bere laukuak.

Maisu borreru jua zanian
 Ekarri eusteen bertati
 Andratxu on ta errukior bat
 Auzoko erri bateti.
 Azur ta zauri guzti guztiak
 Zituban kontuz ikusi;
 Arpegi sona baketsubagaz
 Esan eustan onlan neuri.
 Txomin gaisua, ordu onian
 Bota dozu Barberuba,
 Ikusi gura ezpazenduban
 Lurrian bertan inpreinuba.
 Pasma bedarrak biarko dira
 Eragozteko pasmua,
 Orma bedarrak gozatuteko
 Banatu jatzun albua.
 Egun gitxijan zara ikusiko
 Indar galantak arturik,
 Eta zure azur banatubetan
 Inkaren apur bagarik.
 Esan ta egin, aste barruban
 Urten neban neuk etxeti
 Gerri zerdenaz makilla baga
 Jan gosiagaz besteti.

PERU: Maisuba, bantzuzuz dinuazanak?



MAISU JUAN: Bai, Peru, ta nago ikaratuta, zelan gizon ordi batek atera leikezan alango bersuak, ta kantau ain klaru. Nik uste neban, eztarri gustia euki biar ebala katigatuta, ta berso gauzarik ezin gomutau litxakiola.

PERU: Alan dirudi, baña ezda alan jazoten: ikusi ditut nik begijak lau-sotu, oñak lokatu, gerrija makurtu, ezpanak bisustu, txapela okertu, ta berbia moteldu ta zutinik egon ezin dirian gizon katutu ta ardaoz satstubak, eztarri garbi ta laztasun bagiaz soñuba joteko. Zelan dan ez dakit, bai baña alan dala. Iñosko azkorren dagoz orretarako, ta itanduten badeutsezu Aita guria, uts egingo deustube amar bider. Asko da soñurik, amaitu daigun pitxarondoko ardaua, ta Jangoikuari eskerrak emonda, guazan oera; ni logura naz; ez dot ez eunezko, ez miesazko izararik biar, ez artulezko burkorik. Marrageruben izara latzen artian atserengo dot goisartian. Eznabee iratzartuko ez ardi, ez imitxen zirrikak.

MAISU JUAN: Gurago dot nik orrelango oera etzun baño, sutonduan egon eguna argitu artian.

PERU: Agur bada, Maisuba, gois artian; gau on bat igaro egizu, ta dei egikedazu, ez ollarraren goisseko soñuban, ta bai eguna zerbait argituta. Egun on bat alkarregaz igaro badogu, obiaguak igaroko dituzu. Eruango zaitut egun batzuketako neure etxera. An ta bideetan erakutsiko deustudaz gauza asko, ta esango dozu nos edo nos Baserritar batek irakatsi deustuzala, erri barrubetakuak irakatsi ez eustubezanak.

MAISU JUAN: Eskerrik asko, Peru; zuaz, lo egizu orain, ta neure kon-tura goisian zuri dei egitia. Agur. Igaro egizu gizaajo orrek zuk bere gau on bat.

DIÁLOGO SEGUNDO

ENTRE LOS MISMOS MAISU JUAN Y PERU

Interlocutores la ventera y su criada.

MAISU JUAN: Asko da lorik; argituda eguna; antxina jo eban ollaarrak goiseko soñuba. Jagi zaitte; almorzau daigun zerbait; ostatuba pagau, ta guazan emendi, nora etorriko ez nazan osteru buruba galduten ezpajat. Ze aparija baarkua! Zelango gauba! Zelango desberguenzak enzun biarra gizon onrau batek?

PERU: Banua jaaztera; baña itxaran biar deustazu puska baten goiseko errege onak Jangoikuari egin arteraño. Nik, egunoro gosaritu, baskaldu ta apalduten dodan baisen ziur, egin daruadaz goiseko eskaarijak, ta bardin gabaz oera baño leenago neure emazte, ta umiak lagunduten deusteela. Maisu Juan, neure adiskidia; aserratuko ezpazintxataz, esango neuskezu ez deustudala ikusi kristinauba zarianen usain ta igargarririk? Ozta ozta, indarrez, gogo otzaz, ezin bestez ondo iritxiz, ta nagi nagi ziniála, erdi lagundu zeunstan maiko erregubak egiten: eta autortu zeunstan, neu lotsatuteko bestian, ez bakarrik etzendubala maiko jaana bedekintuten, ta jan ostian Jangoikuari eskerrak emoten, baita bere etzenkijala zelan egin. Eta dinozu gero irakurlari ederra zariála? Zelango liburubak irakurri daruazuz? Gomutau zaitte on guztija Jangoikua gandik jatorkula. Ez nas ni eskolauba; baña badakit, nik erein arren galgarauba soluan, ezarri arren simaurra ugari, jorratu, ta zalgia eskuz atera arren, ez jatala garirik elduko, neu lo naguan artian eurijakaz gozatu, ta lur barruban zelan ez dakidala erne erazo ta azten ezpadau. Beraz zor deustaguz eskerrak Jangoikuari gure bizitzari iraun eragiteko emoten deuskulako zer jan. Eta deritxazu gaisuak osatu gura badituzu, ez deustazula eskatu biar Jangoikuari lagundu dagizula?

MAISU JUAN: Peru, sermoe ederra predikadore batentzat bere. Nos enzunda ardantegi baten onelango konbersazinarik? Zer esango leukee bentera, ta bere serbitzarijak balenzube niri diraustazuna? Herejeren bat nasala.

PERU: Dana dala; baña adiskide asko gura jakon bati esan biar jako nun nai, ta nos nai ondo jagokana. Bakarrian dirautsut, eta ez neure buru-



ba arrotu guraz. Ikusiko bazendu nik gatxen bat daukadala, neuk ez dazaudala, ta ezagututa, jaramonik egiten ez deusadala, itxiko zeunsket ezer aitatu baga? Ez asko gura bazeunst, edo benetan maite baninduzu. Aitu egizu onenbestegaz zer esan gura deusudan. Baneki gatx iritxiko ez deusula, itanduko neuskezu iuaten zarian Meza nagusira Jangoikuaren berbia enzuten, edo egoten zarian bizargintzan biar ez dan orduban zeure, ta besteen animen kaltian. Itanduko neuskezuz beste gauzatxu batzuk; baña minberatu ez ditezen zure belaarriak, largako deusut onetan geijago aitatu baga.

MAISU JUAN: Peru, ondo egingo dozu, badakit zer egin biar litsatian, egiten ezpadot bere. Almorzau daigun orain.

PERU: Laster nas, ta artietan issio egizu suba, eta berotu zaite.

MAISU JUAN: Belutuko jaku orretan, ta dei egitera nuako Praiskari.

PERU: Itxi egjezu bakian eurenez jaki ditezen artian. Zuk zeuriari aurrera; sabelak emoten deusua ardura geijago arimako gauzak baño. Obeto egingo zenduban zeuk bere lo egin bazendu, gaba alperrik igarota, ardi ta imitxa txatxar batzuk gora bera. Aragi minbera ta guperak bide daukazuz. Zelango mutilla zu arratoetzarrez beterik dagozan toki edo geleetan lo egiteko! Orra nun danzudazan oin otsak; jagida Praiska; esan eiozu imini dagijala urdai zati bat erreren burduntzijan. ta arto edo ogi erregutadak koipatsutubaz, eukiko dogu gosari ezin obia: miazkauko dituzu atzak gozuaren gozoz. Andiki etxeetan artu daruen edaari arro ta bistubak baño mamin geijago iraatsiko deusua. Zer egin ete zan bartko soñulari ardaoz berotubaz? Ez da bere arnasarik bere ona elduten. Sabai-ko lasto ganian etzunda egongo da oraindiño.

MAISU JUAN: Arren jagiko ez alda datzan tokiti.

PERU: Ez arren biraorik ñori egotzi, Maisu Juan: errukarrija da, ta ez biraogarrija gizon adina galduten dabena. Nok jaramon biar deutsee ordi baten esan eta soñubai? Erruki geijago emoten deust niri, gorroto baño, zerren dabillen bere osasun, etxe, ta izen onaren kaltian. Kristinaubak gara, ta ezin zuzendu baditugu oker duazanak, edolan bere eskatu daijogun Jangoikuari argitu dagijala bere itxumendi ain ondagarrija. Orra or Praiska...

MAISU JUAN: Neska imini egin koipatsuba; urdai zati bategaz; ondo etorriko jakoz lukainka adar bi.

PRAISKA: Ez naz ni neskia, neskatilla garbija baño; ikasi eikezu urrenguan obeto berba egiten. Zuk zeure soñoko bitxidunok baño, nik geijago estimetan dot buruko ule trenza gerriraño elduten jatana, ta zapi baga nun nai erabili daikedana. Botako zendukedaz plagiaren etxera, gauza askori begiratuko ezpaneutsee. Len bere esan neutsun au.

MAISU JUAN: Ez zaite aserratu, Praiska, ta imini egizu koipatsuba.

PRAISKA: Ez daukat giltzik; etxe-ko-andriak gorde daruaz.

MAISU JUAN: Zer? eta egiten dozu egun bat bere konpianza apur bat ez deusuben etxian? Beragaiti ostu biar deusazu aldozun jaaki guttia, ta soldatia artuta jua zakijoz etxeti.

PERU: Orrek dira kristinau baten aotik urtengo dabean berbaak? Ostuteko putzak emon? Gurako zenduke, Maisu Juan, etxe-ko, eure otseñak egin dagizun orrelangorik? Ze ugazaba-andrak gorde ez daruaz gilzpian okela, urdai, ta bestelango gauza asko? Ogija lotu edo katigatu biar ez jakee otseñai. Ugazaba-andria zikotz zekena bada onetan, kalte geijago izango dau. Biar egiten dabena, jan biar dau. Praiska, ez enzuterik emon onen esanai: izan zaite esku garbikua. Niri sinistu gura badeustazu, urten egizu bai emendi. Ardao-etxeetan sartuten dira agura baldresak, mutil gaisto lotsabagaak, ta ez dozu enzungo emen berba garbi, ta zuzenik, ta bai birao, ta zantarkeriak. Ule trenza ori ain maite badozu, iges egizu garbitasunaren lapurren arteti.

PRAISKA: Ondo dinozu, gizon ona: emen barallia, diadarra, auzkia ta nasaitasuna baño besterik ez dago. Nik ez deusat urik ezarten ardauari; baña bai atso arima bagako txar onek; ta issillik badaruat, lagunduten deusat lapurretan. Edatera datosan gizonak esesten deuste neuk erruba baneuka legez; ardaa makala daguala, neurri laburra emoten jakeela, lapurak gariaia, ta zer ez? Barriz issilldu gura ditut aitauten deustezan izen lotsagarri damu emoten deusteenak; beintzat urtia egin daidanian, artuko dot igesa.

PERU: Ze urte, ta urte oste? urten egizu ainbat lasterren onelango etxeti, nun Jangoikuaren usainik eztaguan.

MAISU JUAN: Zagoz issillik; ementxe dator bentera, ta etxe-ko andra prinzipala, ta enzuten badeustube konbersazinua, galdubak gara. Pausu otsa da; orra or itxura ederreko prendia.



PRAISKA: Gorra dago; diadar andi baga eztaanzu ezer, ta egizu berba ardura baga.

MAISU JUAN: Ondo dago bada. Peru, zer deritxu eskatuko deuskula pagutzat?

PERU: Arpegijan agertu oi da askotan nor zelangua dan. Begira egijozu ondo buruti biatzetara atso oni. Baditu gitxienez larogei urte: beko-ki guztia tximur tximur eginda bere mamin, ta guzti: begi bijak ezkelak, ta gorritubak, piztaz ta bekarrez betiak; betseina katubaren gisakua: betuliak erdi zuri, ta erdi murrutubak: betazpiak baltzitubak; ortzak antxina juanak, oi utsak agiri ditubala; suurra azpiti auts gorritz betia, muskil baltza darijola; gañeti zubituba: lepua makurra, ta jita artuba. Bakarrik miña dau txito ezko ta zolija, neskatilliak dinuanaz. Eztaukagu zer itxaran abegi onik; gure lapikoko arbi, aza, ta okela zantarra urre biurtuko jako bere auan, ta diruba ezpadozu ugari, ez dakit zelan ibilliko garian. Alan bere urten daigun ezta-baideetati, ta itandu egijozu, zenbat eskatuten daben gure aparti, gosari, ardao, ta oia gaiti.

MAISU JUAN: Ondo: baña ze izen dau? Neskatilla, esaizu.

PRAISKA: Maisu Jauna, Andra Madalena deritxo.

MAISU JUAN: Izen ederra; bere izeneko Santiaren debotia bada, ezta zekena izango. Probau daigun. Andra Magdalena, esan beigu, zeinbat da gure kontu guztia?

LA VIEJA: Itxaizu kontubak atera daidazan... Atera ditut, ta gizon honraubak zareen aldeti, ezda izango eskudo bi baño geijago; beste batzuk bazinec, geijago pagau biarko zeunskeet.

MAISU JUAN: Andra Magdalena, ez gara bi baño geijago; gau bakar bat igaro dogu; eztogu ez ollandarik, ez eperrik jan, ezda pitxar erdi bat baño edan. Zer esan dau?... Eskudo bi pagau biarko dogula?... Gorra dago?... Peru, issillik zagoz?... Barre egiten dozu?... Atera egizuz kontubak, ta nik paperian sumauko ditut.

PERU: Ondo dago. Lau onza aketirenek, lau lauko.

Zortzi arbi buruk, amabi zuriko, edo iru lauko.

Azatan koipe ta guzti, bost lauko.

Urdai apur apur, urtu zana, lau lauko.

Ogi baltzetan, zortzi lauko.

Pitxar erdi ardao, amar lauko bits ta guzti, eukan ura sartu baga.

Nire oe antxinako Eremutar, ta Padarrak gogor ta iguingarrijagorik euki ez ebeena, sei lauko, ardi, ta imitxa baktzeko laumarai esketan ezpadau.

Goiseko koipatsuba zortzi lauko; ez naz ni geijagogaz gomutetan. Maisu Juan, jo eragijezu batera lauko guztijai, ta esaijozu zer zelan dan, ta begiratu daijola arimiari.

MAISU JUAN: Ah zorua! Oni arimia aitatu? Oin bategaz sepulturaren jaraok, ta bestiaz inpreiñuban.

PERU: Zeuk daukazu erruba: etorri ezpaziña ainbeste soñoko bitxidun ta apaindurijaz, ez eban ainbeste eskatuko.

MAISU JUAN: Peru, soñokuak eztabee ezer jan, ez edan.

PERU: Zer da ansi, edo ardura? Zulango apainduben zain dagoz onlanguak, ta arnasia bere zorko dozu.

MAISU JUAN: Leenago inpreiñuko guztijak eruango lajauket atso soringin au, nik eskatu dabena, pagau baño.

PERU: Egizu egingo dozuna, ta esaidazu zeinbatera joten daben gabak, ta gois dontsubak?

MAISU JUAN: Paperian batu ditut laukuak, ta igoten dabee berrogeta zortzi laukora, ta oneek egiten dabee bost errial, ta bost lauko ta erdi. Inpreiñuko atsuak, sei errialera elduten eztaben kontubari, igon eragingo deutsala eskudo biraño? Ez gaur, ni bizi banaz. Magdalena, kontubak atera ditugu ziatz, ta joten dau gure kastubak bost errial, ta bost quarto ta erdiraño; ona emen sei errial, ta iru lauko geratuten dirianak, isten ditugu Fraiskarentzat burukorratzetarako. Agindu ta agur. Peru, guazan.

LA VIEJA: Pikaro bergantiok, sei errialegaz paguba niri egin? Zuben kontu arinetara ni etorri? Suba, ta enbarazuba, nun dira? Nok pagauko ditu nire etxiaren errentak? Pagau eidazuz issil issillik neure eskudo bijak; ezpabere jakingo dot zer egin. Nos jan dozube etxian alango lapikokorik? Urdaija, koipia, geeli ederra, arikija, arbi, ta azaak; ardaua inun ez obia, ta edan ala.

PERU: Ez neutsun nik esan zer jazoko jakun? Zer egin orain?

MAISU JUAN: Zer egin? Itxi egidazu neuri eskrupulubetan sartu baga, ta neuk emoten deutsut berbia urtengo dogula lauzuri bere pagau baga.



Fraiska, ekatzu goiseko urdaijaren azala. Zetako dodan laster jakingo dozu. Baña ez: bota egizu zeuk atso lapur onek igaro biar daben bidian; labanduta joko dau beia; mankauko da; etorriko dira nire biarrera, ta gero egingo ditut kontubak ederto.

PRAISKA: Ez nik orrelangorik, egizu zeuk gura badozu.

Toma Maisu Juan la corteza ó pellejo de tocino; cae la vieja en tierra, se maltrata y exclama.

LA VIEJA: Ai, ai! ill nas; atera dot besua, ebagi jat buruba; odola darijat arpegiti beera. Praiska, Praiska, eldu zakidaz; galduba nas betiko. Nire ditxa bagia! Gizon onak, jaso nagizu, ta ezarri oera. Dakardela barberuba.

MAISU JUAN: Esta zer ekarri barberurik; neu nas barberurik asko. Zorijonian zuretzat urten ezdogunian etxeti. Lenengo egin biar dana da sangrija bat: gero kurau buruko epaija, ta azkenian zuzendu beso ateria.

LA VENTERA: Ai orrelanguak egingo bazeunstaz! Parkatuko neuskezuz guztiz eskudo bijak, ta ipiniko litxakezu gaur bere bazkari ederra duarik.

PERU: Inpreñalen asmo, ta gizona. Maisu Juan, atso gaisuagaz egingo zenduban orrelangua?

MAISU JUAN: Zagoz issillik; atso sorgin lapur batek ez eban gitxiago merezi. Fraiska, berotu egizu laster ura, ekarri egizu gero terreña bat; presta egizuz benda, ta sangrija txaplataak, ta kontu issillik eukitiaz zelan izan dan. Ama-ama gaisua; ekartzu beso kaltebagako ori; ezteutsut miñik emongo, lanzeta barri ta zorrotza daukat: zure zaanak agirijan dagoz.

LA VENTERA: Ai, neure gizon ona! Egizu laster sangrija egingo dozuna, zerren nire buruba miñez ebaten daukat, ta besua ez gitxiago.

MAISU JUAN: Ekartzu bada beso ori; ez deustut miñ andirik egingo.

LA VENTERA: Larregi daukat miñik. Alan bere zabilz kontuz.

MAISU JUAN: Larga niri; bada pulsubak ezteust ikararik egiten. Ardu-ra geijago emoten deustee beso ateriak, ta buruko mallatu, tontor, ta epaijak... Orra sangrija eginda. Ekartzu orain, amandre, beste beso ori, ikusi daigun ze kaltiak egin dirian... Ai, ai! Galdu jatzu betiko; azur ateria baño

izan ezpalitz, neuk iminiko neutsun bere tokijan. Ezin neurtuko dozu onezkeru ardaorik, ez erabili esku onegaz giltzik? Azur ausija, nok osatu? Jangoikuak bakarrik. Iminiko deustugu koipe, ta malmazko enplastú bat, miñak gitxitu dakizuzan.

LA VENTERA: Ze atsegiña larogei urte urrian dituban andrakumia-rentzat! Ez nekijan orain artian gatxa zer zan; eztot neure oe aurrian barberurik ikusi.

MAISU JUAN: Ama-ama, zer gura zeunkian? Ill, gatzik igaro baga?

LA VENTERA: Bai neure gizon ona; alan uste neban. Egizu bada egingo dozuna.

MAISU JUAN: Atsegiñez; baña animo; ezin osatuko deustut buru zau-rituba miñ andi baga. Ibili biar dabee jostorrazak, binagriak, ta bai lan-zetiak bere.

LA VENTERA: Ai nire galduba! Josi gura deustazuz aragijak, erre gero binagre ta gatzaz, ta epai barrijak egin? Illgo nozu tormentuz beterik?

MAISU JUAN: Proba zaitte; kendu egizu buruko zapi ori. Fraiska, urre-ratu egizu kruselu ori; garbitu daijogun lenengo arpegi odolduba: ekartzu jostorraz bat bere arijaz.

LA VENTERA: Maisuba, ikara jabiltaz azurrak, izerdi larri batek urte-ten deust gorputz guztiti; begijak lausotuten asi jataz; ill biot.

MAISU JUAN: Ez, amandre; aldi gaisto txaarren bat geijen egingo jatzu, ta obago zuretzat; zerren gitxiago sentiduko dozun miña. Fraiska, sartu dozu arija orraatzian?

PRAISKA: Bai; eutsi.

MAISU JUAN: Ama-ama, animo, eskatu egijozu pazienzija Jainkuari, nik bere egingo dot kurutzia-aren señaia, ondo urtendaian kurazino gogor ta gatx onek. Asten nas...

LA VENTERA: Oi, oil... galdu nozu neure biziko... txut, txut... Itxi egidazu arren ill nadin orrelango borrarukerija baga.

MAISU JUAN: Or konpon bada. Egin dot alegiña, ta ez esan nire erru-ba izan dala. Neskatilla ona daukazu Fraiskagan: gu bagoaz, zu, ta ni kitu. Agur amandre gaisua: gera zaitetz Jangoikuaz...



Salen de casa Maisu Juan y Peru.

PERU: Maisu Juan; ez neban sinistuko munduban eguala gizon zu baisen gogorrik. Beeko gaiskiñik asmatzalleenak bere ez eben geijago asmauko. Zeuk mankau dozu atso gaisua, ta isten dozu alaz beterik erio-tza gogor baten atzamarretan. Kalte oneek egitia asko ezpalitz legez, urte-ten dozu apari ta gosarija gaitik ezer emon baga. Nik beintzat bialduko deusat egin dodan zoorra; eztot iñoren gauzarik gura.

MAISU JUAN: Peru; ezta illgo atsua, malpekau, ez. Lapurreta gitxiago egingo dau emendi aurrera.

PERU: Kontu ederra. Oraindino damuko dozu egin dozuna. Jakiten badeutsu atsuak, osatuten bada, ikusiko dituzu elorrijokuak; ta dongago dana, ni bere sartuko nozu okerren baten, errurik euki baga. Badaki Prais-kak zelan galdu dozun bere ugazaba andria.

MAISU JUAN: Neskatala issilla dirudi; ezteutsa ezer esango.

PERU: Andreen issiltasunaz koipetuten zara? Eztakizu gu baño urkuago egiten jakola bere ugazaba-andria, au zelan alangua izan arren? Bere buruba garbitutia gaitik, ta iñok errurik ezarri eztagijon, esango deus-ta dana. Eta gero? Etzara ezereen bildur?

MAISU JUAN: Badakit zer esan gura deustazun: emongo dabela kere-llaren bat nire kontra; etorriko jatazala eskribau ta aguazilen batzuk, egin-go ditubela prozesotzarrak, ta ezarriko kostubak nire lepora, ta menturaz sartuko nabeela preso.

PERU: Bai, igarri deusazu zetan daguan nire bildurra. Atsuari egin deusazun asmorik, ezin egingo deutsezu alango gizonai.

MAISU JUAN: Ah zorua! Zelan probau niri neuk bota eragin nebala? Neskatala serbitzari baten testiganzia ezta asko. Alango testiguba, ezta testigu legeko ta abonauba.

PERU: Zuk alan dinozu orain. Besterik ezpada bere, asko izango da zure lepora ezarteko luma biar egiñen nekesarijak.

MAISU JUAN: Ze diabru? Probanza oso baga niri ezarri eskribau, ta justizijako beste ministruen ibilli ta prozesuak?

PERU: Ez barriz. Zeuk ikusiko dozu. Nundi edo andi aterako ditube, ta neskatillaren esanak, zure kaltian izango dira. Besteti, atso gaisuak

ondatuko ditu daukazan lauko apurrak; lapiko ona ta olluaz egiña biarko dau. Ekarriko dabe zure ordian beste osagilleren bat... Badakizu gatx luziak asko daruala. Eta baldin gomutetan bajako neskatillari esatia artu nagijela ni argitasun geijagorako, zer egin? Eztot nik arimia galduko ez zugaiti, ez beste gaiti.

MAISU JUAN: Etorkizunak emoten deutsu orrenbeste bildur? Guazan zeure etxera, igaro daigun umore galanta; datorrena datorrela; neuk emongo deutseet arpegi justiziako opiziale diru zaliai; asko jakiñak badi-ra, ni ez gitxiago.

PERU: Zu lako bat beeratu dabee nos bait, ta zure janzi bitxidunok ez ditube atzeratuko biarririk ez egiteko; zure lotsa, ta itzalak ez ditu bein-guan ikaratuko. Egizu nai dozuna, ta guazan aurrera.

MAISU JUAN: Ze soñu da danzudana? Peru, ez danzuzu zuk?

PERU: Bai, elessakuak eragitera duaz nor baiti.

MAISU JUAN: Kanpae otsa dozu barriz. Atsuari daruake Abadia. Ilten bada juan zan nire kerellia.

PERU: Zuk eztozu inos berba on bat esango; etzara zu kristinauba. Eztakizu ez jakola iñori gatxik opa biar geure kaltegiñilla ta arerijua bada bere? Barriz zu zara atsuari gatx egin deusazuna; zuk aurrera beti zeure saill gaistuari. Zeu ondo bazagoz, or konpon bestiak. Jangoikuaren zigor-rak jarraituko deutsu, gizonena austen badozu bere. Atsuaren odolak diadar egingo dau.

MAISU JUAN: Gura dabena egin dagijala, ta ez egidazu geijago aitatu atso benteriaren konturik. Emendi aurrera, urten ezkerro tabernati berba egin biar dogu gauza obaguen garian. Gauza batek ikaratuten nau zuga, zein ederto euskera berba egiten dozun, eskolarik euki baga. Nik ezin dot irakurlante andija izanda bere. Bati baño geijagori enzun deusat, baserri-tarretan daguala euskera garbija; gaztelan izan garianok, ta uri barrubeta-kuak erdera askogaz nastetan dogula euskera. Zuri enzuten deusudazan izen, neuk eztakidazanak, iminiko ditut paperian, euskera ondo berba egi-teko. Gure erriko kuriari enzun deusat buruba ausita bere ezin dabela sermoe bat euskera ondo imini. Nik erakutsiko deusadaz zuri ikasten deusudazanak?

PERU: Maisu Juan, nik eztakit beste euskerarik neure guraso, ta auzo-kuei enzunda ikasi deutseedana baño, ta egizu onduen deritxazuna. Ausia-



bar asko artu gura dozu buruban artutiaz, ta lumiaz irastiaz euskera izenak. Nik eruango zaitut leku askotara, ta enzungo dituzu zuk eztzakizuzan euskera izen asko. Belarluze baten irrinda estuba danzut; ilten dago epailia... Urrian dago etxia; guazan laster, ta ikusiko dogu zarian edo ez txarri-azterlari, edo len zeuk esan dozun legez, anatomiko ona. Nik erakutsiko deusudaz abere lau oñeko zantar onen zati andi ta txikar guztiak, ta ikusiko dogu dakizuzan euren Izenak. Nik enzun dot txarri (parkatu, au da bere izena) txarri barruba dakusanak, dakusala gizonaren barruba. Beraz zuk bata badakizu, jakingo bere dozu bestia.

MAISU JUAN: Adiskidia, estuban iminten dozu nire jakiturija: ikusi ditut gizon illak edegiten, baita bere bein banaan konteetan; ez baña txarrijen anatomija. Nik esplikaiko deusut gizonarena. Itanduten dogu lenengo, zer da anatomija? Erantzuten dogu, dala arte bat irakasten dabena disekeetan korputzaren partiak, ezagututeko norenak dirian, ta zenbategaz konponduten dan korputza. Anatomijak daukaz lau jenero, *Osteologija*, edo azur ta kartilaguen ganian tratetan dabena; *Splanchnologija*, edo errajen ganian irakasten dabena: *Myologija*, zeñek erakusten daben, zer dirian muskulubak, zeinbat, ta zetarako; *Angeologija*; ta au da erakusteko zer dirian basuak, zeinbat, ta ze usutarako.

PERU: Barriketa asko, gauza on gitxi. Nik ezteutsut ezer aitu belarrietara eldu bajataz bere berba zantar, buruban artu ezin neikezanak. Eta, zetako da anatomija ori?

MAISU JUAN: Da emoteko Jangoikuari eskerrak ikusirik fabrika ain ederra; ezagututeko kanpoko ta barruko gatzak; egiteko pronostikuak euren gañian, ta azkenik kureetako.

PERU: Etxatzu zuri inos burura etorri ez Jangoikorik, ez esker emoterik korputz illaren azterketan. Ezteutseezu igarriko barruko gatzai; or oi zabiltzee zeuben jakiturija ustiaz, gaisuak zer daben igarri ezinik; batari miña atera eragin, ugarririk, zetakarrik, edo kortikarrik ete daukan; bestiari eskuturra eskatu, atz bigaz oratu, ta igarteko zanak igituten ete dirian makal, bizkor, bardin, eta desbardin, ta zuben pronostiko, edo etorkizunenen barri emotiak zelanguak oi dira? Batak ilgo dala, bestiak ez dala: onek, gatxa beriala ebagiko jakala; bestiak, luzatuko jakaa. Zuk esango dozu odola atera biar jakola zanen arin, ta bizkor ebiltia gaitik; zure lagunak esango dau ilgo dabela odola ateratiak, makal dabilkola eskuturreko tintina. Orra zure anatomija izen andikuak dakazan mesediak. Emoten deutsezubez gaisuai edaari samin, minkotx, atsitu, ta errai guztiak irabil-

dutekuak, gatxa ezagutu baga abespeluan, urten dagijanak urten dagijala; illten bada, or konpon; urteten badau osasunaz, zabiltzee bazterretan zabalduten, nik bai egin dodala osaketia urlija gizonegaz, iñor osatuten ezpaltiz legez odol aterate, ta edaari atsitu baga.

MAISU JUAN: Peru, ezta zure bururako gure jakiturija. Anatomija ondo ikasteko biar da buru andi ta iratzarrija. Enzun nagizu. Korputz humanua da mundu txikar bat edo *mikroskosmu*. Gorputz au da arbola bat legez, zeñek daukazan tronkua, ta adarrak? Tronkuak daukaz iru kabitade zeintzuk dirian buruba, bularra, ta beeko sabela; ta adarrak dira besuak, ta beernaak. Orain ausiko neuskezu buruba asiko bañintxatzu bein banaan expliketan zertzuk dagozan buruko kabitade edo barruban: batzuk dira bere beriak; onei deritxee *pelikranena*, ta *kranena*; bestiak komunak korputz guztiari, zelan dirian *kutikulia*, *kutisa*, ta *gizentasuna*. Eztot asi baño egin.

PERU: Asko ta larregi da; gordeizuz zeuben arterako berba ezain orreek, ta egizu euskera.

MAISU JUAN: Adiskidia; euskeriaz ezin explika leitez.

PERU: Lauoñekua bere arbola edo abe bizi bat da, zuk esan dozuna egija bada. Daukaz buruba, bularra, ta sabel beekua: ta oneetan dagoz toki, gauza asko barrubetan daukeezanak. Onek izango dira zure *kabitade* dontsubak. Lauoñeko batek buruban, ta korputz leku askotan daukaz azala, azaltxubak, ta gizentasuna, ta mintzak; ta onek dira neure ustez zure *kutisa*, *kutikulia*, ta *membranak*. Nire berbeetia lenengoti aitu ta ulertuten da; barriz zuria diabrubak berak bere aituko eztau. Azala bera dago beste azaltxu meiago baten barruban, ta azaltxu me azal lodijaguari eraatsita daguana, da mintz txito me ta etenerraza. Buru azur biribilla da beste azur batzuben batzakuntzia, zeintzuk egiten dabeen utsune, edo onzi bat, ta garuntegija. Buru azur oni dago iraatsita bera estalduteko minz me me bat. Maisuba, barriketa luze, gogaitkarri baga ta berba errazakaz, adierazo deusut euskeraz zer dagan buruban: alan azalduko neuskezuz beste gauza asko euskera garbijan, begijakaz ikusi aldeitekezan zan, azur, edo mamin gauzeetan. Guazan laster ikustera txarri illa, ta nik esango deusudaz izenak, anatomijaren izena inos enzun ezpadot bere, ezpada zure ao beroti.



MAISU JUAN: Ezin esan zinait atsegin andijago emongo deustan gauzarik. Ikaratuko ditut neure opizijokuak, esan daijuedanian topau dodala baserritar abarkadun bat, neuk baño anatomija geijago dakijana...

Llegan al lugar de la matanza del marrano.

PERU: Badakutsu emen belarluzia ilda, sutan igarota, edegita. O anatomiko andi Maisu Juan! emen agiriko da berba arruai itxita, zein jakituna zarian. Erakutsi, ta izentau egidazuz geure amaren sabeleti dakargun berbeetan lauoñeko zantar onen zati guztiak.

MAISU JUAN: Peru, ezin nei, ta izentau egidazuz zeuk.

PERU: Ona bada. Belarluziari agirijan, ta bizirik daganian ikusten jakozan zati, edo gauzaak dira oneek?

Buruba,
 Belaarrijak,
 Begijak,
 Betuliak,
 Betartia,
 Musturrak,
 Surzuluak,
 Iduna,
 Samia,
 Zuurdaak,
 Azal, edo narruba,
 Lau oñak,
 Allia,
 Ziilla,
 Aua,
 Konzaluak,

Agiñak, ta ortzak,

Matralla-agiñak?

Eta ao barruban;

Oijak, sabaija, miña.

Buru barruban;

Azur nausi zortzi azurregaz bat egiña; azala, azaltxu, edo mintza, ta garunak

Eztarrija,

Korkamistia, ta oni dautsazanak,

Birijak,

Andaerriajak,

Biotza,

Estegorrija,

Urdalla,

Este-meiak,

Este lodijak,

Estartekua,

Lopia ó lopetua,

Gibela,

Odola,

Zaanak,

Biaztuna,

Baria,

Baresaria,

Gunzurrinak,

Ganza,

Sagubak,

Gantzazala,



Txuringia,
 Solomuak,
 Solomotxubak,
 Saiaskijak,
 Papadia,
 Bizkarra
 Arbijak, edo molleja
 Urdai gizena,
 Urdaiunsakija,
 Azur asko, ta euren izenakaz,
 Pusigia, edo garnu-onzija,

Naozu geijago? Aztuten jatan korotza, aztuteko obia bada bere.

MAISU JUAN: Ezneban sinistuko baserritar batek jakin leijala ainbeste izen, ta euserkia zala ain aberatsa bere berbeetan. Nik ezin artu neiz buruz izen guzti orreek illabetian bere. Iminiko ditut paperian, erakusteko beste nire opizijokuai.

PERU: Ordu onian; ta esango deutsudaz bein banaan. Txarrijak berak, ain ezaña izanik daukaz izen asko. Batzuk esaten deutsee, lauoñekua; bestiak belarluzia, beste batzuk *ganau zurdaduna*; leku askotan *ganadubaltza*; ez ain ondo, bada asko dira zurijak bere; badira *urdi*a esaten deutseenak. Lau oñekuak batzuk dira *ordotsat*, bestiak *aardijak*; edo arrak, ta emiak. Gurasotzat artuten dirianai, edo aitatuteko, deituten jakee *apua*, ta parkaziñua eskatu baga, ezin emon deutsee nekezale prestubak onelango izenik. Inos erosi gura badozu lauoñeko etxian aztekorik, begiratu ondo belarri, ta bizkarrari. Belaarri luze, apal, ta makalak ditubana, ta bizkargorra, edo jasua dabena, gizendu, ta aziko da tint. Maisuba, ona etorri garian ezkerro, zabaldu biar da ziskuba, ta emon zerbait, epailla ta batu dirianak ardaua edan dajen. Pitxar bete biarko dabee gitxienez, ta zerbait geijago guztiok edango badogu. Alan oi da; ta zuk ain apainduba egon ezkerro, eztozu prestubez dollor, zikotz, zeken, ta zisku-estutzat zeure buruba agertu biar.

MAISU JUAN: Ondo dinozu, ta errazoia da neuk ekartia konbita. Baña eurak bere prijidu daigubela gibela, edo erre kunzurrunak, ta solo-mo zati bat.

PERU: Ezin iñori aitatu ginaijo orrelangorik, eurak aurreratuten ezpadira; esango leukee lotsabaga, ta dongaro azijak gariala; belutuko bere litxakegu etxerako.

MAISU JUAN: Orra lauoñeko bati emoten jakon paguba urte betian erregaluban eukita.

PERU: Ondo dinozu, ta orain jatort gogora gaztetan ikasi neban asko esan gura dabon ipuin au.

Eldu zan korta batera azeri bat, ta topau eban an belarluzer, edo txarri gizen ta mardua. Esa-cutsan onek, Zer darabilk emen lapur zital orrek? Iri guztiok deubee gorroto. Eizaan dabiltzanak, eruaten ditubazalako eurak ill gura jituben eperrak. Gurago juek ilako bat, sei eper baño egiten ditubazan kaltiak gaiti. Etxeetan ezin ikusi abee, olluak atrapetan ditubazalako. Txakurrak urrinetik igarten jeutseek, botaten duan atsaz, urrian abillela. Asko ostu, ta beti argal, beste lapurrak legez. Ase ollakiz, bildotskiz, ta eperkiz, ta beti aragi txarra egiten duala. Illten baabe bere, ezabe ezertako gura. Ezdakusk barriz nire bizitza ona? jan ta lo, ta nos bait urten ibiltera. Jatort neskatillia zukubaz, arta garaubaz, ta kastañakaz. Sabelpian ta lepo ganian niri igorzten oi dabill, ta bere poza da, nik ondo jaatia, gizen egitia; ta egun baten jan gura ezpadot, illunduten jako biotza, ta dino negarrez legez; jangarzututa da gure lauoñekua, ta jabilt eregau ta palagetan jan eragiteko. Esacutsan azerijak, ah tontotzarra! Lo egik; gizen-du adi. Maite jitubek ire odoloste, lukainka, gibela, bare, solomo, ta duan guztia. Ire urdai gozatubak urte guztian egon biarko jok egotzen, kunzurrun ta solomuak sutan erreten. Jatorranian epallia, ta iru edo lau gizonek oratuta, sartuten deubanian ganibeta samati erraijetaraño, irrinzaka aguanian oñi ezin eraginda, esango dok. O azeri zorionekua! eta zeinbat donsubagua asan ni bano! Orra zetara jo dabon nire jan, lo, bizitza onak.



DIÁLOGO TERCERO

ENTRE LOS MISMOS MAISU JUAN Y PERU

PERU: Eldu gara bada gabiltzan gabiltzan, o adiskidia, neure etxaguntzara ta jakin egizu deritxola Landeta, landa eder baten dagualako. Ezta gizon aldi dakigunian, etxe onetara ezkondu mutil arrotz, edo beste etxetakorik; belaunik belaun gizon etxeko semeetati eldu da nigana; agaiti aldatu ezta niganaño neure izen ondokotzat etxe onen izena; alan derist *Peru Landeta-ko*. Belutu jaku bidian, baña oraindiño etzirian nire emazte, ume ta otseñak oera juango. Eztauke nire usterik gaur gabeko. Zurturik geratuko dira nire umiak zu zakusezarian, etorri ez oi dalako ona zu baisen gizon apaindurik; igesko dabee zokondutara kuijak legez

MAISU JUAN: Peru, atia jo baño leenago esaidazu arren zer da kuija?

PERU: Zubek konejua esaten deutzazuna, ta esaten jako kuija, kui kuika, edo kukuisa legez dabiltzalako emen urten, an sartu, burubak orain agertu ta gero ezkutetan.

MAISU JUAN: Peru, txakur zaunkia da, ta andijarena. Oratuten badeust?

PERU: Ez bildur izan; bakarrik etorri banintz, ez eban zaunka aserre usaiñekorik egingo, ta bai urten bidera pozkariatz alliar eragin ta parlan-zuban neugaz ibilteko; egingo zituban pozezko inzirijak. Etzaitu usigiko neugaz zakusazarian, igarriko deutzalako zatozala bakez, ta ez ezer erua-tera. Txakurrari dagoka zaunka egitia, ta etxe ur ta inguruban ibiltia. Ogi puska bate gaiti; zelango oniritxi ta asko-guria artuten ezteutsa bere ugazabari? Makillaka banatu arren ugazabak, inziri illetazkuak egingo ditu, ez baña jarki ta aginik erakutsi. *To, to* bat esan orduko, enzuten dau, ta igarten dau ardi, auz, idi edo beiren bat dabillega soluan, ta ateraten ditu arin onian. *Urtik bat* esaten bajako, alde egingo dau maijaren alboti goserik andijena badauka bere; alperrik izango da gosesto salobria. Ipiñi gura zaitut gauza askoren jakitun etxian sartu orduko. Daukat Jangoikuak emonda emazte otzan, baketsu, euli bati bere gatxik egingo ez leuskiona. Azten ditu umiak lotsa onian, mankau бага, ondo esanaz, ta Jangoikuaren bildurra irakatsijaz. Zorionez umiak eurak bere esanekuak dira jatorriz legez; eztakije erremuskada, bekoki illun, ta mustur astinketarik egiten. Eztozu enzungo nire etxian biraorik, ez baralla, ozpe, atralaka, ta iskibidurik; bai

berba onak, elessako gauzaak, ta bake betikua. Daukadaz seme bi ta beste ainbeste alaba. Gari ta artuak daukadaz giltz бага ganbara zabaluan; bada daukaguzan otseinak bere, azi ditugu geure umiak bagenduz legez, alkar maite dogula. Iñoren basori orri bat kenduten ez jako, bai zaindu ondo geuriak. Orregaitiño Jangoikuak emoten deusku gauzia ugari; topin ona beti izaten da; ilten dogu lauoñeko gizona, idi lodi zezin ederra dabena. Euren denporetan izaten da jan al baño geijago kastaña ta sagar. Urte guztian, esaterako, daukagu eznie ta aurreratuten ditugu dirubak lagunduteko gero umiai, aututen dabeen bizieran. Dakustaz nik iru ta lau etxaguntzaren jaube dirianak, zoorrez beteta, bururik jaso ezinda, gosia emoten deutseela euren ume ta ogitukuai. O zorigaistoko ardantegiak! Eta, zainbat kalte egiten dozuben! Bizkairik geijenak erriojara darua dabena ta eztabena.

MAISU JUAN: Peru, zoriekua zu! Errege bera ezta zu baño obeto bizi. Guazan laster barrura; jo eizu atia.

PERU: Dran, dran.

ETXEKUA: Nor da?

PERU: Umiak, zeuben aita, edegidazu atia.

ETXEKUA: Bai bai, pozik. Jesus! nor da au?

PERU: Umiak ez igesik egin; gizon ona ta adiskide barri bat da, ezteutsube gatxik egingo. Mun egidazube eskuban besteetan legez, ta gero denda, ta igitu zaiteze aparta ta oe garbi on bat iminteko lagun oni. Maisu Juan, guazan eskaratzera, oñak bustiko jatzuzan, ta aldatu egizuz. Eztozu emen ediroko oñetako zorrotzik, bai abarka, edo zapata zapal edo motzak.

MAISU JUAN: Peru, zu bere jausi zara nos edo nos zeure euskeran. Zapatiaren izena erdaldunena da.

PERU: Nik eztakit erdaldunen barririk, baña bai zapatiaren izena euskalerrijetakua dala. Zapatia esaten jako oñetako zoru sendodunari; *zapala* dalako, edo *zapalduteko* zerbait, txito adjutuba. Zapua bere esaten deutzagu piztija atsitu zapalari. Ausse badakit, ez ezer geijago.

MAISU JUAN: Issillik nago errazoe orreek enzunda. Ezin atrapau zinaiz zeure euskeran. Ekarki eragizuz bada zeure zapata batzuk, zeintzuk eukiko dituzun gordeta jaiegunetan meza nagusira juateko.



PERU: Bai alan jazoten da aspaldiko urteetan; nekezale guztiak bere badaukez euren zapatak zutoetxubetan, ta kalzerdijak kakuan esegita. Sartu dira kapela kerizgarrijak, ta egal biribil ta luzedunak. Nik enzun neutsan aita asaba bati, antxina andikijak bere ebiltzala abarkakaz, txapel batubaz, zeintzuk obago dirian buruba ta belarrijak berotuteko kerizgarri zuk sonbrellubaren izena emoten deutseezunak baño. Jagiko balira lurpetik antxinako asabak, ez leukee sinistuko bizkaitar, ta euren ondorengiak diriala gaurko jaun, andiki ta andikigurak. Mutillak beti erabillen buruba mutildurik, ta emendi etorkeen euren izena. Gizonak azten eben ulia lepoti beera ezarteko, ta agertuko bazirian gizon artian. Neskatillak erabillezan uliak agirijan euren garbitasunaren igargarritzat. Neska zantar jausi, ta garbitasuna galdubak, zapijakaz estalduta burubak, lotsaturik, atzeratu ditezan bestiak dongaro egitetik. Andra ezkondubak estaldu eruezan burubak, batzuk orain legez, ta etxanderak jira askogaz. Aztu dira asko gaurko egunerako antxinako gure mutil, neskatilla, gizon, ta andreen jaan-zi iraunkorrek. Nor nor dan, nok ezagutu? Len ozta ezagututen zan matsardaua. Sagasti asko zirian, ta erriko ardao edo sagardauaz igaroten zirian bizkaitar ta beste euskaldunak. Diruba geratuten zan bertan. Eztago ikusi baño zeinbat tolara topetan dirian etxe zaarretan, ezertako ezteriorak gaur. Maisu Juan, zer deritxu? Zer diraustazu? Nortzuk bizi zirian obeto? Aen lautasuna obia etzan, gure egunetako bitxitasunak baño? Galdu gaitube arrotz ta erdaldunak, ta tximino eginik jarraitu gura deutsegu aen asmuei. Nire alabak jazten dira lau lau, astegunetan biar egitari dagokan legez, ta jai egunari emoten jakola beria. Daukadazan alabak dira bikotxak, edo batera jaijuak, ta etzara onegaz zurtuko zu, dakizulako izan oi diriala nosbait irukotxak bere. Seme bata eskolauba da, liburu-zalia; badaki erdera, ta euskeratuten deuskuz, gaba igaroteko, irakurri dituban ipuinak, baña ipuin onak, garbi, ta iñoren kalte bagakuak. Egoten gatzakoz auak zabalik enzuten, ume txikarrak Peru ta Marijaren ipuin gatz bagaak enzun daruezan garras. Lengo egun baten berak buruz ikasita, esaeuskun ipuin txito eder abade batek imini ebana berba neurtu ta soñutubaz.

MAISU JUAN: Agindu egijozu arren, esan daigula apaldu baño leenago.

PERU: Txomintxu, esaizu lengo eguneko ipuin abadiak atera, ta irakatsi eutsuna. Ez bildurtu; etxekotzat euki egizu emen dakutsun gizon au.

TXOMIN: Aita, asko da zuk agindutia ta ona bera.

Sagu bi zelai baten

Egozan gauzak esaten,
Bata zan basokua,
Bestia etxekua.
Dirautsa ak oni;
Gurozu neugaz etorri?
Bai ordu onian
Adiskide usainian.
Baña emen kanpuetan
Zelai basuetan
Zer dogu guk jango?
Ezdeustazu emongo
Ona dan gauzarik
Ez koipe, ez ezirik.
Basoko sagubak
Daukaz palagubak
Etxekuari esateko:
Ni baño nor obeto
Bizi da lurrian?
Ez dot neure bizian
Izan nik bildurrik,
Ez ez katigurik.
Nago neure basuan
Atseren osuan;
Ez dot arerijorik,
Ez ta galdu lorik.
Darraiko etxekua
Basoko jatekua



Ikusteko guriaz
 Jan barri gosiaz.
 Maija imini zan;
 Zer ikusi etzan?
 Bazkari ugarija
 Eder ta garbija.
 Sagar eta urrak,
 Mispilla ta intxaurreak,
 Okaran, ta madari,
 Ta sabel gaisuari
 Emon al guztia.
 O bazkari andija!
 Dirautsa etxequak,
 Jaaki ikustekuak,
 Niretzat baña otzak,
 Argalak eta motzak,
 O neure anaija!
 Zuri neure maija
 Jatort emotia,
 Ta eskertsu izatia
 Darua bada etxera,
 Eta emen emotera
 Andiki janarijak,
 Aberats ta ugarijak.
 Koipia eta eztija,
 Gaztae ta urdaija;
 Ase zaitte emen,

Eztozu alan jan len.
 Eztago basuan
 Ez zuben kobauan
 Onlango aparirik.
 Musturrak koipeturik,
 Bizarrak miazketan,
 Eztarria garbietan,
 Ause bai bazkaria!
 Arto eta garija
 Jan ala ganbaretan;
 Gabaz oramaijetan
 Ikusten zer dagan.
 Ta gura bogu juan
 Geroago lotara,
 oe utsetara,
 Eztago ez itxirik
 Guretzat maratillarik,
 Ate inzirikatuba
 Da bide adjutuba.
 Oneek zituban esaten
 Goi ta be erabilten
 Etxeko sagubak:
 Ta orra nun katubak
 Deutseen jarraituten,
 Ta atzamarrak ezarten.
 Etxekuak iges eban,
 Basokuak ezieban



Topau zurkukurik;
 Beebillen estuturik
 Txillijoka gaisua
 Guztija igarua:
 Nekez da ezkutetan
 Tresna zulueta.
 Dirautsa lagunari;
 Zetako nakartzu ni
 Leku oneetara?
 Nua neure etxera;
 Egon zaite zu emen,
 Bizarrak koipetuten.
 Ez, dino etxeak
 Geitubaz erregubak,
 Zagoz aldi baten
 Oraindino, bai arren.
 Dakit katuben barri,
 Iges dodalaze sarri;
 Egon zaite jaten zu,
 Ni izango natxatzu
 Ateen jaolia,
 Ta katu begiralia.
 Alan jardunakaz
 ta berba labanakaz,
 Sagutxu basokua
 Barriro badua
 Billetan jaakija,

Eta zelatarija
 Beragaz batera.
 Baña juake atera
 Giltzera andria;
 An da esturia.
 Lapiko barruban
 Basokua eguan
 Guztia sarturik,
 Sabela beterik.
 Nai dau iges egin,
 Baña ezin dau ez arin;
 Oñak koipaturik
 Bidiak labandurik,
 Da bildur ta ikara
 Juan ez dedin ara
 Etxe giltzeria.
 O ze ikaria!
 Dago ezkutuban
 Lapiko barruban;
 Ezta azarturen,
 Arnasa artuten.
 Bere zorionez
 Ez juako ara ez.
 Jatorko laguna
 Sagu etxe jauna;
 Eta onek aserrez,
 Zegaiti, dino, iges



Eztozu beinguan?
 Zegaiti lapikuan
 Zara geratu zu?
 Zelan eztakizu
 Igesa artuten,
 Buruba gordeten?
 Basotar gaissuak
 Dino, Ze gozuak
 Emengo jaakijak
 Eta edaarijak!
 O adiskidia!
 Ah bai ze goría
 Dan zure jaana!
 Ai baso laztana!
 Ai kanpo maitia!
 Zein zaran obia!
 Esto zu ez katurik,
 Ez neska giltzerarik
 Dator koipe billa;
 Gitxiarren ni illa
 Iza-ez naz koipetan.
 Ez ta basuetan
 Onlango arriskurik.
 Laguna, niri ez deirik
 Geijago iños egin.
 Ezta au ez ipuin
 Guzurrez asmauba

Bai egijaztuba.

Biotza kezkatu rik

Eta arriskuz beterik

Daguan atsegiña

Ezta zindo-piña

MAISU JUAN: Txomintxu, ez juat inos enzun ipuin ain ederrik. Zelan baña imini dabee berso ain luzian? Ze plagak irakasten deutsee euskeraz koplak egiten? Asto bat naz ni. Ordi sats egiñak bere ateraten jütubek bersuak, eta ezin najaik bat bizitziaren beian.

Eta, zer esan euban abadiak kanta ori irakatsita?

TXOMIN: Ez inos aztuteko. Goguan banerabillen, biziko nintzala ondo; bada bizitza onak ekarrela bijotzeko bakia, ta dongiak, atsakabia ta ikaria. Basoko sagubak esan eutsan egija etxeuari; bijak ebiltzan lapurretan, iñoren gauziari imurtxi egiten. Lapurrak beti bizi dira bildurrian: egun gozo bat ez darue; iñori ezer kendu deusanak, dauka barruban iratsita aranza gogorra; lurrian ta zerukuen aldeti da gorrotauba ostuten dabilena, ta beste edozein kalte egiten dabena. Eztago bake iraunkorrik ezpado Jangoikuaren bildurrik; baña bildur, donga egiteti atzeratuten gaitubana. Au esan euskun guri abade onak, ipuina irakatsi onduan. Lenenguan olgetan ginian asko sagutxuben berbeeta ta jazoerak enzunda; ez genkijan zetara zuzenduten zan ipuina; baña igarri eragin euskunian zetarako zan, ta zer atera biar genduban, geratu zan barria.

PERU: Maisu Juan; badakit erdiz erdi artuten zaitubala ipuin onen esanguriak. Gomutetan jatzu, zer egin zeuntsan atso gaissuari? Zeinbat kalte egin? Zelan zoorra aztuerazo? Nik esaten neutsun ondo etzala; etzeustan jaramonik egin, ta uste zenduban nintzala ni gizon koldar, arima bildurti ta gatz bagako bat. Gurago neuke gauza asko baño geijago, artuko bazendu gogoz ipuin eder au.

MAISU JUAN: Galdu deustazube aita semiok apaitako gogo guztija. Eztot nik zubek legezko misionistari ezun. Aen diadar guztiak baño geijago zaurituten dabee nire bijotza zuben berbeeta piestaz legez esanak. Agur nire gaurko lua. Etxera nuanian, garbitu biar dot neure arimia kezka guztietarik.



PERU: Neskatillak, ingira; imini egizube maija. Badakizu, Maisu Juan, zelangua oi dan baserri etxeko janlekuba: txisilluban zamauba zabaldu, subaren ondoan egon, lapikua eraz, ta urrian euki; nun, Erregeen jauregi-jetan bere, mai egoki ta adjutubagorik? Uste bagian legez artu ditugu. Jakin izan baleu Marija nire emaztiak etorteko zinala zu, ipiniko eutsun apari galanta. Gaur igaroko gara zelan alan. Urdai zielgati ta lukainka-solomuakaz egingo dogu koipatsu; gura badozu ogi erregutakaz, gura badozu arto berozkuakaz. Zeure aukeran eukiko dozu. Erreten dagoz kastañak; egosten dago beisegejaren ezne txito mamintsu ta koipatsuba; lapikuan dagoz urdai ta zezinaz eginiko azaak; erreten sagar mueta asko, berazak, gazaminak, urtebetiak, domentxak, kurkubietak, gorrigarratzak, abapurubak. Burdunzijan dakutsuz ollanda ta usakumiak. Eztogu etxeti urten ezeren billa; usuak azten ditugu emen, ez geuk jaateko, ezpada erua-teko artuemona daukagun andiki edo abadeen etxera; ta bai nor edo nor baletor geurera uste uste bagian. Usakume ill barri ta aragi berodunak ez dabee samurtuteko gorde biar egunen bat edo beste, eper, ollagor, ta ollaar irenak legez; ill, lumatu, ta gardostu ezkeru sutan luma apurretati garbituteko, eztauke burdunzijan sartutia baño, samur ta koipatsubak egoteko. Usteko dozu biar bada, eztogula eukiko ardaorik. Badaukagu, ta zer jazuan, edo zer etorrijan beti euki daruagu gordeeta, ez geuk edaateko, baño bai emoteko inor badator. Jazoten da nos bait etortia andikiren bat edo beste mendi albokuetara, basaurde, eper, edo ollagorren eizara, ta jakinik nasala gizon prestu ta biotz onekua, datoz zerbait artutera lotsa ta atzerakuntza бага, ta egiten deutseege abegi, gera, ta arrera txito ona; ta nos bait jazoten jakee eguraldi euritsu, ta truju gogorak artuta, etortia ona gaba igarotera, ta geratuten dira zurturik, iminten jakcelako apari ez txaarra ta oe garbija, ta esan darue, ezebela euren etxeetan obeto apalduko. Agaiti nakusenian errira juanda jai egunetan, alkarren leijan esesten ta ekiten deustee bazkaritara eruateko, ta naukee eurakaz maijan. Eztau etxerik galduten onelango prestutasunak.

MAISU JUAN: Egija dinozu, Peru; baldin bizkaiko baserri etxe guztiak balebitz ain zuzen, zelan zuria, ta nekezale guztiak balira zu baisen begiratubak, urrezko bidiak ikusiko liraatez. Zure etxeau Jangoikuaren grazijaz beterik dago. Nauka zurtuta zure seme alaben lotsa onak ta moduztasunak. Maite dituzu, ta maite zaitube.

PERU: Bai, Maisu Juan; emoten deustadaz Jangoikuari eskerrak, irraatsi jakeezalako euren bijotzetan nire ta nire emaztiaren berba onak. Datorenian ona Jangoikuaren deikoren bat, ikusteko ta poztutekua da, zelan,

bata baño bestiak aurrerago diriala, daruaken arto zatija edo katillukada saldia, ta nos bait zelatau ditut, ta ikusi artua emon, ta eskuban mun egiten eskale gaissuari; baita bere erregututa ekarten sutondora, otza dan aldijetan, berotu ditezan, ta liortu daijezan abarka bustijak. Zer geijago esango deustut? Alaba bijen artian gazteenak eztaukaz amazortzi urte baño geijago, ta ez bakarrik susmau, baita bere ziur jakin deustat, gorde ten dabela sarri bere gosaarija, emoteko ezkutuban, bere burubari kenduta, Jangoikuaren deiko lenen datorkonari, esaten deutseela, ez inori ezer adierazoteko. Baru barurik dago alanguetan egubardiraño, ta eztago orregaitiño atzerena biarrik gogorrenetan. Bere amak dino, topau dabela belaubiko gabak ordubak emonda, burubari lua kenduta, baztertxu baten. Ezteusku inos txit bat eranzun, ezdogu ikusi aserratuta ez bere nausiaguaz, ez bere nebaakaz. Baña esan biar deustut egun baten jazo jakona. Etorri zan ona, neu etxian ez nenguala mutil lotsa gaistoko bat. Oles egiebanian, urten eutsan atera esan deustudan alaba onek. Bere itxura ederrak ikusita beste бага, zoraerazo eutsan mutillari, ta zabaldu zituban besuak laztanen bat egiteko; neskatilla onek atzeratu eban gorputza, baño bai prestau bere besua emoteko belarondoko ain sendo ta zolija, zein da ikariaz, ta uste bagako esku ezartiaz, jausi zan beera; itxi eutsan atia neskatilliak, zirautsala; juaadi lotsabaga ori etorri asan bideetati. Asi zan biraoka, ta araoka mutilla, ta iges eban mandaturik itxi бага. Etorri nintzarian etxera esan eustan bere amak zer jazo zan: ta dei eginda emon neutsazan eskerrak neure alaba onari aserratu zalako, aserratu biar dabebian neskatilla batek. Onetan bardina da nire beste alabia; ez leijo, esaterako, arpegira begiratu gizon bati: mutillok bere ez ditu inok ikusiko neskatilla atzian, ez eurakaz berba bakarrik egiten. Egunak dakaz etxera. Esan daruaket nik; mutillak, aurrerena da Jangoikuaren bildurra; baño zeuben munduko on izatiari begiratuta bere, gorde biar zaree neskatilletarik. Katuba sagubaren zain legez dagoz bat baño geijago, nundi ta zelan atrapau aldaijen mutillen bat. Berba zoro batzuk erasotia asko dabee, buruba agertuteko esan ta banatubaz bazterretan, ezkondueteo itunduta dagozala urlija mutillegaz. Eta enzun dira gauza gaistuaguak eurak ganik; ibilli eurak besteren bategaz gura dabeen gisaan, ta seindun geratuten badira, esarri erruba errurik ezeukanari. Neure mutill onak; iges egizu gaurko neskatilletati. Jangoikuak eukiko dau zubentzat, berak aututen dabena. Etzaita inos ezkondu neskatilla nasai, baldan ta mutilzalegaz aberatsa bada bere. Zuben amak ta nik eukiko dogu zuben arduria, ta bide zuzenez, garbiz ta Jangoikuaren borondatia dan legez, ezkondueten bazaree, zorionekuak zubek. Eztaukat etxe bat baño. Bizkaiko porubak emo-



ten deust eskubidia aututeko zuben artian gura dodana neure oinordeko-tzat. Guztiak bardin diriala, artuko dot semeen artian lenen jaijua. Zubek buru dongakuak bazinee, autuko neuke alaba nagusija. Ezta ondo gurasuak lotuta eukitia euren eskubak. Seme nagusijak baleki, ta balezau gura ta ez izango dala ondasunen jaube, egin lei otuten jakona; etxeko kaltian dan ezkontzaren bat jaramon baga gurasuai, edo onei euren bai-etz noraezekua eskatuta, negarrez largaten ditubala. Bildurrik ezpaleuke galduko dabeela etxaguntzia, buruko miñ, ta atsakabe asko emon leijue gurasuai; baña oneek daukeenian eskubide ta aukeria emoteko gura dabenari seme-alaben artian, ekarri eragingo deutsee lotsia, ta gordeko dira dongaro bizi izateti. Beti da ondo berez semeren batek eruatia etxia, arrotz ta beste ize-neko bat jaubetu baga. Baña guraso onak, bat ondo baño obeto ipintearren, eztau aztu biar guztien gurasua dala. Aituko dozu onenbestegaz zer esan gura dodan.

MAISU JUAN: Peru, ezta mundu guztijan topauko zuk beste zenzun ta argi daben nekezalerik. Apaldu daigun orain, ta apal ostian igaroko dogu denporia alegrija onian.

PERU: Ondo dinozu; baña itxaran egizu puska baten, itaune bat edo beste egin dagijedan artian. Mutillak, bota deutseezu jaatekua idijai? Oinazpijak garbitu jakeez? Beijak sartu dituzube langa arteko ziskubetan?

MAISU JUAN: Esaidazu, Peru, ze ganadu daukazun etxian.

PERU: Daukaguz buztar-idi bi, bata bellegija, bestia zurija. Lau beei; bi buztartutekuak premina danian, edo idijak biar asko eginda arikatu dirianian, nais gaisotu; beste bijak umiak aazteko nekata baga. Daukaguz bigae bat, bigantxa bi. Badaukaguz oneez ostian zortzi basa-bei, ta basai-disko galant bat, ta isten dot esan baga daukaguzala zezin-idi bi; bata etxerako, ta bestia salduteko.

MAISU JUAN: Zeri esaten deutzazu txaala, ta zeri urruzia? Enzun ditut izen oneek, baña ezdakit zer esan gura dabeen.

PERU: Txaala esaten jako edozein beikumeri, dala arra, dala emia; baña urruzia emiai, ta bardin ardi bildotsetan.

MAISU JUAN: Zer da bei antzituba?

PERU: Txala kenduten jakona.

MAISU JUAN: Eztaukazu ganadu lanadunik?

PERU: Bai; daukaguz larogei giberri; irurogei ardi, aari bi, ta zortzi aunz. Aztuten jatan aitatutia bizartsuba, edo bere izenian aker bat. Ardijak ezta asko ateraten: ostuten deuskubez batzuk erri-lapurrak, ta ez gitxi basa-lapurrak. Euri asko, ta otz andijak dirianian, ilten dira bein banaan. Auntzak dira gogorruguak, euri ta otzari obeto jarkiten jakozanak, simaur-tijak, eznetsubak, ta atia idigi ezkerro, laster topauko dabee zer jan. Baña dira kaltegarrijak, ondo zainduten ezpadira. Zutinduten dira landara gazteen orri samurra jaateko. Eztago eurentzat esi ondo egiñik. Etxian daukadazanak eztaue irabazjetati urteten, ta jagoten ditugu aleginez. Baagoz inguruban usa edo erri-basuak, baña aristijak batzuk, bestiak artaadijak, ta ezin leje oneetan kalterik. Baso-lapur, edo azerijak ezтира azartuten auntzetara, ardijetara legez; baña bai bildots ta antxumeetara.

MAISU JUAN: Zer? Azerijak azartuten dira bildots ta antxumeetara?

PERU: Zelan bere dirian; baita ardijetara bere badira azeri zar, azi ta bein ardi aragija sabelera dabeenak; ta ikustekua da, damubaz bere, zelan dendatuten dirian zelatetako, bidiak ebagiteko, samapeti oratu ta itoteko. Zati bat janda, darue enparauba dandarras euren abija, edo leza zulueta-ara. Eta guztiz dira gaistuak umiak daukeezan aldi edo egunetan. Ezin aturau leite eurakaz. Ezpageunka txakur urrineti igarten deutzana piztija asko jakin, ta malmutz onen urebiltia, ta usaatuten ditubana billatu ta jarraitubaz, ezin eukiko genduke ez ardi ez ollorik. Maisu Juan, asko da gaurko berbeeta jakingurakorik. Apaldu daigun ondo, edo emoten jakuna, ta gero bero aldi bat artuta guazan oera, ta bijar jarraituko deutzagu artu dogun lanari. Eruango zaitut errotara, olara, basuetara, ta beste lekutxu batzubenetara, ta erakutsiko deutzudaz zuk eztakizuzan, ta jakin gurako dituzun gauza asko.

MAISU JUAN: Ondo derist, ta asko da gaurko konbersazino kontuzkorik.

PERU: Maisu Juan; esaidazu zer gura dozun; zeuk, emaztiak eta neuk bakarrik apalduia, edo etxeko guztiok aldabatera? Gurian ezta lenengo, ta bigarren mairik; otseñak bere geugaz iminten ditugu mai baten, ta jaaten dabee geuk jaten dogun guztija. Andi-etxe, ta andikigurakuenetan, otseinak jaten dabee bakarturik, ta ez ugazabak dabeen guztiti. Emen guztijok bardinduten gara.

MAISU JUAN: Damu asko emongo leusket guztiok ez jaatia batera.

PERU: Nok maija bedekinkatuko dau?

MAISU JUAN: Nik ez, ta zeuk gura dozunak.



PERU: Ondo; bada Txomintxu, eskolauba zara, badakizu, ta egizu zeuk.

TXOMIN: Aitiaren, ta Semiaren, ta Espiritu Santubaren izenian...

Se hace la bendicion de la mesa.

PERU: Marija, jarri zaite zu maijan sutondotik urrindu baga. Ortisse aterako dozu saldía, ta ekarriko dozu gero banaan daguana. Maisuba, eztago emen salda garbi, geli ta olluaz eginik. Igaro biarko dozu gaur zelan al dan.

MAISU JUAN: Ezta ardura. Uste dozu neure etxian bere beti artuten dodala salda garbija, ta jan geeli gazitu bagia? Zein gitxi! Eta egija esateko obia da lapiko gaziko salda urdai, ta zezin galantakaz egina, geeli argaltxa, ta txatxarrakaz egiña baño.

PERU: Ondo dinozu, epalla ta aragitegiya euren ganera artu daruenak, bein baño geijagotan illdaruez gabaz, edo issillik basa-bei argal, edo idi nekatubaren nekatuz azurra ta azala baño eztaukeenak, erriko zuzentzalliak amar begi ezpadaukez, edo itzaltsu ta asko jakiñak ezpadira. Erridijen orde sartu daruez mustur balz, begi zetakadun, edo Asturijakuak, zeintzuben okelia dan ispi luzekua ta zaalagua, ezpadira oneetan kortatu, luzaro egon ta gizenduten

MAISU JUAN: Peru, eztago zuk eztakizun gauzarik. Dakuskun bada ze salda daukazun. Zein eder ta gozua! Zetarako ete dira piper ta azapraez gorrituriko saldaak onelangua euki ezkerok? Lotsatuten nozu onenbeste aparigaz. Nok esango leuke Landetako baserrijan imini jatala, uste uste bagian sartuta ollanda ta usakumezko erria; ta emen dakustan beste jaaki? Nok sinistu, aterako zeusteezala iru ardao mueta; txakolina, klareta ta naparra? Emoidazu, Peru, txakolin trago bat... Brindo zure ta familia guzti onen osasunerako.

PERU: On dagizula, Maisu Juan. Esnintzate ondo azija izango, nik bere eranzungo ezpaneutsa zure egitada prestubari. Neure lagun ona, zure osasuna gaiti: urte askotan izan daigula alkarregaz gaur legezko apari bat. Etxatzu aterik itxiko beintzat etxe onetan

MAISU JUAN: Nire ditzia, zertan edo atan serbidu al bazengidaz. Etxe onetakorik gaisotuten bada, ez beste barberurik billatu. Ordu bi bidek ez nau ikaratuko gabaz ta edurretan balitz bere.

PERU: Jangoikuak daigula osasuna; baño iñor gaisotuten bada zu bizi zariala, ez gara beste baten atzian ibilliko. Bedeinkatu dogun legez maija jan aurrian, emon daijoguzan eskerrak Jangoikuari. Artuko dogu beroaldi bat guztiok, esango dogu errosarijua, ta juango gara bakotxa bere gelara. Nik esnaatuko zaitut goisian adiuntzaz urteteko gauzaak ikustera.

MAISU JUAN: Milla esker, Peru, ta agur gois artian; agur jente ona.

PERU: Agur bada, Maisu Juan.



DIÁLOGO CUARTO

CONTINÚA PERU EN INSTRUIR Á MAISU JUAN

PERU: Egun on, Maisu Juan. Ondo lo egin dozu?

MAISU JUAN: Nor da or?

PERU: Neu; jagiteko orduba da.

MAISU JUAN: Ze ordu da bada?

PERU: Gesi baten zortzirak.

MAISU JUAN: Ez nire gorputzeko erlojuban. Lo gozo gozuan nenguan, ta lo batek iraun deust etzun nintzaneti ona. Oraintxe bere ezin edegi ditut neure begijak. Zelan urten oe onetati?

PERU: Zer dauka oe orrek?

MAISU JUAN: Eztauka erregek ez bigunagorik, ez obagorik. Sartu nintzanian egin neban luma artian toki eder bat; eztot jira bat egin gau guztian.

PERU: Amar orduko lua egin dozu beraz, bada etzun zinian bart amarretarunz.

MAISU JUAN: Nundi dakizu emen ze ordu dan erlojurik ezpadago, enzuten bere ezpada elessakua?

PERU: Baserrijetan daukaguz igargarri asko egunez ta gabaz, ta zuzenago gabilz gu ordubetan, erri barrubetakoak baño.

MAISU JUAN: Beraz jagi biar dot. O ze nagi nasan! Bentako imitxa guztijak bere ez nenduben iratzartuko. O ze beste gaba, atzokua ta gaurkoa! Ze eguraldi modu dago?

PERU: Txito ederra; eztago odeirik, bai eguzki ederra; lei apur bat jausi da, baño ez esatekorik, ez kalte egin leikianik?

MAISU JUAN: Nos jagi zinian bada zeu?

PERU: Goisabar, edo egun usaiñagaz batera; ta belu neritxon beste egunetakuen aldian. Nok egon biar dau eguzkijaren pekuan legez oetiko urteko? Olluak karkarassaz astiaz batian, jagiten nas beluben dala. Olla-

rraren azkenengo soñubaz ingiratuten dira nire mutillak, ta jagiten dira gaberdirunz geure bei, idi edo txalalai begiratutera, gero oera biurtuko badira bere. Eztakigu emen alperreriya zer dan; ez eguna gau egiten, errijetan askok legez. Etzinian bart etzun nire pentzudaan, edo nik iratzartuko zendudazalako uste osuan? Ez ginian alan itundu?

MAISU JUAN: Bai Peru; baño badakizu ez dala bardin gabeko jagigueria, ta goissekua.

PERU: Daukagu gaur zer ibilli, ta zer ikusi asko, ta alan ingira zaite.

MAISU JUAN: Ekartzuz bada neure erropok, ta parkatu satisfazinoia. Besua aterateko bere nagi nas.

PERU: Maisu Juan; gauza bat esan biar deusut. Olara biar dogu, ta bazuaz zeure soñoko bitxidun ta ederrakaz, urtengo dozu sartu zinialako damubaz. Ango ormaak kedarratuta dagoz keiaren keiaz. Jarten bazara gizategijan, zikinduko dituzu prakaak, ta eztozu gauza garbirik aterako. Obeko dozu jaztia neure soñoko batzukaz: iñok etzazauz oneetan, ta Maisu Juan izango zara gero, baserrikotzak bazaukez bere olagizon ta beste zakusezanak?

MAISU JUAN: Ondo dinozu, ta ezta zuri gomutauko ez jatzun gauza onik.

PERU: Aldatu biar dozu buruti biatzetara; lenengo alkandoria, bigarren jake zuri bat, ta gañetik gerrestuba. Praka odolestubak, abarka ta dagokazan kalzerdi marragazkuak ta buruban txapela. Zure asabak baño geijago etzara, ta alan agertuko zara bazterretan emen zagozan egunetan.

MAISU JUAN: Ekartzu bada alkandoria.

PERU: Bai, ta ara emen prest presta, egin barrija, ta inok lenago imini bagia.

MAISU JUAN: Txut, txut; latza dago, gilli gilli egiten deust. Zezazkua da? Perrestupezkoa, edo kirru samurrez eginiko euneti ateria? Zانبrotuko deustaz neure aragi guztiak, edo beintzat bai egun askotarako gorritu ta sumindurik itxi.

PERU: Gizonaren milika, ta buperia! Zer gura zenduke? Miesa utsez egiña? Eta, iru edo lau lisiba, edo bogadaan igarua? Aragi minberak dituzu. Ze gizon galanta asko nekezalek jazten dituban muetakak erabilteko mormosietia baga!



MAISU JUAN: Ekartzuz bada jake zuri alkandoriaren gañekua, ta gero gerrestuba.

PERU: Eutsiz; beintzat oneek ezteutsube eratziko aragirik.

MAISU JUAN: Ekartzuz abarka, ta oneen mantaak; baña zeuk janzi biarko deustazuz, zerren eztakit nik zelan iminten dirian.

PERU: Urten egizu bada nos edo noz oe orretati; ekartzuz berna, ta oiñok... Zutindu zaite orain, ta eutsi txapela. Zein ondo dirudizun! Guazan orain eskaratzera; nire emaztiak prestauta eukiko dau oraingo koipatsuba, ta egosita bei zegijaren ezne ederra.

MAISU JUAN: Ai Peru! Labanduta joko dot eskallerati beera. Abarka oneek leun ta labanak dagoz, ta, zer izango da kanpora urten da arkoskuen gañian ibilli biar badot? Oiñazpijak eratziko jatatz.

PERU: Ez leuke gizonak izan biar zu languak. Eskallera malleetati jasteko oratu egijozu alboko aga esku ordeko oni, ta larrapastada bat emon arren etzara jausiko beeraño. Eta oraindino bildur bazara, oratu egidazu neuri beste esku orregaz. Aurra, guazan. Zein ederto zuazan! Egungo bigarreneko esango dozu, oñetako orreek obiaguak diriala zuben zapata asmo barrikuak baño. Jatsi gara jausi baga. Erdu sutondora. Ona emen Marija guria gure zain maija iminita. Artu egizu aulki au, ta jarri zaite.

MAISU JUAN: Eztaukat bada almorzutako gogo andirik; bada bart larregi apaldu genduban, ta erregelduak jatortaz.

PERU: Zer dira erregelduak? Aupatsak esan gurako dozu.

MAISU JUAN: Nik dakit bada zelan deritxen baserritarren artian?

PERU: Jan egizu zer edo zer; bada gosetuko zara ibillijaz, uste dozun baño geijago.

MAISU JUAN: Jan daigun bada. Nun dira zure seme alaba, ta otseñak?

PERU: Batzuk jua zirian solora, ta bestiak basora iraurkiñak batutera: laster etorriko dira gosarija artutera, gero biurtuteko euren biarretara eguberdiraño. Arratsian ikusiko dituzu, ta guazan orain urrengo olara, noraño daukagun ordu beteko bidia. Eutsi bada makilla bat larrapastauta jausi etzaitian, ta baserri txakurren batek usigi etzaizan. Makilliak bildur-tuten ditu; bestelan badakije atzetai bestela baitakuan oratuten, ta osatute-

ko, biarko zenduke bere ulia; bada esaeria da; *txakurrak egiñiko zaurija, osatuten dala txakurraren uliaz*.

MAISU JUAN: Peru, errepranak bere badakizuz?

PERU: Zer da erreprana?

MAISU JUAN: Erreprana, erreprana; edo beste izen batez, adajijua.

PERU: Len bestian geratuten nas.

MAISU JUAN: Zer esango deustut bada, ezpadakit zelan esan euskeraz?

PERU: Esaizu bada edolan bere bat, ta nik esango deustut zelan deritxon.

MAISU JUAN: Oraintxe esan dozu bat, ta ona neuk antxina enzun nebana: *Errementarijaren etxian, zotza burduntzi*. Eztakit geijago euskeraz, erderaz batzuk bai.

PERU: Orri esaten jako euskeraz esaeria, edo esakuntzia; gogait artian aitaturko neuskezuz orrelango esaerak. Urten daigun etxeti, ta gura badozu esango deustudaz batzuk batzuk.

MAISU JUAN: Guazan bada; baña bidia erraz igaroteko, asi zaite beriala esaten.

PERU: Ona bada, ta zeuk esango deustazu nos asko dan.

1 Azeri zaarrak allia luze, bera legezkuak bestiak uste.

2 Marija bitxigina, suba da ogigiña.

MAISU JUAN: Zer dinozu? Esaizu ostera.

PERU: Marija bitxigiña, suba da ogigiña.

MAISU JUAN: Baantzut zer dinozun; baña, zer esan gura dau orrek?

PERU: Esan gura dau, ogija eztala ona bitxi asko euki arren, suba txaarra badauka. Au da, gizon edo andria bitxiz edo soñoko apainduz azaleti agertu arren, buru txaarrekua ta alperra bada, eztala gizon ta andra ona izango.

MAISU JUAN: Egija dinozu. Zuaz aurrera.

PERU:

3 Jan sarrija, jan gartzu.



4 Gois jagija, gois gose; belu jagija loz ase.

5 Zor zaarra, zor txaarra.

6 Zulo bakotxari, laakua.

MAISU JUAN: Ze egija ederrak! Aurrera Peru; nik baño buru obia dozu.

PERU: 7 Zaijetan ziogi, urunetan ero.

MAISU JUAN: Eztot aituten euskera ori: ez zer dan ziogi, ez zer ero.

PERU: Esan gura dau, zai apur bat galdu eztedin bildur ta ikara; ta uruna ondatuba gaiti ardurarik ez.

MAISU JUAN: Badakit orain zetara doian esaera ori.

PERU:

8 Ezdakusan begijak, gatzik ez.

9 Aziak, beria kirtena, ta aritxak bere erikua ospala.

10 Erroijaren arrautziak, usakumerik ez.

11 Auntzak itxi baleijo, akerrak itxi leiyo.

12 Suba daguan lekuti, keia.

13 Otsuak otsuari gatzik ez, ta lapurrari lapurrak laztan.

14 Kruselu onduan, gorurik ez.

15 Irargiko arrija, pozuba.

16 Ardao gozuak lau begi, ta oñik ez.

17 Astuaren arranzia, min bagia.

18 Ontzari ez begiratu lumara.

19 Zu beti ero; otz ezdana bero.

20 Txakur gosiak, ogija ames.

21 Zoruen eztija, gozua guztija.

22 Marija guria gorubetan, biar ez dan ordubetan.

23 Errementarija senarra, Jainkuak obia diñaala.

24 Auzoko beijak, errua luze.

25 Otsein barriak galbaiaz ura, zaarrari edarriaz bere lekurik emon ez gura.

26 Azeri zaarrari ulia juan, baña antza ez.

27. Txuri biren eznie perza bete.

28 Olo gosia beti soñulari.

29 Lekuban lekuban malua, gurian andijagua.

30 Gois-gorri laster euri.

31 Arrats-gorri, goisian eguzki.

32 Abadiaren lapikua, txikina, baña gozua.

33 Ikatzkiñaren lapikotua, andija baña erua.

34 Arzañak aserratu, gaztaiak agertu.

35. Jan edanaren gozua; kontuemonaren gaistua.

36 Etxe utsa, atralaka utsa.

37 Guztia gura izatia, guztia galdutia.

38 Igazko txakurra, aurtenguaren urkatzalle.

39 Aldats gorria, aldats beria.

40. Ondarrua ta Motriku, idijak idija arkitu.

41 Lekuban lekuban ardijak, baltzen artian zurijak.

42 Dollorra, beti prestubez gogorra.

43 Eguzkija nora, zapijak ara.

44 Ze langintza zamargin, bizarrak bizarra eragin.

45 Amuarrañak begi bi, sei eskalluk amabi.

46 Ara bertan ezer ez, azaak bai koiperik ez.

47. Otz larregija, zarren ilgarrija, ta gazteen zaargarrija.

48 Guzurra esan neban mendijan, neu baño leenago zan errijan.

49 Topinak galdariari, ipur balz.

50 Daukanak gabon, eztaukanari emon.

51 Urdaija, jan da garbaija.



- 52 Soldaduba, amaren seme galduba.
 53 Eztakit, emen urtia badagit.
 54 Gabeko biarra, egunerako lotsaari.
 55 Egija, askoren erregarnija.
 56 Ibiltari gabian, logura goissian.
 57. Etorkizuneko oliak, biarrik ez.
 58 Etorriko jatzu, adiskidia, gonburubaren erreseria.
 59 Baneuka, bazeunkake; zeuk bazeunka oba zeunke.
 60 Badaukazu zeugaz, jango dozu neugaz.
 61 Bakotxa bere zorua bizi.
 62 Batalako beste, auntzaren odoloste.
 63. Katubak daruan sardiniari, oratu egijok.
 64. Alaba bi, ta iru seme, adi on ume.
 65. Usuak juan, sariak eda.

MAISU JUAN: Zer esan gura dau orrek?

PERU: Ez dala belubaren zain egon biar, gauzaren bat egiteko. Ezta-la osasuna guztiz juan artian egon biar, osagillari dei egin baga. Adiuntzaz ta era onez, edo asierati gatxari bidera urten biar jakola: ezpabere berandu datozala osakarriak.

MAISU JUAN: Ori esaten deutseet nik beti gaisso-etxeetan, ta eztago nok buruban sartu daijuen. Etxat aztuko esaera eder ori. Asko da Peru esakuntzarik.

PERU: Ondo dinozu; eldu gara olara, ta euko dogu zer ikusi, ta zeri berba egin.

MAISU JUAN: Jesus, ze jente modu da au? Inpreinuba dirudi. Ze suba, ta gaarrak! Ze erremienta, ta toki tristiak! Gizonen itxurarik eztauke emen dakustazanok. Ezteuskube agur bat bere egiten. Eztauke arpegijan balzitu bagako gauzarik.

PERU: Maisu Juan; zer uste zenduban emen ediro? Gizon ederto apaindubak? Begiratu egijezu ondo buruti biatzetara: eztabe agiri ez begi, ez betulerik baltzaren baltzaz: ederrak dira maurubak oneen aldian. Kape-

la igartu ta erdikin bat buruban, zapi kedartu bat bekoki erdiraño izerdija artu, ta subaren berotasuna arinduteko. Obrera uts, idunian lotuba; ezta zer eskatu jakerik, ez kalzerdi, ez abarka, ezta prakarik bere. Oera etzuteko ta jagiteko eztauke nekerik zer artu.

MAISU JUAN: Ori da bada: eta, nunguak dira gizon oneek?

PERU: Bizkaitar garbijak, odolian zuri ezer zor ezteutsubenak.

MAISU JUAN: Zeinbat opiziale dira, ta zer aloger emoten jakee?

PERU: Dira lau biargin; *Ijelia*, *Urtzalla* bi, ta *Gatzamallia*. Alogera ainbestekua da; baña bai ondo irabazija. Ijeliak darua biarsari, edo aloger geijago, ta onek izan daruaz egunekuaz ostian, eskupeko edo atsegin sarijak.

Burdiña asko egin bada, ondo irabazten da; bestelan gitxi. Gatzamalle gaisuak darua nekerik gogor ta gogaitgarriena, ta irabazterik laburrena.

MAISU JUAN: Zelan ori kristau errijan?

PERU: Eztozu enzun inos praile-etxeetan jazoten dana? Praile gaztetxu edo sartubarriak darue nekerik gogorrera. Ezta oneentzat bigungarririk: sendo sendo, osoz oso daruez agindu guztijak. Alan biar da, jakin dagijen zetara jua dirian. Lenengo urtian bigunegi balerabillez, ta euren burubetan ikusi baga pisu guztija, gerora esango leukee guzurtaubak geratu ziriala, ogi biguna erakutsi ta emonaz birzaiz eginiko balz ta jangatxa. Alan bada gatzamalliak bere, izanik sartu barriak, ikasten dabee neke andijen, ta irabazi laburraren bidez, zer itxaraten deutseen, ta geroko obiaguaren penzudaan egonaz, igaro erraza egiten jakee, daruen biar gogor ta nekatsuba. Zelan alan, dinue euren artian, igaroko ditut iru urte, ikasiko dot biar egiten; gero sartuko naz urtzalla; egingo nas gizon ogija irabazteko duin, ta alan geroko nekiai emongo deutseet arpegi, irabazte obiaz, ta gogorraguak ikusita nagualako. Lur argaleko muntegijan azi dirian landara gaztiak, iragoten badira lur koipatsuko basora, ezta esatekua zeinbat irabazi daruen; ta zein marduak gero azi: ez ala lur gozatsuti badaruez lur agorrera.

MAISU JUAN: Zer esan gura dabee izen oneek *Ijelia*, *Urtzallia* ta *Gatzamallia*?

PERU: *Ijeliak* esan gura dau ijeztu, edo irunduten dabela burdiña. Ikusi dituzu sarri gorulak, zelan amulu edo kirru goruban biribilduba ijezten, edo iruten dabeen, moltsoti ari meia egiteko? Bada Ola-ijeliak burdiña biribildu ta moltsotuta daguana, dakar miatubaz; ta esan ginai iruten



dabela. Beraz ondo ipinija dauka *Ijeliaren* izena. Esaten da barriz *Urtzallia*, zerren urtu eragiten daben mia sutegijan. Izentetan da *gatzamallia*, onek jaon, edo zaindu biar dabelako lapikua, ta oni gatza ezarri edo emon. Au da beste iruren morroe edo otseña legez, aginduten jakon guztija egiteko, ta *Ijelia* guztien jaola, irakasla ta buruba.

MAISU JUAN: Eta, ze biar egin biar dau bakotxak?

PERU: Urtzalliak bete biar dau sutegija miaz; ezarri biar dan ikatza, ta egin biar dan guztija, agoia aterateko prestau artian. Auspuak geratu ta atala gorituten imini, ta ezin esan beste zeregin ditu sutegijan. Lagunduten deutsee agoia su azpiti ateraten ijela ta gatzamalliak, bakotxak bere burdinaga edo palankiaz. Ateraten dabee sutegiti agirira, ez izerdi tanta, ta bero asko botabaga. Botaten dabee beera, ta txirikiña edo burdin kato bat iraatsirik, darue gabipera. An ezarten deutsee atala orakarri ta kirtentzat. Gabija ibilli dedin emoten deutsa ura ijeliak uragiaz. Asten da durundija, orma ta lur berari ikara eragiten deutsana. Darua agoia urtzalliak mallutzarpeti gabi-igunaren azpira. An asten da beste soñu, belarri atara ez egiñak, zurtuten ditubana. Ijeliak bere uragiaz darabill gabija miats edo sarri, zelan gura daben; ta ondo dan ura geitu edo gitxitubaz, begira dago ka urtzalliarri, ta irakasten deutsa zer egin, nos aurreratu, nos atzeratu, ta nos albotu burdin oratzar edo agoia. An dira su txipristin urriner duazanak: an askatu ta bota eragitia geratu jakozan loijak, zepa ta txatarrak. Alan igunpian ta mallupian apainduten dau agoia urtzalliak; gogortu ta txikituten dau, ta erdibitu biar danian, iminten deutsa gatzamalliak atxurra, ta gabi-mallubak emoten deutsan joaldi edo kolpiaz erdibituten da; zati bata geratuten da atal edo kirten eraatsiajaz, zein daruen barriro sutegira; ta arik aurrerako biar edo lanak geratuten dira ijeliarentzat, zeñi jagokan ijestea edo irutia burdiña, ekarri artian burdin-barra izatera, emoten deutsala bitartian gatzamalliarri uragia, gabija erabilli dagijan, berak aginduten deutsan arintasun edo gelditasunaz. Amaitu dabenian urtzalla agoia zaindu dabenak, esan dogun biargintzia, dua lotara gura dabenian; eta artuten dau bigarren urtzalliak beste agoe ta egikizunen arazo, ta arduria.

Gatzamalliak txikindu, edo jo biar dau agoe guztietarako mia malluka txikar bategaz, batian belauniko daguala, bestean albokerara etzunda, zelan otuten jakon. Oni jagoka mandatubak egitia nora nai; ta ikusgarrija da bide agiri ta kaleetati ziar igaroten bere obrera erdi gorritu, erdi balzitubaz zaragitxu bat esku, edo lepuan dabeela, ardaa olagizonari eruateko. Ekanduta dagozan begijak, ez dira orregaitino minberatuten. Onek bai

bene benetan irabazten dabeela jan biar dabeen ogija euren bekokiko, ta korputz guztiko izerdijaz. Zer dinozu, Maisu Juan?

MAISU JUAN: Zer esan neikezu? Ni baño buru obiagua zan, ola ta biargintza au asmau ebana. Eta, ze on jatorko bizkaiari ola oneetarik?

PERU: Ori itanduko zenduke? Zer egingo nauskijue nik neure basuetako abe bizijai, olarik ezpalego? Badakutsuz ainbezte baso ain ederto jantzijak? Igaroko baziña Bizkai guztiko beresi ta mendijetara, etzenduke esango ainbeste egur ebagi leitekiala. Gizon bakotxeko, zeinbat milla aritx, arte, pago, kastaña? Bada azkoriak inausten ditu, ta subak daruaz eurrez legez. Dirianak, etxe-sukaldetan biar dirian apur batzubez ostian, burdiñatuten dira esaterako, ta sartuten dabee zidar, ta urre asko. Zeinbat irabazten eztabee ikatzkiñak? Zeinbat itzañak ikatzak olara eruaten, errenterijetatik mia ekarten, burdiña bera eraasten? Eta, zeinbat ola-gizonak eurak? Eta, zeinbat enparetan jakee ola-jaunai gauzaak zuzen bada-bilz? Ezta Bizkaijan arraa bete lur alperrik galduten; besterik ezpada, toki-rik agorrenian billatuten da iraurkina, ta egiten da simaur edo satsa lurraren ongarrizat. Koipe bagako lapikuak eztau aragi mamintsu ta mardorik egingo, ezda simaur bagako lurrak bere gari ta arto ugaririk.

MAISU JUAN: Nun lo egiten dabee, ta nos olagizon onek? Dakustanaz gau ta egun dabill olia.

PERU: Ijeliak badaukaz une luziak agoe aldi bakotxian, ta emoten jako astija lo aldijak egiteko, ez zazpi ta zortzi ordu, baña bai ordu binaan legez. Urtzalle batak agoia zainduten daben artian, gitxi gora bera lau orduban, dua bestia lotara. Gatzamalle gaissuak, aurreratuta badauka bere mia jotia, ainbestian dabill; baña zelan agoia aterateko uneetan lagandu biar deutsan urtzalliarri, jo biar badau mia, ta zaindu lapikua, lua arina jabilko. Erdu neugaz oneen oetokija ta oia ikustera. Eztozu ikusiko ez uarkarik, ez etzun-toki jaso, ta adardunik. Lurraren gañian lastamarraga bat estalki zantarragaz, ta burko ez obia. Zer deritxu?

MAISU JUAN: Dakustanaz kaputxino ta kartujo batek baño bizitza gogorragua dakusee onek.

PERU: Bai egijaz: alan bere ez dakit nik zer dan bakotxa bere burubaren jaube izatia, ta katebagako bizitzia. Ez litzatekez gizon onek egongo illa betian sartuta praile-etxe baten gauza asko gaiti, ta gogorragotzat eukiko leukee illa beteko bizitza ezkutukua, emen negu guztiko lo txaarra



ta biar gogorra baño. Gurago dau otsuak baso bizitzia, jaatekua nekez billatu biarra, etxe-txakur katiáz lotubaren eregu ta ogi biguna baño.

MAISU JUAN: Baña zelan lo egin leije emengo gabi-ots, auspuen illeta soñu, ta subaren argi zabalduete, ta nosian beingo illundutiaz? Ate kisket baten otsak esnaatu narua ni, lo zorro gogorrenian banago bere.

PERU: Maisuba, ezdakizu gizona guztira egiten dala? Ezdozu enzun errotarijari ezdeutsala lua galerazoten errota-soñu jarraitubak, ta iratzartuten dala soñuba geratuten bada? Gabijaren ots, ormaak ikara iminten ditubanak, ez deutsa gillirik egiten olagizon lotan dagozanen belarriai. Eta eurak iratzartuten dira ao txistubaz, soñuba joten dabenian biarrian daguanak.

MAISU JUAN: Eta, ze jaten dabee?

PERU: Ikatzgiñak baño lapiko obia. Beteten dabee sabela ogi beratu ta ondo koipetuz, otuten jakeenian, ta ezdozu zuk iños jan gauza gozua-gorik. Esku atz ta ezpanak bere miazkalko zendukez gozuaren gozoz. Nun illten da olectan baño sesingei, edo idi gizendubagorik? Andikijak eurak datoz nos bat olara beste zeregin baga, oneen lapikuan ogija beratu ta koipetuta jatera; eta esan darue euren etxeetan sesin ta urdai ederrakaz lapikua eginarren, ezin dabeela ain gauza gozorik jan; ta neuregango dator au, sutegiko ikatz ondo erriaz gar baga irakiten dabelako emengo lapikuak geldi geldi gañezik egin baga. Gizategijan daukee mai iminerraza. Saldia aututen da katillubaz, aragija txikindu ta aoratuten da atzamar Jangoikuak emonikuakaz; ura edaten da galletiaz, ta au da lau lau bizi izatia ta asmo baga.

MAISU JUAN: Eta Peru, jango zenduke orreekaz mai baten?

PERU: Bai, ta iguin baga: ez neuke kokadarik egingo, ez errebesau gurarik erakutsiko oneen obrera baltz ta esku zetakatubak ikusi arren; eta deritxat euren janguriak geituko leukiala neuria.

MAISU JUAN: Eta, eztabee ardaorik edaten?

PERU: Ez egunoro ta gitxiago bere. Asteazkenian daukee edanaldi bat ola-jaunaren lepora, ta nos edo nos zu ta ni orain legez. etorrita zerbait emoten deutseenian euren izenian edateko.

MAISU JUAN: Ori niri esatia, da, itxi biar dogula zerbait edan daijen.

PERU: Bai, gura ezpadogu esan daijen atzeta biotz zimel, edo tximurtubak daukaguzala, ta dollorraren izenik eztau enzun gura gizon pres-tu batek.

MAISU JUAN: Zeinbat emango deutsegu?

PERU: Gitxienez amasei laukoko bana, edo errialbiko bat bijoen artian, ta au emon ezkerro, agindu egijezu gura dozun guztija.

MAISU JUAN: Emon egijezu bada bijok gaiti, ta gero alkar aituko gara.

PERU: Ordu onian. *Ijelía*, eutsi au gure izenian sabel liortu orreek busti daizubezan.

IJELIA: Eskerrik asko; urte askotan egin daizubela beste onenbeste. Agindu guri gura dozuben guztija.

PERU: Nire lagun onek gura leuke agoia atera, apaindu ta iruten ikusi. Nos prest egingo da?

IJELIA: Bere beriala; urreratu dedilla ziarzulora. Nua bidia edegitera urten biar daben zepa-gejari

MAISU JUAN: Jesus, au zer da? Emendi dua burdiña urtu guztia.

PERU: Ez Maisu Juan: au da miaren errauts ta loikerija. Onelan garbituten da burdiña. Au astunago dan legez geratuten da ora bat eginda sute-gijan, ta urten dau gañeztu jakon loikerijak zein geratuko dan zepatuta.

MAISU JUAN: Oneek dira ikustekuak! Ainbeste urte Bizkaijan egin ta, oneek ikusi baga egongo nintzan?

PERU: Auspuak gelditu ditube: oraintxe ikusiko dituzu bein banaan, nik len adierazo deutsudazan gauza guztijak. Ez da bardin enzutia ta ikus-tia. Begi itxi edegi bateko ikustia geijago da ikasteko, berba luzeen jarduna ta ekiña baño.

MAISU JUAN: Atsegin ta arreta andi bategaz jarraituko deutset biar-gintza miragarri onei neure begijakaz. Ai gizon gaisso ta errukarrijak! Iges egiten dot nik urrinera iraun ezinik agoetzar aren txipristina ta berotasuna. Ara zelan dabilzan burruka oratzarragaz zuzendau ezinik, ta bere albo albuana... Oneek dira otsak: lurra bere badabil kolpe bakotxian... Peru, egin egiña: zuk esan zeunstana, ta ikusi dodana. Badaruat zer esan. O egun ederto igarua! Esaiozu orain ijeliari erakutsi daiguzala etxe baltz onetako toki, erremienta ta ikuskizun guztijak.



PERU: Ijelia; erakutsi eijozuz gizon oni emengo zurkulu, tresna, erremienta ta ikuskizunak, ta esan eijozuz geldiro ta banaan euren izen guztijak?

El tirador muestra á Maisu Juan todos los instrumentos, máquinas, etc.

MAISU JUAN: Gizon ona, esaidazuz opizialen izenak, ta alan beste gauza guztijenak, bada gura ditut eruan paperian eskribiduta.

IJELIA: Ona bada geutati asi ta beste guztijak.

Olia.

Biarginak lau.

Ijelia.

Urtzalla bi.

Gatzamallia.

Auspuak.

Auspo-ardatza

Eskamelak.

Txinbua.

Ujaikija, edo uagia.

Kañuba edo aisebidia

Toberia.

Sutegija.

Beelarrija.

Aisa-arrija.

Aga-arrija.

Ziarzulua.

Estolda-aldia.

Guzur-askia.

Onda-askia.

Tikinoia o erruedia

Auspo-pujoia.

Pujo-makurra.

Ardatz-nausija.

Tikinoe nausija.

Zutoiak edo zepuak.

Zepo-amia.

Mazukarriak.

Gabija.

Gabiguna.

Bogia.

Aldabarrak.

Burkuak.

Jungudia.

Dendala.

Dendal-arrija.

Tximela.

Makubak.

Kateiak.

Giltzak.

Kurutziak.

Zepa-amia.

Zepotilluba.

Nardakia.



Bergamalluba.

Bandijua.

Txakurzulua.

Ziritjak.

Urkulia.

Usteijak.

Arrogo etxia.

Arragoia.

Atxurra.

Epailia.

Durmiendia.

Bandijua.

Biarginen erremientak.

Orrikaak.

Txirikiña.

Palankia edo burdinagaak.

Mallubak.

Porroia.

Kaikuba.

Galbaia.

Zaraak.

Paria.

Burdingaija.

Ikatza.

Idurija.

Mia.

Janzija.

Obreria

Kapelia

Kapel zapija

Gizategija.

Issilluba.

Sukalde tresnaak.

Topiña.

Topin-estalkija.

Katillubak.

Erretilluba.

Burdun zalija.

Bitsadera.

Galletia.

Tokijak.

Auspotegija.

Ikazgelaak.

Gabitegija.

Miategija.

Agoia.

Atala, edo agoekirtena.

Bertaagia.

Belaikija.

Burutia.



Txatarraak.

Totxuba.

Galdabatekuak.

Burdin-barria.

MAISU JUAN: Nok asmau ete zituban ainbeste izen, ta tresna?

PERU: Biarrak, ta denporiak.

MAISU JUAN: Emengua ikusita dago, ta guazan, Peru, gura badozu zeure etxera.

PERU: Ondo dinozu, bada eztago urrin egubardija; baña eskerrak emonaz, egin daijegun agur gozo bana gizon onei.

MAISU JUAN: Bai, esan eztagijen dongaro azijak gariala. Aurra bada esan daijegun aldabatera... Agur gizonak, eskerrik asko egin deuskuzuben arrera ona gaiti; agindu guri aldaigun edozein gauzatan.

LOS OFICIALES: Zeubei eskerrak emon deuskuzun diruba gaiti. Ondo ibilli, osterako artian.

PERU: Asko da goiserako zer iginik: guazan etxera ezertan geratu baga, ta jan ostian urtengo dogu beste gauza batzuk ikustera.

DIÁLOGO QUINTO

ENTRE LOS MISMOS MAISU JUAN Y PERU

PERU: Eldu gara etxera, ta neure ustian izan dozu gois eder ta atsegintsu bat olaan ikusi dituzun gauzaakaz. Jan daigun gogoz, ta eguberdi ostian lo apur bat eginda, atara egiña bazagoz, euki eragingo deutsut arrastegi edo egubarte ez txaarragua. Emen da arratsaldian lino ezpatetia, ta ikasiko dituzu ez dakizuzan gauza asko biargintza gogaitkarri onen gañian. Zu alkandora eder, samur edo bigun zalia zara: baña jakinda euki egikezu, zeinbat arazo ta arazkerijaz ekarten dan bedar bat euna egiteraño. Nire alaba batak, bera da gazteena, daukaz euntegijak; daki eungintzan, ta etxeti urten baga, ezer erosi baga, aziereiteti dakargu alkandora ederrak egitera. Itxi daigun baña arratsalderako ikuskizun au, ta erdu maira... Zuaz orain gorputzari atseren apur bat emotera, ta jagiko zara oeti deritxunian.

MAISU JUAN: Etzun naz oera sabela bazkari ederragaz ondo iminita: agertu jatan lua; baña nik eztaikit zer otsak izan dirian, iges dau luak nire begijetati, ta asmau ezinik zer dan, ernegau, ta jagi nas.

PERU: Ah txorua! Ezpatarijen otsak dituzu.

MAISU JUAN: Zer da lino ezpateta ori?

PERU: Nik esango deutsudaz gauzaak sustrai ta ondo ondoti. Ereiten dogu lina-azija lur ondo gijau, ta azaro onekuan. Lurrak biar dau giro ona, ez ibilli senian, ta abespeluban, ta nos nai erein. Lino mueta bi dagoz, batari deritxo agorra, ta bestiari lina beria; a ugarijagua, au obiagua ta lasterragua. Eldu dedinian, atera biar da eskuz, ez ebagi igitaijaz: aterata egi-ten dira eskutaak, ta oneek lotu. Gero dator garrameetia. Garramauta, gabikotu biar da, ta gabiko eginak sartuten dira uretan, samurtu ditezen, ta bota daijen loitasuna. Ur geldituban iminten badira gabikuak, ezta esatekua, zein atsituba geratuten dan ura. Ondo samurtu dirianian, eruaten dira zelai batera, ta an zabaldu, ta banaturik, liortu biar dabee. Liortu ta ostera gabikotuten dira. Gabiko oneek daruez trimin trimin egitera erruki baga zur-mallu edo mazubaz. Beso senduak biar dira mallubaz banatuteko, ta bitartian andrakume batek darabill gabikua biraak emoten. Arazo nekagarri onen ondoren astotuten ditube astosapinian; emen samurtuten da tint bedar gogor au. Gero darue txarrantxetara ganak aterateko. Onelan arkituko dabee ezpatarijak gaur. Ezpata oñian edo onduan iminten



dabee lino astozapinduba, ta esesten deutsee zurezpatiaz: triska triska eginda, nosian bein esku ta belaunagaz samurtuten dabee igortzijak emonaz, ta gero isten ditube otzaran kukustuta.

MAISU JUAN: Zer geijago egiten deutsee?

PERU: Kukusturik dagozan lino gijaubak, daruez barriro txarrantxarra, ta an erbatzak juakoz, ta geratuten da bateti kirru garbija, besteti amuluba, ta amulu onek daukaz perreztupia ta gana. Oneek iruteko biar dira goruburuban apaindu, ta ardatzian batu arija eginaz batera. Eztira onetan amaituten lan guztijak. Arijak biar dau matasatu itxoroskijan. Itxoroskiti atera ta daruez matasak austietara ur gori, ta egur-ausian. Sartuten ditube gero lisiba arratzian, ta emen garbituten dira asko. Lisibatuta sartuten ditube kako edo ageetan, ta iruntz edo euritan zuritu ditezan, zabalduten dira bedar ganian.

MAISU JUAN: Ez dira onenbestegaz amaituten lanak?

PERU: Ez, Maisu Juan; ari zurituba, ta matasatuba sartuten dabee ariltegiyan. Emen dira lan barriyak arija eteten jakeenian, edo arija katigatu ta nastuten danian. Neke gogorren bidez egiten dira arillak euntegira eruateko. Zeinbat lor emoten ezteutsee andrakumiak euren burubai? Baña ez dira buruauste, ta lorrik txikarrenak, eunla gaisuarentzat geratuten dirianak, ta guztiz, ari eten erraza badaruake. Gogait egingo ezpazendu ikusi eragingo neuskezuz eunla batek biar dituban tramankulu, tresna ta erremientak euna ejoteko.

MAISU JUAN: Gogait egin nik, Peru? Ez, ez: ikastia da irabaztia, ta jakitun urtetia.

PERU: Dei egingo deusat neure alaba eunliari erakutsi, ta esan daizuzan euren izenak. *Popatxu*, ator ona, erakutsi eijozan oni eure biargin-tzako tresnaak.

HIJA: Bai aita, atsegiñez. Biartokijan daukadaz, ta erdu bijok ara. Ona emen euntegijak.

Au da goisubilla; beragokuau, beesubilla. Aitatuko deusudaz guztijak.

Au, garrangia.

Oneek, izunzak.

Bestiok, ganbelaak.

Aek, erraiarijak.

A, urkulia.

Beste a, anezkia.

Ause, anezka-zotza.

Beeko orreek, oinolak.

Oneetxek, ipurtolak.

Emen dakusuzanak, oinugalak.

Onako au, txirringia.

Areek, mazurkak.

Beste aek, orrazijak.

Ona emen beste batzuk, ta dira:

Iraztaskia, edo ariltegiya.

Iraztramaak.

Buztarriyak.

Arillak.

PERU: Nok esan lei, ikusi baga, zeinbat neke ta arazo artu biar dirian aziereiteti alkandora bat janzi artian? Amaitu dagijanian eunliak bere zeregin gogaitkarri ta nekatsuba, sartuten da josla, edo jostuna lan barrijetan. Onek biar ditu artazijak, orraatza, arija, ta ikuste argalekua bada, betaurreko ondo datorkozanak, ta alkandora dontsuba josita bere, barriro biar dau bogada edo lisibara, samurrago ta zuritubago geratu dedin. Agaiti esaten da; *linuaren atsakabiak, amai gabiak?*

MAISU JUAN: Ni baño buru obakua zan asmau zitubana ainbeste erremienta. Guazan ikustera zelan ezpatatuten dituben... Agur neskatillak; arratsalde ona euki daizubela. Jangoikuak bedeinka zuben biar egiteko gogua, ta besuetako sendotasuna.

LAS ESP: Ez da guretzat biargintza atsegingarriagorik: alkarren leijan, miña berba egiteko askatuta daukagula, olgantzian egotia, neke gogorra ez da: gogorragnetara eginda gagoz, bakarrago ta gitxiago jan da.



Gura dogunian kanteetan dogu geure soñuban. Batek ekiten deutsa zor-zikuari, ta gero bestiak eranzutiari. Gura dozu enzun? Ona bada.

Ezpatarijen kantia lino gijetako aldijetan

Kantadu dagiguzan
 Linuaren penak
 Ezpata oneen otsian
 Izanik latzenak;
 Alkar ondo artuta,
 Soñuba neurturik,
 Gorputzeko nekia
 Isteko arindurik.

Estribillo

Gara neskatillak,
 Euskaldun ez illak,
 Ez da ñor lurrian
 Gure biar ezdanik;
 Ez atso, ez agura
 Akandora barik.

Atxurlarija dua
 Botaten lurrera
 Lino azi elduba,
 Eta estaldurera
 Txorijak etorrita

Jan eztagijezen,
 Ta gero ezer baga,
 Geratu ez ditezan.

Elduten dan orduban
 Bedar ain biarra,
 Eskubakaz oi dogu
 Gelditxu atara,
 Egiteko eskudak
 An bertan soluan,
 Largateko arduraz
 Etzunik albu.

Eskutadak dituguz
 Gero orraztuten
 Ondo garramaduta;
 Ta arik eruaten
 Gabiko egitera,
 Beratu ditezan
 Pozu baten eukita
 Egun batzubetan.

Ura iminten dabe
 Dan dana loiturik,
 Bazter guztietara
 Atsa zabaldurik:
 Baña ikusten dira



Ugarassijuak,
Burubak aterarik
Emoten soñubak.

Atsa darijuela
Dagoz gabikuak
Pozuti aterata;
Eta gu lakuak
Eskubetan artuta,
Iguin bagarik,
Ditube zelajetan
Isten zabaldurik.

Liortuta daruez
Gero mazupera,
Errukija aztuta
An banatutera;
Lan au egin oi dabe
Eguzki galdatan;
Lina jailla gaissuak
Izerdi lamatan.

Ez da onenbestegaz
Nekia-amaituten;
Bedar ain banatuba
Dabe astotuten.
Asto sapin batian

Isteke samurrik,
Gogorra eguana,
Ondo bigundurik.

Txarrantxia deritxon
Orrazi askatuban,
Ikusten da ostera
Ondo katiguban;
Lino agorra bada
Jakoz ateraten
Ganak, eruateko
Gero-ezpatatuten.

Emen sartuten dira
Gure lan barrijak,
Soñubaz emoteko
Pena latzgarriak
Astosapin, ta mazu
Azpijan juari
Egiten gariala
Guztiok kantari.

Tris traska dirautsagu
Erruki bagarik,
Isten ez deutsagula
Guk azur osorik,
Ispi txar ta erbatzak



Jakoz ateraten,
 Eta largaten deusku
 Guroguna egiten.

Onelan iru bat ordu
 Egonik olgetan
 Soñu, algara, eta
 Barre gozuetan,
 Lino jaubia dator
 Guri deitutera;
 Erdube ori itxita,
 Zerbait artutera.

Laster, ta atzera baga
 Gara gu jagiten;
 Ez dogu ez erbatzik
 Soñian itxiten:
 Garbi garbi eginik
 Guaz mai batera,
 An gogo galantagaz
 Gauza asko jarera.

Guaz gero ostera
 Geure biarrera,
 Ta lan au amaituta,
 Barriri apaitara;
 Largaten ditugula

Bertan kukusturik
 Eta txarrantxarako
 Ederto gijaurik

Txarrantxarijak ditu
 Txarrantxan iminten,
 Kukutsak kendu eta
 Erbatz baga isten,
 Kirruba alde batian
 Besteti amuluba,
 Au ganduba eta
 Perreztupetuba.

Gorulak gero dabee
 Egiten arija,
 Matasarako biar
 Da itxoroskija;
 Lisiba ta iruntzak
 Dabee garbituten,
 Eta ariltokijan
 Dira arilduten.

Tramankuluba dauka
 Eunla andriak,
 Emen artu daruaz
 Arazo nekiak,
 Egiteko euna



Besteen biarrekin;
Korputz, esku ta oñakaz
Biar deutsa ekin.

Joslaak artuten dabee
Eun ateria.
An da artazijakaz
Zuzen ebatia.
Alkandoria dago
Guztija eginik,
Ari eta orraatzaz
Lotu ta josirik.

Euskaldun neskatillak
Nekiak arturik,
Eztabe onetako
Gizonen biarririk;
Eurak dira erella,
Lino gijarijak
Eunla era jostun
Ta gorularijak.

MAISU JUAN: Eztakit topauko dan inun andrakume euskaldunak baño senduagorik.

PERU: Nik bere ezdakit, Maisu Juan. Dira sona, dulabre, ta askotakuak. Nok sinistu lei, gizonen premiña бага artu daikeezala linuak dakazan, ta enzun dituzun arazo ta lor guztijak? Soluetan dakuskuz atxurretan, laijetan, saraketan, jorraan, ta edozein biar egiten. Badakije idijak buztartuten, itzaintzia egiten, itaurreko dabilzala nos nai. Lau neskatilla base-

rrijan azijak, zuzenduko leukee etxaguntza andi bat, gizonen premiña бага ezertarako.

MAISU JUAN: Aitatu dituzun ezkerko baserriko biarrak, aitatu ta erakutsi egidazuz orreetarako daukezan tresna edo erremientak.

PERU: Bai atseginez, ta erakutsiaz bertan esango deutsudaz euren izenak, ta dira:

Aria bere gija katiāz ta areskubaz.

Nabasaija bere idunaz.

Iruortza.

Nabarra.

Aassia.

Atxurra.

Atxurkuluba.

Aztajorraija.

Galjorraija.

Laijak.

Eskubaria.

Igitaija.

Ota-atxurra.

Korta-atxurra.

Podaña.

Askoria.

Aijotia.

Sardia edo simaur batzallia.

Naarra kantentxubakaz.

Burdija.



Ona barriz burdjaren zure Anatomija, ta nire azterketia.

Iduna.
 Pertikak.
 Etxia.
 Zirrijak.
 Akerra.
 Ardatza.
 Laakuak, iru.
 Ugalak.
 Burtpillak.
 Buztarrija.
 Edia, edo lokaarrijak.
 Azkonarra.
 Edergarrijak.
 Kolzaak.
 Garatxuba.
 Burtezpata.
 Arasak.
 Biurrak.
 Akuluba.
 Itzaina

MAISU JUAN: Nekez irabazten dau atxurlarijak bere ogija.

PERU: Ondo dinozu: baña guri zor deusku mundu guztijak, irautia ill baga. Gure nekiakaz dator garija, dator artua, datoz baba, irar, indirar, garagar, olo ta jankai guztijak. Atxurrak dakaz maastijak, ta oneen ardaa. Atxurrak dakar linua, edo jaazteko duin duina. Nekezarijak gizenduten ditu idijak, okela ona jaateko; ta enzun neutsan nik gizon jakintsu bati, Jangoikuak egieban lenengo gizonari, emon eutsala lurra landuteko agin-

duba, onek pekatu egieban baño leenago, lurra samur ta biar-erraza bazan bere; ta pekatu egiebanian gogortu, arantzatu ta lartu jakola lur berez bigun ta samurra zana; baña len ta gero izan zala Adan atxurlarija ta base-rrikua. Gerora asmau ebeela gizonak erri batubak egitia. Eztatik nik noskuak dirian bizargin ta gaiso-osatzallak. Gizon jakitunak guzurra esaz-peeban atxurlaritzia da artez artez Jangoikuak emoniko lana, lenengo gizonagandi datorrena.

MAISU JUAN: Ori orrelan izanik, ezda izango lurrian opizijo onraubagorik?

PERU: Egija dinozu, bada ezin iñor izan zeitekian, ez izango da lenengo gurasua baño odol garbijagokorik, ta bera izan zan atxurlarija.

MAISU JUAN: Eta, asko nekatu biar da egin arteraño ogija?

PERU: Txito asko, ta alan jaana ta janzijak dakaz burukomin, arazo, lor ta atsakabe asko.

MAISU JUAN: Zertzuk dira?

PERU: Erein orduko garija oraingo euskaldunen lurrian, onek saratu biar dau; nabasaijaz igaro ta lajakaz ondiatuten da. Zoijak txikartu biar dira atxurraz; ariak, nabasai, iruortz ta nabarrak igaro biar dabee soluan galgarauba ondo gorde dedin, ta eruan ezdagijen kurrilloe, bela ta beste txori garau zaliak. Zeinbat simaur ezarri biar ez jako? Eta simaurra egiteko, zenbat buruauste? Batu biar dira basuan iraurkinak, orri igarrak ta otasostrak: eruan oneek etxera; bota kortaan; eragin nosian bein. Gero garija erne onduan, biar da jorratu, esku-etendu, zalgia ta bedar txar guztija aterateko. Neke ta lor andi oneek igarota, dator garija elduteko aldi ain biotztuba. Prestau oi dira igitajak, itzinduten ezpadira burubak erri batzubetan legez. Bero anditan ebaten dira ta egin azauak; oneek lotu, ta mukirijuak egin; oneek zabaldu, ta igartu ditezan. Arazo oneei darraiko galjaite nekagarrija izerdi bitzetan, alkarren leijan, ta soñuba neurtubaz gorputza mankauteaño.

Azao juak, edo lastotu dana alderatu biar da eskubariak garija ganik. Au geratuten da aotzez, ta galburu utsituz nastauban. Andrakumiak artzaatu darue, isteko galgarauba zerbait garbituta, ta guenian garbi garbi egiteko arkosko, lur apur, olo garau, auts ta loigarri guztietati, galbaatu biar da ardura andi bategaz. Gari garbitu ustekua, zorroturik, darue bolu edo errotara; ta, nok esan zeinbat zeregin daukan errotari gaissuak uruna egin artian? Errotiak, zeinbat tresna ta erremienta? Eijo onduan, bere laka edo



mendia errotarijak artuta, darue urunzorrua etxera. Neke barriak ogi-giñentzat. Eralgi biar da bae zarratuban; alderagin birzaijari; au garbitu biar da, zai utsa isteraño. Egin oi dira batzubetan iru ogi mueta: bata garbija; bestia tremesa, ta zantarrena ta txakurrentzat obia, birzaizkua. Ogi oneek egiteko, zeinbat lor? Txantxaduria aurrez eginda ezarri biar jako ogi oriari. Zeinbat gorputzeko gorabera, ta esku eragite oria egiten? Ogijak itxuratu, ta jagi biar dau bere terzijuan, ta onetan utsegiten bada, larregi edo gitxi-jegijaz, ez dau ogi onak urtengo. Darue labara, ta labazaina ezpada zuurra ta aituba, edo subak igaroko dau gania balzitu ta barruba erre baga, edo danak urtengo dau ezkotu ta errearinak.

MAISU JUAN: Etxataz niri inos burura etorri neke orreek. Jan dot ogija ezegaz gomutau baga.

PERU: Alan jazoten jakee txito askori, goguan artu baga nekezari gaissuen lan ta lorrak, zeintzuben izerdijaz daruen bizitza olgura ta gozo andikua.

MAISU JUAN: Badaukazu zer erakutsi geijago etxe barruban?

PERU: Bai: Mutil gaztia nintzarian ikasi neban arotzija, neure anaija nagusijaguak etxaguntza au eruango ebalako ustiaz. Ill jatan anaija a; ta gurasuak itxi nenduben euren oinordekotzat ta etxe jaube. Nosian bein eguraldi txarrak eragozten deustazanian baso ta solo biarrak, jardun daruat mai, aulki ta ezgauza batzuk egiten; ta daukadaz neure lantegija ta biar dirian erremientak.

MAISU JUAN: Ze erremienta biar da arotzizarako?

PERU: Enzuzuz: askoria, azuelia, zejua, laatraua, ginbaleta, eskoplua, zurmalluba, biar-maija, barrenia, gubija, zipilluba, garlophia ta zerria.

MAISU JUAN: Asko da gaurko erakusterik, baña bijar goissian eruan biar nozu basuak erakustera, ta arbolen izenak esatera.

PERU: Ondo dago ori; baña, alperrik igaroko dogu neguko gau luzia? Gure bizitziari ez jatorko alpertasunik. Autu egizu bada zeren ganian berba egingo dogun. Ezdeutsut nik debekau, ez galerazoko ondo dan gauzarik. Abagadune txito erazkua da illunzeta ta apal orduraño sutondoko inguruban berba egiteko, iñori ezetan ikutu baga. Nire etxian ez da enzuten dongarorik lagunaren bizieraren gañian. Zek sartu biar gaitu iñoren gauzeetan? Bakotxak jazten dau aldaben alkandoria, ta nik neuria. Iñoren begijan badakusku edozein samar; geuretan abe andi bat

bere ez... Olesa ta ate jotia da: nor ete dogu? Txomin, urteizu atera. Berbarua da, ta bat baño geijago dira.

TXOMIN: Aita, Juanis Pranzas da, ta lagun bat dakar beragaz nik eztazaudana; baña abarkeen itxuriari begiratuta, uste dot dala zure ezagun kiputzen bat.

PERU: Datozala aurrera... O azpaldiko neure Joanis! Bizi zara? Ondo etorrija izan zaitiala. Nor dozu lagun ori?... O Txorgori! Emoidazu apa laztan bat. Zu bere emendi? Erdu bata ta bestiori eskaratzera. Emen daukat egun oneetan adiskide barri bat, ta dirianok igaroko dogu gau ederra.

MAISU JUAN: Peru, erdu ona mandatutxu bat esan daizudan issillik?... Ze gizon modugaz tratetan dozu? Zelan etxian artu pranzas, ta kiputz bat? Nok daki, daukazun guztija ostu, ta emen gau txaarren bat emongo ete deuskuben? Ez neban uste orren konpijauba zinianik.

PERU: Ah Maisu Juan! Burutazino, ta zaijo donga orreek kendu egizuz. Bijok dira neure ezagunak. Pranzas sarri egon oi da emen, ta da zu ta ni baño kristinau obia.

MAISU JUAN: Pranzas ta, kristinau ona? Sartu eijozu ori zoro bati.

PERU: Egingo neuskezu tema edozein gauza, Jangoikuaren gauzeetan zu ta ni baño jakitunago dala.

MAISU JUAN: Ara ez dakijala Aita geuria bere?

PERU: Ara zu baño geijago dala? Enzungo bazeuntsaz guk legez zelan Jangoikuak munduba bere gauza guztijakaz egieban; zeinbat egunian; zetati lenengo gizona, eta alan beste gauza asko, esango zenduke, abade izateko beste badakijala.

MAISU JUAN: Peru, nik sinistuko badeutsut, neuk enzun biar deutsadaz. Baña beinik bein itandu biar deutsagu dotrina puska bat, ta guazan orain eurakaz ezkaratzera.

PERU: Ondo, baña ez arren berba minduko dabenik esan, ez batari ez bestiari. Iñor ezda lotsatu biar, ta gitxiago minberatuko nintzate, neuri esango bazeunstaz amar berba astun ta garratz, oneei bat baño. Nik ezdakit oneen euskeria aituko dozun.

MAISU JUAN: Zer? Euskeria izan, ta nik, aitua ez?

PERU: Guazan bada eurak gana, bada jua dira eskaratzera.



MAISU JUAN: Itxaraizu puska baten, ta esaidazu, Zetara etorten da pranzesa?

PERU: Luebagiña ta otaepallia da. Urteten dau illunzeetan ibai onduetara, ta artu daruaz igarabijak txito erraz. Geijago esango deusut. Oneetan dirian azerijak, dakaz nai dituban tokira, ta burdin lakirijo bat iminirik, artuten ditu. Berreun baño geijago artu ditu urte bete barru, ta batzuk ementxe geure ataijan.

MAISU JUAN: Peru, ez neban uste guzurrik esaten zenkijanik. Ikusi-ta sinistu; ta ikusita bere usteko neuke begitazinoren bat dala. Alakorik bada, enkantubak daukaz ta pamerijalak, ta laster atrapauko dabe, inkisizinoera eruateko.

PERU: Ez dauka oneek orrelango artuemonik gaiskiñakaz.

MAISU JUAN: Gurago neuke orrelango bat ikusi, orain artian ikusi eragin deustazuanak baño. Bide onez bada albidade ori, merezi leuke sari andi bat. Guazan bada beriala eurak gana...

*(Pasan á la cocina; y Maisu Juan saluda
al basco francés y al guipuzcoano.)*

MAISU JUAN: Agur adiskidiak; ondo etorrijak izan zaitiala. Alegretan nas eukitia zubek ezagututeko portuna au. Peruk esan deustanaz, bere adiskidiak zare; beraz adiskide on bat daukagu zubek eta nik.

BASCO FRANCES y **GUIPUZCOANO:** Esker andiak: ta ondo arkitua izan zaiteala emem Eseri zaite, amildu gabe.

MAISU JUAN: Zer esan dozube? Zer da eseri zaite amildu gabe?

PERU: Maisu Juan, laster katigatu zara oneen euskeran. Oraindino enzungo dituzu gatxaguak. Esan gura deustube, jarri zaitiala jausi бага, labandu edo larrapastadaren bat emonda.

MAISU JUAN: Peru, eta zuk, aituko deutseezu? Eta, nik ez?

PERU: Ni eginda nago oneei enzutera, ta zuri baisen ondo aituko deutseet. Aitu ezin dituzunak, nik azaldau ta adierazoko deustudaz.

MAISU JUAN: Aurra bada, itandu egijozu *Pater noster*ra euskeraz, ta au aituten ezpadeutsat, alperrik buruba kansauko dot. Ez aljakee aserratu.

PERU: Ez orren bildurrik izan. Ontzat eruango dabee itandutia edozein gauza. Baña, nori gura dozu esan eragin daijodan?

MAISU JUAN: Lenengo, pranzes azeri artzalle oni, ta gero kiputzari.

PERU: Joanis, adiskide onek enzun gura leuskezu *aita guria*, ta atsegin au emon egijozu. Enzun gura dau zuben euskeria. Ezdaki onek bizkaikua baño, ta bera bere zelan alan.

BASCO FRANCES: Ori baño nai ezpadu, othoiz laburra da. Ona bada.

1. Gure Aita Zeruetan zarena

Erabil bidi sainduki zure izena,

2. Ethon bedi zure erresuma,

3. Egin bedi zure borondatea, Zeruan bezala bezala lurrean ere.

4. Iguzu egun gure eguneko ogia,

5. Eta barkadetzagutzu gure zorrak, gure guregana zordun direnei barkatzen derauztegun bezala,

6. Eta ez gaitzatzula utz tentamentutan erorzera,

7. Aitzitik, begira gaitzatzu gaitzetik. Alabiz.

PERU: Maisu Juan, enzun ta aitu deustazu?

MAISU JUAN: Berba banaka bat bai, ezer ez geijago. Orren arin esatia, ji jaka berbaak aitatutia, ez da niretzat. Euskera apurren bat badaki, ta beste nik aituten ez dodan linguajeren bategaz nastetan dau, ta niri sinistu eragin gura zeunskede, euskera berba egiten dabela. Ez naz orretan engañauko. Esan dagijala Abe Marija.

PERU: Joanis, esaizu Agur Marija zuk esan daruazun legez.

BASCO FRANCES: Agur Marija, graziaz bethea, Jauna da zurekin. Benedikatua zara emazten artean, eta benedikatua da zure sabeleko fruitua Jesus.

Maria Saindua, Jainkoaren ama, egizu othoiz gu bekatoentzat orai eta gere heriotzeko orenean. Alabiz



MAISU JUAN: Len bestian geratuten nas; igarriko bere ez neutsan Abe Marija zanik, jakin ezpaneu zer esatera joian. Aserratuten ezpajako esan egijozu esan daijala kredua.

PERU: Etxako aserratuko zeuk gogait egiten ezpadozu... Joanis, esan egizu sinisbidia.

BASCO FRANCES: Bai; ona.

1. Sinhesten det Jainko Aita bothere guzia duena baithan, zeruaren eta lurraren kreatzalla:

2. Eta Jesu Krhisto aren seme bakar gure jauna baithan.

3. Zein konzebitu baitzen Ispiritu Sainduaren bertutez: Sortu zen Maria Birjina ganik:

4. Pairatu zuen Ponzio Pilatusen manuaren azpian: gurutzefikatu zuten; hil zen, eta ehorzi zuten.

5. Jautsi zen Ifernuetara; irurgarren egunean jeiki zen bizirik hilen artetik.

6. Igan zen zeruetara; jarria dago Jainko Aita bothere guztia duenaren eskuinean.

7. Andik ethorriko da bizien ta hilen juiatzera.

8. Sinisthen dut Ispiritu Saindua baitan.

9. Eliza Katholika Saindua. Sainduen partaliertasunean.

10. Bekatuen barkamentuan:

11. Haragiaren phiztea.

12. Bethiere iraunen duen bizitzean. Alabiz.

MAISU JUAN: Eta, Peru, zuk aituten dituzula berba salsa ta gatx orreek?

PERU: Baita nire emazte ta umiak bere.

MAISU JUAN: Zelan ori, ituaren itoz, ta arin esan biarraz, ta arnasa ots batzuben artian badino guztia?

PERU: Alan uste dozu zuk: baña egingo baziña soñu onetara, ta aitua berbaak, etzenduke orrelangorik esango. Neuk bere lenengo etorri zanian ezneutsan zeuk baño geijago enzuten; bana orain txito ederto derist.

MAISU JUAN: Eun urtian bere ezin ikasi nei berbetea enredau ori. Eraso egijozuz orain orazino ta Kredo, bestiak esan ditubanak, kiputz orri, ia klarubago berba egiten daben.

PERU: Txorgori, emon egijozu zuk bere atzezin bizkaitar uts oni eskatuten dabenian.

GUIPUZCOANO: Bai pozik, ta, zer egingo ez det nik zugatik? Ez bide du aitu Pranzas onen euskera. Aituko ote du nereea? Ona bada, ta esan zaazu adi nazala arreta apur batekin, ta gelditxo itzak ebakiko ditudala.

Aita gurea Zeruetan zaudena

Santifikatu bidí zure izena;

Betor gugana zure Reinua:

Egin bidí zure borondatea. nola zeruan, ala lurrian.

Egun iguzu gure eguncango ogia;

Barkaizkigutzu gure zorrak, guk geren zordunai barkatzen dieztegun bezela, ta ez utzi tentazioan erorten; baña bai gorde gaitzetik. Alabiz.

Agur Maria graziaz betea:

Jauna da zurekin; bedekatua zera andre guzien artean, ta bedikatua da zure sabeleko frutua Jesus.

Santa Maria Jangoikoaren Ama, errege ezazu gu bekatariok gatik orain ta gere eriotzako orduan. Alabiz.

MAISU JUAN: Itxan dagijala puska baten. Oni obeto edo geijago aitu deus, ta obeto iritxi deust pranzas euskaldun izenekuak baño. Baña batak ta bestiak esan dabee *agur Marija*. Gauza barregarri, ta berbetea zantarra Ama Birjiniari agur egitia. Esan biar da *Abe Marija*.

PERU: Ori esango zenduke irakurlante, ta euskalduna izanda? Agurra da euskera garbi ta ederra, esaten dana sarrera ta juaeran. Agur jauna, Agur andria esaten jakee lotsiaren kalte baga andikijai bere. Badakigu zer dan agur gozua norbait topectian. *Abe* ori zer dan ezdakigu baserriko ta beste nekezaliak; eta biar bada zeuk bere ez.

MAISU JUAN: Issildu nozu onetan: baña, ze berba plaga da *Alabiz*? Zetako esaten eztabee *Amen*?



PERU: Euskera ez dalako izen au, ta a bai. *Amen* esanda, euskera ez berba egiñaz ostian, jakin biar da zer esan gura daben berba onek ta esan ezkerero *Alabi*z, edo alan izan dedilla, edo alan da, zer dagokan esan danari, guztia dago eginda.

MAISU JUAN: Ondo dago Peru, baña esan daigula kredua kiputz orrek?

PERU: Esan deusat, ta esatera dua. Enzun eijozu.

GUIPUZCOANO: Sinisten det Aita Jangoiko guziz poderosoan; zeruaren ta lurraren egitzallea. Eta bere Seme bakar Jesu Kristogan, zein sortua izandu zan Espiritu Santuaren bertutez ta graziaz. Jaio zan Maria Birjina gandik. Padezitu zuen Ponzio Pilatosen agintearan bean. Izandu zan gurzifikatua, ill ta obitua. Jetsi zan infernuetara: irugarren egunean piztu zan illen artetik. Igo zuen zeruetara, an dago eseririk Aita Jangoiko guziz poderosoaren eskuitik. Andik etorriko da biziak eta illak juzgatzera. Sinisten det Espiritu Santuagan. Eliza Ama Santa guziakikoa. Santuen partelitasuna: bekatuen barkazioa, aragiaren piztze berria ta beti iraungo duen bizitza. Ala da.

MAISU JUAN: Itandu egijozu, zegaiti Abe Marija ta Aita guria esatez amaitu ditubanian esan daben *alabi*z, edo *ala izan dedilla*, ta kreduaren ondoren *Ala da*?

PERU: Etzaitut lotsatu gura ori oni itandubaz. Neuk esango deusut. Agur Maria ta Aita guria esaten dirianian eskatuten jakoz gauza asko Jangoikuari, ta onen ondoren dator ederto esatia *alan izan dedilla*. Baña sinistu biar ditugun gauzaak dirian legez, Jangoikua Elessiari agerturiko egija utsik emon ezin leijenak, ez da esan biar *ala izan dedilla*, ezpada *alan da*.

MAISU JUAN: Ze gizon modu nas ni? Baserritar ta pranzes luebagin batek bere dotrina geijago dakije nik baña.

PERU: Badakizu nundi datorren ori? Jaijgunak datozean, igaroten dozuz goissak bizargintzan meza arin bat enzunda, ta meza nagusi gitxitan izango zara. Eskolauba zarialako sinistiaz, usteko dau zure Elessajaola abadiak, jakituna zariala, ta ezer itandu baga, edo zeinbat Jangoiko dira itanduta beste baga, emoten deusut txarteltxuba. Zuk onegaz ardurarik artu ez daruazu, aztu jatzu gazte-urteetan ikasija, ta onlan zagoz ain atzeria.

MAISU JUAN: Egija esan biar deusut; ez neuke osoz esango euskeraz kredua, ta dakidana bere erdi erdera ta erdi euskera: alan erakutsi eusten txikarretan. Enzun dot pranzes ta kiputz kredua; esaizu zeuk bizkaikua.

PERU: Ona bada euskera garbi zalia zan geure eleis-abade batek erakutsi euskuna:

Sinistuten dot guztia daikian Aita Jangoikuagan, zerubaren ta lurraren Egillia. Eta bere Seme bakar Jesu Kristogan, zein sortu zan Espiritu Santubaren egiñez ta graziaz.

Jaijo zan Marija Birjina gandik. Padezidu eban Ponzio Pilatosen agindubaren beian. Izan zan kurutzian josija, illa ta lurbetuba. Jatsi zan inpernubetara; irugarren egunian biztu zan illen arterik. Igoeban zerubetara; an dago jarririk Aita Jangoiko guztia daikianaren alde eskumatati. Arik etorriko da bizi ta illai epaija emotera.

Sinistuten dot Espiritu Santubagan.

Eleissa Ama santa Guztientzakua.

Santuben Partiltasuna.

Pekatumen parkazinua.

Aragijaren biztuera barrija.

Eta beti iraungo daben bizitzia. Alan da.

MAISU JUAN: Ederto esan dozu. Ezdozu esan neuk aituten ez dodan barbarik?

PERU: Ori da bada guri abade irakasliak esaten euskuna. *Sinisten dot*, au adietan errazagua zala askozaz, bestelango nastau ta euskera gaistokua baña. Euskaldun utsak ezin aitu eikeezala berba oneek; *Poderosua, Kriadoria, konzebidu, poderiaren beian, erresuzitau, Katolikia komuninua, erresurrekzinua, sekulakua...* Berba eraatsi ta gatx oneek biar ebeela azaldaketa luze bat, ta guztiaz bere ezin ondo ulertuko zitubela euskaldun utsak. Agure ta atsuak esaten euskuben *kredo barrija* ikasten gendubala: baña txito ondo eritxeen guk esaten gendubanian geuk ikasija, ta autor eben guztia adietan ebeela: baña ez eukeela bururik ikasteko.

MAISU JUAN: Peru, beti ondo berba egiten dozu, ta Jangoikuak gorde dagizuzala buru ta miñ orreek. Alperrik izango da ni berba egiten astia luebagin orregaz; ta alan esan egijozu presta dedilla azerijak ataira



erakarri, eta artutera neuk dakustala. Ze izen emoten deutzazu? Zer da Joanis?

PERU: Joanis esaten deutsee pranzas euskaldunak Juan edo Juaniko esaten deutzagunari. zelan Petri Pedrori, ta Estebe Estebani. Kiputzari esan deutzat Txorgori Gregorijo esateko.

MAISU JUAN: Eta, ze opizijo dau kiputz orrek?

GUIPUZCOANO: Ni arzaia naiz, adiskidea, ezer bear badidazu. Gaztangiña ere bai. Nabil batetik ta bestera ardi ta auntzak erosten, ta negu gogorren batek illtzen ezpadizkidaz, ongi irabazten det artille, bildots ta gaztaia salduarekin. Jaana, nola alakoa: loa nai adiña, gorputzak neke gutxi. Zer edo zer bear da: langillarik ez da, lor gabe. Aizerietatik arku-meak zaitzeak, ematen dit zer egin. Gabaz ere oi dabilta eizaan bezala. Ikasi bear det nik ere nola arrapatzen diran piztia kaltegarri oek. Otsorik ez da zorionez nere egotokietan.

PERU: Joannis, egizu bada azeri janaria.

BASCO FRANCES: Ekardazu urdai zati bat. Nerekin ditut beste gauza batzuek, ta naasi guziak ipinita, burni tranpa paratuta, arranoak aragi kiratstura bezala, elduko dira nola ezdakitela, azeri urruti daudenak, ta eroriko dira. Zatozte bada nerekin etxe aurrera; ta goizeko katibu arkituko degu azeri zaarren bat.

(Prepara su menjunge: arma la trampa.)

MAISU JUAN: Guazan orain apaitara, gero lotara, egun sentijan jaagi ta ikusteko jausi dan edo ez azerija.

(Se acuestan.)

PERU: Maisu Juan. Lo egizu gois artian.

MAISU JUAN: Ezin lorik egingo dot azerija buruban artuta...

PERU: Jagiteko orduba da.

MAISU JUAN: Banua laster... ekartzuz prakaak, eztaukat astirik geijago jazteko. Guazan laster... Jausi da, jausi da azerija. Kaderati lotuta dago. Eta, zein eskerria dan! Ze arpegi erretxinauba daukan!. Ez dago zer ikusi geijago, au ikusi ezkerro. Ez dago pranzasak asmauko ez dabeenik; azerijak eurak baño azerijaguak dira. Ze enkantu imini ete dau zoraerazoteko, ta urrinetik ona erakarteko? Emon eijozu zerbait, erakutsi daigun zegaz egiten dan unturia.

PERU: Eztau erakutsiko; asko da ikustia. Guazan etxe barrura.



DIÁLOGO SEXTO

MAISU JUAN, PERU, EL FRANCÉS, EL GUIPUZCOANO, UN CURA Y EL ALGUACIL

PERU: Eskini neutsun, Maisu Juan, gaur goissian eruango zendudazala basuak erakustera, ta euretan abe bizi edo arbola txito asko, esateko euren izenak. Baña zeure azeri artzeiaz aztu zara. Muker muker ta abegi txarragaz begiratu zeuntseen lenengo sarreran pranzas euskaldun ta kiputzari. Ez dozu uste izan biar bizkaiti kanpora ez daguala gauza onik; arrotz ta erbestekuak makal, baldan, baldres, motz, oker, zital, asto ta dongaak diriala. Errikoijegija danak, begi itxubak eukiko ditu; beintzat bai erdi geundu ta leusotubak. Zelan gero zuzen gauzaak ikusi? Zelan epai uts bagia emon? Bereini zoratu oi jakee alde onetati. Ikusiko dozu zuk erri kaskar, basoti, otsotokitzat ontzat eukiko dozuna, ta dinozu, zelan bizi leitez erri onetan? Eta erri atakuai deritxe, ez dala bera baño adjutubagorik era guztietara. Esango deustube ez daguala inun iturri obagorik; aise osasuntsuba daukeela, gari ederrak artuten ditubela, ta euren bizargin zelan alangua gaiti esango dabee España guztian jakitunagorik ez daguala. *Bakotxa bere zorua bizi dau;* alan da esaeria, ta alan izatia. Baña igaro jatzu zuri leengo zoraasuna, ta ezagutu dozu, zuk dongatzat, lapur-usainekotzat, sorgintzat ta guzurtitzat zeunkan luebagin pranzas au, dala gizon zinzo, egijazti, on ta kristinau garbi bat. Kiputz arzain ta gaztaeginau bere ez dala edozelangua ta bai ondo bizija, ta baldreskerija bagia; ta bata ta bestia onak diriala adiskidetzat. Gura dozu bada geure gossarija alkarregaz artuta, urten daigun laurok basuetara? Zuk uste dozun baño jakitunaguak dira, nekazari batzuk jakin aldaikeezan gauzeetan.

MAISU JUAN: Bai, Peru, baza utse egin nebala dongaro susmaubaz oneek gaiti. Ez egijezu esan, zer bildur neukan nik len eurak gaiti.

PERU: Guazan bada zerbait jaatera, urten daigun ainbat lasterren, ta biar bada esango dozu zorianian etorri ziriala oneek etxe onetara.

(Almuerzan, salen de casa.)

PERU: Adiskidiak, ez dogu berba alperrik egin biar, ezpada onen bat ekarri daikiana.

MAISU JUAN: Joanis, parkatu, baña jakin gura neuke, ze errikakua zarian Pranzijan.

BASCO FRANCES: Ni nas baigorritarra; erri tippi batekoa.

MAISU JUAN: Etzara gerraan ibilli igaro dirian urteetan? Baigorrikuak ots egiten ebeen, ta eukeezan gaistotzat.

BASCO FRANCES: Gerla zer dan ez dut jakin. Ihes egin nuen andik, ta ebildu naz Españako iri euskaldunetan nola ala ezkutuz edo ageriz. Beldur izigarrietan irago nituen asko egun. Maiz bihillatua izandu nintzan pranzas izena gatik. Behein baño gehiagotan egin nuen lo basoan bizkaitarren beldurrez. Pranziara ez nuen joan nai, gerlara eramana izan ez nindin. Zorionez bukatu zan gerla gaizto ura, ez dakit nola biziaz irten nintzan Franzian ta Españan, Baigorri ta Bizkaian, nor nai ardiak ta haunzak, arkume ta hauntxumeak, onak eta gaiztoak. Baziren Baigorri ezin besitez, edo indar utsez ta portxaz gerlara zijoazenak. Nai duzu enzun urte txar aietako Baigorritarren kanta soñuekin lagundua? Ona emen.

Gerlara ethorri ginean

Gure bizien perillean,

Gure agintariak pranzas,

Alons, chasseurs, avancez;

Guk euskara eranzutea,

Diabriak eraman bazinzez.

Biba Nafarroako

Bolontarioak,

Asanblean dezuiez

Kontrarioak;

Egin zaizue gerla

Biotzez ta gogotik;



Gu ere elduen gera
Zuen ondorendik.

Asto bizkarmendi
Mendi famoso,
Españarra an dago
Beti sendo sendo;
Franzesa joaiten bada
Geldi, eta manso,
Koko ezur andiak
Etorriko franko.

Otsondoko mendian
Nor bizi, nor bizi.
Ustez Asanblearen;
Joan ziren ihesi,
Mutuia izan eta
Itz bat ez bihurtu
Urdatxuri aldeko
Bihorrak izutu.

Eguberri eguna
Eguna bai triste;
Ez genduen guk beintzat
Alakorik uste;
Mezaren enzuteko
Libertade gabe,

Fusilak arturikan
Zentinelan daude.

Onla itz egiten zutenak, etziren ez biotz gogorren jabeak. Naiagoko zuten beren etxeetan lanzan ari, ezen ez gerlaan Españarren odola issurtzen. Nola nai, orain adiskide gera. Nai dezu zuk izan nerekin?

MAISU JUAN: Bai pozik bere.

BASCO FRANCES: Aizazuz bada adiskiden gañeko errakuneak?

Adiskidea saharrik
kontua berririk.

Adiskidea gauza tipian bihar da porogatu:
andian enpleatu.

Adiskide egin, ez bear duanean
baña bai behar duaneko.

Adiskideaz egin urreaz bezala,
Igerri gabe ar ez tezala.

Adiskide gabe bizi den aberatsa,
Pikatueta lo egiten datza

MAISU JUAN: Au ze kontu da! Ni nas asto andi bat. Orra zelango konseju onak emoten dituban euskaldun luebagin ta francesak, ta ze esakune ederretan! Esaizuz arren, Joanis, orrelango beste esacra batzuk; lenenguan baño geijago aituten deusut.



BASCO FRANCES: Niri ere Bizkaira ethorri nintzen lenbiziko egune-
tan, zuri bezala gusta zitzaiten emengo euskara aditzea. Orain berriz
nerea bezala aditzen det. Ona bada zuk nai dituzun berste errakuntzak.

Etxeko sua estalzazu,
Baña etxeko autsa ezarzozu.

Gaitza hunki ator
Bakar bahator.

Gizon bizarpeituti, eta emazte bizartsuti,
Ihes egik, nola Ro suti.

Gois gorriak dakarke euri,
Arrats gorriak, eguraldi.

Goiz otsadar, arrats iturri.

Arri erabilliak
Ez ditu bilduko oroldiak.

Jaunen artean zein da latz-gogorrena?
Tipi izatetik jauntzera eldu dena.

Jokalariaren lasterra; gora ta bera,
Goratzea egi erdiraño;
Beheratzea ondarreraño.

Erle joan naia, ez ezti, ez breska.

Kanpoan uso, etxean bela.

Egurra dagienak leku gaitzean,
Ekarri beharko du soñean.

Arstoa osinian,
Irriz irri itotzean.

Nai duzu geiago gauza onetan? Txit asko dakizkit onlako errakune-
tan.

MAISU JUAN: Enzungo nituke pozik ezpageunka beste zereginik.
Baña asko dira esanak igarteko askoz geijago dakizula. Or dator nor bait
eskopeta ta txakurraz. Abaderen bat dirudi; gois jagi da oraingo emen
danian...

(Se les acerca el clérigo y dícele Maisu Juan.)

Jauna, gelditu gura badau puska baten gugaz emen, enzungo ditu
enzutekuak. Ona emen iru euskaldun modu, pranzesa, kiputza, ta bizkaita-
rra, alkar ederto aituten dabeenak. Zurtuta isten nabee ainbeste gauza jaki-
tiaz. Asko jakin lei berorrek, baña ez ditu euskerako kontubetan atrapauko.

ABADIA: Nik artu ez? Eranzun daideela neure itaune oneetara. Zer
esan gura dau *Aguriak?*

PERU: Aguriak, *Ai guria*, edo aika illetan daguana, ta zaarrak aigurak
dira. Baita beste gauza bat bere, *Agur-ia*, agurika daguala lurra itxi biar
dabelako laster.

ABADIA: Ezin obeto. Eta *Atsuak?*

PERU: *Atsduna* dala, atsa darijola, edo bai *aitsuba* dala, edo *aika*
daguana.



ABADIA: Larramendik bere ez jua edertuago esplikauko.

MAISU JUAN: Abade Jauna, beekijan berorrek zer esan gura ebeen?

ABADIA: Ez nekijan: zetako guzurra esango dot?

ABADIA: Eta, zer esan gura dau *aserijak*?

PERU: *Atserija* da atsaren gatxa, ta aserijak alan dabee: atsitubak dira, ta guztiz atzeko aisiak botaten ditubenian. Ezdau inos enzun txakurrak urrian ditubenian aserijak bota daruazala atzeti, edo allapeti aisiak, onen atsak aztu eragiteko txakurrei oñatzetan usain egin daruena, edo eurok lakuak esan oi dabee legez, arrastuba galerazoteko?

ABADIA: Pranzas ta kiputza, zer dinozu zubek? Ondo esan dau gizon bizkaitarrak?

BASCO FRANCES y GUIPUZCOANO: Ederki dio: Guk esaten diogu *eizzeria* ta oro bat da, urtxo dabill eizaria aizeriaren izenarekin, batez ere *ai* biurtzen bada *E* aoz, franzes gisaan. Onela ongi dator kio eizari, edo aze-riaren izena, ollagor, eper, erbi, ollo ta gauza askororen eizaan ibilli oi dalako usaika zakurrak bezala.

MAISU JUAN: Jangoikuak nai ba, eskribidu ta erdera biurtuta iminiko ditut zuben esplikazinuak, ta lotsa бага esango dot, nortzuk irakatsi eusteezan.

ABADIA: Aurrera. Zer esan gura dau *sugiak*? Zer *muskerrak*?

PERU: Sugia da *subagia*, *otz* otza dalako, ta au edozeñek daki. Musker-rra da *musu-okerra*, zelan eskerra eskuokerra. Musu okerra esatia da, begi-raune gaisto ta bildurgarrija eukitia. Esaten da gizon okerra, gizon gaistua gaiti, ta mukerra bere bai.

ABADIA: Zer da *otsua*? Zer *artzua*? Zer *katamotza*? Zer esan gura dabee izen oneek?

PERU: Otsua da *oitsua*, leku oi, edo goi zalea, menditarra. Artza, *Ar*, edo *atzapartsua*. Katamotza esaten jako *musu motza* dabelako, ta katuba dirudijalako.

ABADIA: Zer da *txakurra*? Kiputza, esaizu zuk bere, bada enzun dodan legez pastoria bazara, eukiko dozu zeure txakurra.

GUIPUZCOANO: Arzaian txakurrei esaten zaie *artzanora*; edo arzaiak *ora* egiteko daukatena. Esaten ere zaio zakurra, esan nai du *zau-*

korra, edo zauk-urra, adierazotzeko zaukaria dala, edo zauka urrean duela. Onelakoak dira zakur andiak, *zauk zauk* lodi egiten due: berriz txikiak, *txauk, txauk*. Ala bada, txakur andiak gatik esaten da zakurra, txikiak gatik, txakurra.

ABADIA: Zein me iruten dabee gizon oneek! Baña, ze ari ederra!

MAISU JUAN: Bantzuz, abade Jauna, oneen esplikazinuak? Oneek bai diriala izenen anatomiko andijak.

ABADIA: Zer da *basaurdia*? Zer *izurdia*?

PERU: Basaurdia, *basoko urde* edo txarrija, ta iz-urdia, *itxasokua*.

ABADIA: Zer da *oiloa*?

PERU: *Oi*, edo goijan lo egin oi dabena; ta oiloak igon darue lotara al dabeanian egur gain, edo otaan.

PERU: Zer da *katuba*?

PERU: *Katigatuten* dakijana bere atzaparrakaz, edo bai *keatuba*.

ABADIA: Ea kiputz pastore edo arzaiña, zugaz orain neure esaminia. Zegaiti esaten dira *ardija auntza*, *akerra*, *gaztaia*, *gaztanberia brujakia*? Oni eranzuten badeutsazu, esango dot abadiok baño euskera geijago dakizula.

GUIPUZCOANO: Ez da gauza gaitza oriei erantzutia. Adibeza.

Ardija, da *l-ardija*, larrako bedar zalea dalako; ardiak eskatzen du larraan ibiltzea, an belarra jaatea.

Auntza deitzen zaio *auan* duen *antza* gatik. Bere arnasa da gaitzo ta kaltegarria, ta ez gutxiago bere ortzak.

Akerra, da esatea *adar-okerra*: argatik esan oi da itzaren arintasun ta garbitasuna agertzeko, *Akerrak adarrak okerrak ditu*.

PERU: Ederto dino kiputzak. Guk bere esan daruagu, nok miña garbijagua daben igarteko, *matxin akerra makerrakoren aker adar okerra baño*, *akerrik okerrik ez dot ikusi nik*. Au zuzen esaten dabena, miñak larrapastadarik egin бага, miñ garbikua da, ez motela.

GUIPUZCOANO: Gaztaia, da esatia *ai gaztua*, edo gatz ta eznearekin egiten dan aia. Brujakea, da *buru-jakea*, edo burutik beera janzi oi dana.



ABADIA: Beraz, erdaldunak ostu deutsee euskeriari berba au? Kiputza asko da, ez daukat zuri zer itandu geijago, ain ondo eranzun deustazun ezkeru. Baña esaidazu irurotatik edozeñek, zer esan gura dau *erbijak*?

PERU: Erren egite bi ditubana. Oin bat laburrago dabenak erren bat egiten dau. Oin bi okertuta daukazana, bijetara errenduba da. Erbijak aurreko eskutxu edo oin bijak laburraguak ditu atzekuak baño. Beraz birritan errena da, ta igarten jako ibilleran, batez bere aldats-beeran.

ABADIA: Eta, zer da *mozolua*, naiz *ontza*? Izen bi oneek emoten jakoz.

PERU: *Mozolua* edo *motz-ollua* da *ollo-motza*, ta agertuten dau bere motztasuna arpegijan. *Ontza* zerren on utsa dan. Ez teutsa iñori kalterik egiten. Gura dau enzun gure artian dabillen ipuin sona ta barre egiteko bat? Antxina antxina baten jaio zan mozolua luma baga, motz motzik edo billosik. Eguan lotsatuta arpegirik emoezinda. Asi zan uluka. Batu zirian ulubetara txori asko: ingiratu ta itandu eutseen, zer eban? Eranzun eutseen, zer izango dot? Ez nakutsu danau moztuta, luma bat baga? Otzak igaro biar nau, ta ez daukat arpegirik egunaz urteteko; gau txori izan biarko dot neure bizitza guztian. Emoidazubez arren bakotxak lumatxu batzuk; jaioko jatzubez barriak, ta ez jatzube igarriko gitxi batzuk kenduba gaiti. Errukitu zirian; emoeutseezan luma alik onenak ta ederrenak. Alango baten urteeban bere zuloti txito ederto janzirik. Arroto zan dana ain apainduba buruba ikusirik, ta esateutseen beste egazti ta txorijai, eztago zuben artian ni baisen ederrik. Begira nire luma bete ta ederrai. Egieban beste txorijak euren batzaarra, ta zinuen. Zer? Lotsatuko gaitubala guztiok zantar zarrak? Eztago bera baño itxusi ta ezañagorik bere arpegi ta korputzian. Geuria da daukan luma janzi ederra. Eranzi daigun. Esaeban kurrilloiak, obe izango da leenago mandatu bat bialdulia gure aldetik, eskatuten jakozala atzera, emon jakozan lumaak, ta neu izango naz mandatari. Juan jakon kurrilloia ta emoeutsan mandatuba. Mozolua larritu zan, ta damutu jakon arrotasuna artubaz iñoren mesediakaz. Iges egieban ezer eranzun baga. Arik ona dabill ezkutuz, buruba egunaz agertuten eztabela beste txorijen bildurrez. Nos bait urteten badau, darraikoz txori asko euren lumaak kendu gurarik, ta darua bizitza bakar bat, eta au, bere arrotasunaren dongakerija gaiti.

ABADIA: Ez da ipuin ori zubek languak ateria. Asko esan gura dau. Iñorenaz jazten dana, bildur da billostu ez degijen. Ezagutu biar da ondo egiña, edo mesede artuba, ta eskertsuba izan. Ez dogu arroto biar geuria ez danaz, ta gizonak daben on guztija, Jangoikuak emona dau. Orra zein-

bat gauza sarturik dagozan zure ipuin eder orretan. Ez dot sartuko zaku eten ta zulatuban. Guazan aurrera. Eta, zer esan gura dau *eperrak*? Zer *galeperrak*? Zer *ollagorak*? Zer *mingorak*? Zer *anzarrak*? Zer *egaberiak*? Oneci eranzuten bajat, ezteutsut geijago itanduko.

PERU: Itandu begi gura daben artian; ez dogu gogaitik egingo guk, berorrek egiten ezpadau. *Eperra* da *erpe-ederra*; alan ditu egazti onek bere erpe bijak. *Gal-eperra* da gari artetan ta galonduetan oi dabillen *epertxuba*. Aetan egiten ditu bere arrautzak, ta atera bere umiak. Berori eizazalia da dakustanaz, ta au jakingo dau. *Ollagorak* ez dau zer adierazorik; berbiak berak dino dala *ollo muetia*, ta *gorra*. *Mingorra* esaten da soñurik joten ez dabelako, dalako mutu, ta issilla. *Anzarrak* esan gura dau *anditzarrak*, ta alan da.

MAISU JUAN: Itanduten badeutsee oneci, zer esan gura dabeen *zorri*, *ardi* ta *tximitxa* zitalak bere, emongo deutsee esplikazinoia.

ABADIA: Bai ete? Ea bada, zer esan gura dabee?

PERU: Nok ezdaki ori? *Zorrija* da *zordoguna*, ta gizon ta andra guztien petxuba. Ez da iñor, au zor ezdabenik. Geugan sortuten dira bartzak, edo zorrikaijak. Bartzetati urteten dabe, ta azten ditugu. Orretarako ainbeste orrazi. *Ardija* da *aarra*, ta ugarija, ta au esan gura dau ardiak. *Tximitxa* edo *imitxia* esaten da *tximurtxi*, edo imurtxi egiten dabelako. Ondo dakije au piztija zitai oneek dagozan geleetan lo egiten dabenak, ta tximurtxi natu edo zetaka gorritubak agertuten dira alango tximurtxituben sama, beso edo gorputzian .

MAISU JUAN: Au bai dala kontuba. Euskeriak eukitia ainbeste ondatsun, guk ez ezagututia biar dan legez.

ABADIA: Esan neutsuben itanduko ez neutsubela geijago; baña jatort gogora *erlia*, ta jakin gura neuke, zer esan gura daben izen onek, edo zegaiti imini jakon izen au egaztitxu biargin oni.

PERU: *Erliak* esan gura dan *errillia*, edo osuago, *errigillia*. Eta bene benetan erliak egiten dabee erri bat. Zeinbat etxetxu ederto egiñak? An bertan daukee biar eginda, jateko biar dabeena. Daukee euren buru edo agintarija. Alperrak, zelanguak dirian kuruminuak, botaten ditube etxeti, eta zeinbat gauza miragarri irakurten dira, dinuenez, erle biarginak etxe barruban egiten dituben gauzeen ganian!



ABADIA: Jakin gura dot geijago bere. Zegaiti esaten jakee *mirubak*, ta *gabillaia* egazti arrapatzalle edo txori lapur oneei?

PERU: *Miruba* esaten jako *me-iruten* dabelako; ta esaten da me iruten dabela, txito zuurra ta arte andijetakua dalako, txori ta txitatxubak atrape-tako. Eta arrituteko gauzia da zeinbat asmogaz, igote, jaazte, ezkuteta ta agertutegaz ostu ta eruan daruezan. *Gabillaia* da osoz *ega-billaia*, dabilella-ko *egaa*, *billatu*, aratu, ta aztertuten zozo, birigarro ta beste txorijak, orain gora igon ta egaan dabilella, ikusten nundi nora dabiltzan, nun ezkutetan dirian; gero jaazten diriala sasi onduetara, an edo nun dakusezan beinguan arrapectako.

ABADIA: Gizonak, ez bururik ausi geijago. Ez dago geijago zer enzun. Orain niri jagot imintia erderaz zuben irakatsija.

Aguria

Hombre anciano.

El quejoso ó que quiere quejarse.

Atsoa

Mujer anciana

La quejosa ó la fétida.

Aserija

Raposo ó raposa

Aire pestífero, ó cazador.

Sugia

Culebra

Sin fuego ó fria.

Muskerra

Lagarto

Semblante torcido ó temible.

Otsua

Lobo

El montañés ó el de los altos.

Artza

Oso

El de mucha garra.

Katamotza

Tigre bastardo

Gato sério.

Txakurra

Perro menor

El ladrador débil.

Zakurra

Perro mayor

Ladrador fuerte, grueso.

Arzañ-ora

Mastin

Perro de pastor, agarrador.

Basaurdea

Jabalí

Cerdo montés.

Izurdea

Tollino

Cerdo de mar.

Oilua

Gallina

Sueño en alto.

Oilaarra

Gallo



El marido de las gallinas.

Katuba

Gato

El ligador ó humeado.

Ardija

Oveja

El dado al pasto de yerba.

Auntza

Cabra

Boca fétida ó maligna.

Akerra

Cabron

Cuernos torcidos.

Gaztaia

Queso

Papilla salada y fortificada.

Brujakia

Brujaca

Traje de espalda que se mete por la cabeza.

Erbija

Liebre

Doble cojo.

Lukia

Raposo

El enterrado ó encavernado.

Mozolua

Mochuelo

Gallina sêria.

Ontza

Mochuelo

El puro bueno, que á nadie persigue.

Eperra

Perdiz

Zarpa hermosa ó corte hermoso.

Galeperra

Codorniz

Perdiz de los trigales.

Ollagorra

Becada

Gallina sorda.

Mingorra

Becacin

El de lengua muda.

Anzarra

Ganso

El grandazo.

Erlia

Abeja

El fabricante de pueblo.

Miruba

Milano

Hila delgado: astuto.

Gabilaia

Gavilan



Vuela buscando; el buscador de noche.

Zorrija

Piojo

Tributo ó deuda.

Ardija

Pulga

Insecto fecundo.

Arkakutsua

Pulga

insecto ensuciador ó cagador.

Tximitsia

Chinche

El pellizcador.

Orra emen eskribidu ta erderatuta, zubeak irakatsi deustazuzan berba, edo izenen azterren edo esplikazinuak. Irakatsi egidazuz geijago jakin daijen gaztelar ta erdaldun guztiak, zelangua dan gure euskaria.

ABADIA: Zer esan gura dabee izen oneek, *zapua*, *erroija*, *belia*, *ugarasijua*, edo *igela*, *zezena*, *beeija*, *idija*? Oneek adierazotia, gatxa izango da.

PERU: *Zapua* da *zapalduba* legez berba laburtuban, ta *zapua* ondo zabala da, ta *zapaldubaren* gisakua.

Erroija da *bela* mueta leku *goi* edo menditubetan beti egon edo dabillena.

Belia da leku *beetara* jatsi oi dana.

Ugarasijua da uretan *garrasika* ta *igeri* ibiltan dana.

Igela da *igerijan* dabillena.

Zezena, da *zerdena* edo buru arrotu ta jasokua.

Beeija, *buruz* *berakua*.

Idija, edo *idundija*, idun galanta dabena. AB. Banua erderatutera:

Zapua

Sapo

El ancho, aplastado ó zambo.

Erroija

Cuervo

Casta de cuervo de los altos.

Belia

Cuervo

Cuervo que anda en los bajos.

Ugarasijua

Rana

Nadador vocinglero.

Igela

Rana

Nadador.

Zezena

Toro

Cabeza erguida.

Beeija

Vaca

Abajado.

Idija

Buey

Buen pescuezo.

ABADIA: Zer da *astua*, *zaldija*, *zamarija*, *mandua*?



PERU: *Astua*k esan gura dau, *astiro* doian, edo *astunak*. Alan gogaikarrija da astazainarentzat asto zamatubaz jua biarra; beti ibilli biar dau makillaka legez igitu dedin arinago.

Zaldija ale, edo *garan zalia*, edo zaala da sendua legez.

Zamarija da *zamatu* (edo batzuben berbeeta txaarrian) kargauta duana.

Mandua, *ederto dua*, edo ibilli onekua dala; gauza mania esaten dogu gauza on ta gogokua gaiti.

ABADIA: Nua neure erdera ipintera.

Astua

Burro

Camina despacio ó pesado en andar.

Zaldija

Caballo

Aficionado al grano: fuerte.

Zamarija

Cabalgadura

Cargador ó conductor de cargas.

Mandua

Macho

Camina apaciblemente ó á placer.

Oneetati ateraten dot Abere, ganadu, giberrri, piztija, patari, aar ta bizitzia daukenen izen guztijak, diriala berarrijaz eraatsijak, adierazoteko euren inklinazino, edo propiedaderen batzuk; ez dakit zelan esan euskeraz ondo berba oneek. Ni liburu zalia nas; asko irakurri dot neure urteetan, ta esan biar deustubet, zubek jakin ezin zinaijan gauza bat. Jangoi-

kuak beste gauza guztien ondoren egieban gizona, ta oni emoeutsan jautetasun ta esku osua legez, egin zituban animalija guztien ganian. Agertu jakozan oneek Adani, ta jarri aurrian morroe batzuk legez, ta bakotxari imini eutsan konbeni edo ondo etorkon izena, zeñian espliketan zirian euren propiedade, edo bata bestiagandi desbardintuten zitubana. Emendi ateraten dabee jakitunak, lenengo gizonari eraatsi eutsala Jangoikua berbeeta bat, ta ezagutu eragin beinguan animalijen bakotxtasunak edo propiedadiak, ta egiebal jakituna. Au jazo zan Adanek pekatu egin baño leenago, ta zelan Jangoikuak egin da laster jausi zan pekatuban, ez eban izan denporarik berez ikasteko animalijen zerzelidade edo zirkunstanziyak, ez asmeetako berbeetia, ta alan dana izan zan. Jangoikuak beingo baten iratsiriko jakitia.

Mundubak zitubanian egiña izan zaneti, gitxi gora bera, milla zazpi-reun irurogeta amar urte, ondatu zituban Jangoikuak bizitzia eukeen kriatura guztiak, itoten ziriala bialdu eban ujol andi bategaz, zortzi gizon ta andra, lau aetati ta beste lau oneetatik, gorde zitubala kutxa onzi moduko baten, nun bere gorde zirian animalia batzuk, gero barriro geitu zitezana. Kastigu au iragota, lau gizon ta lau andra aen ondoringuak geitu zirian asko urtiakaz, ta ezaguturik ezin alkarregaz, edo alkarren urregi bizi zeitekezala, zabaldu baño leenago munduko aldeetara, erabagi eben egitia torre txito luze bat euren izena onrauba izan zedin. Arrotasun andi bategaz baziarduben jasoten torre au. Artietan etzan munduban berbeeta bat baño, ta bera Jangoikuak lenengo gurasuei irakatsija, ta oneetati euren ondorenguai etorkena. Zer egieban orduban Jangoikuak, itxi eragiteko arrotasunez asi eben biargintza a? Aztu eragin len ekijen berbeetia; iratsi beste berbeeta batzuk. Konfusinoe edo alkar aitu ezinagaz, itxi biar izaetseen torria amaitutiari, ta gero zabaldu zirian munduti batzuk batera, bestiak bestera bakotxa bere berbeeta iratsi jakeenaz. Andi asi zan berbeeta asko lurrian egotia, gerora geituten ziriala geijaguaz. Zer jazoko litxakegu bizkaitarrai aztu eragingo baleusku euskeria, ta erri bakotxekuai iratsi beste berbeta barri bana, erri baten bakarrrik isten dabela lengo euskeria? Ze konfusino ta alkar aitu ezina erri batzukuak bestekuakaz? Apartauta banatuta legez bizi biarko genduke!

Noeren ondorengoren batzuk, munduti zabaldu zirian denporan, etorri zirian Española; nortzuk izan zirian, ezdakigu ziur. Baña San Jeronimok geijen geijenakaz dino Española etortia tokau jakeela Tubal berari, edo bere ondoringo urrekuai. Oneek ekarri eben euren berbeetia, ta onek izan biar eban Babelko Torre egitian Jangoikuak iratsi zituban arte-



koren bat. Euskeria zala berbeta au, sinistu giñai dagozan errazoe andijak gaiti. Euskeriari eztakijo inok arrezkero etorrerarik. Euskeria zan antxina-ko España guztiko berbeetia. Euskeriak ez dauka, ezagututen dirian beste berbeetakaz, alkartasunik. Euskeriak daukaz txito antxinakua dalako usain ta sinisgarri asko, ta gauza askotan. Baña zek geijen zurtuten naberen ni ta gozaro, da ikustia, zelan abere, piztija, giberrri ta egaztijak daukeezan euskera izenak, azaldau edo espliketetan dituben berbaak, batu ta laburturik, euren zerzelidade ta propriedadiak. Au berau eukan Jangoikuak Adani iraatsi eutsan berbeetia, zeñek izan biar eban berbeeta oso edo perfekzino andikuak. Iñok ez daki ziur, zer egin zan berbeeta lenengo onegaz; edo galdu zan guztiz, edo nastau zan gerora besteen batzukaz, edo dan hebreotarrak gorde ebeena. Baña dan legez dala, badirau bere berbeeta ak, ez lenenguan eban garbitasunaz. Ondo da jakitia zubek bere barri edo notizia oneek, ta nik zerbait irakastia, irakatsi deustazuzan ezkeron niri ainbeste gauza, leenago ez nekizanak. Eta Jangoikuak nai ba, emendi aurrera artuko dot ardura andi bat, baserritar ta beste nekezale erdera bagakueta-ti euskeria ondo baño obeto ikasteko. Egongo nintzate luzaruago zube-kaz deituko ezpanenduke elessako zeregiñak. Erosiko ditut, topau aldai-dazan, basko ta kiputzeke liburubak bere, euskera guzti guztietakua aitu-teko. Agur gizonak, gera zaiteze ondo, bada poz ta irabazi geijagogaz nua, amar erbi edo eper illda baninua baño. Jarraitu egijezu orain artu dozuben bide, ta lanari.

TODOS: Agur, jauna; ta bekargu esku ori mun egin daijogun.

PERU: Guazan aurrera inun gelditu baga, esan daijoguzan neure bizkaitar jakin gura oni abe bizi edo arbola askoren izenak, erakutsijaz baso onetan.

MAISU JUAN: Zegaiti esan dozu abe bizi, edo arbolia?

PERU: Zaarrai enzun neutseen, len abeen izena emoten jakeela, orain arbolen izena emoten jakeenai; ta enzun neutsan abade euskera zale bati, obeto esaten ebeela. *Abarra* esaten jakola, *abe-adarra* berba laburraguan batuta. Erri askok gordeten ebeela gauza bera euren izenetan, *Abadino*, *Abando*: baita *Abendaño*, *Abanzabalegi* ta beste etxe askok bere, zeintzube-tan abiaren izena emoten jakeen oñian dagozan arbolai.

Orain esan biar deusudaz, baso onetan dagozan abe abetxu edo arbola ta arbolatxuben izenak.

Basaberak esaten jakee txikar igon baga datozanai. Zelanguak dirian otia, gisatsa, ginarrria ta beste asko.

Beresija esaten jako, esituta daguan leku bati, nun datozan, goratuten ez dirian abetxubak, ta andui galantak.

Abe nagusijak dira oneek:

Aritxa.
Artia.
Ametza.
Altza.
Agiña.
Pagua.
Lessarra.
Intxaurra.
Kastañia.
Okarana.
Madarija.
Sagarra.
Masustabia.
Makatza.
Mispillia.
Kerisia.
Priskuba.
Pikua.

Abetxubak dira beste oneek:

Azkarra.
Eltzuna.



Elorrija.
Erinotza.
Itxuski latza.
Gurbisia.
Gorostija.
Masusta txikarra.
Gisatsa.
Giñarria.
Saratsa.
Laarra.
Asto-larrosia.
Larrosia.
Otia.
Ota-maruba.
Arobija.
Maatsa.
Urkija.
Untza.
Uurra.
Zumia.
Zumaligarra.
Urritxa.

MAISU JUAN: Peru, esan biar dot ostera ta ostera, ni baño geijago zariala: kalerik kale ibillita ez ta ikasten barriketia, alperreriya ta dongaro esatia ezpada. Baso onetan ta baserrijetan daukeela gizonik jakitunenak zer asko esaminau, edo zuk esaten dozun legez, zer aztertu ta zer ikasi gauza askotarako. Guazan etxera, bada egubardija urrian da. Ni ez eze, abade jauna bere lotsatuta juanda, ikusirik zubek dakizuna.

PERU: Adiskidiak, eldu gara jaateko ordura; bazkaldu daigun gogoz. Maija prest dago, jatekua bere bai. ta nire umiak oraingo gosetu izango dira. Marija, atera eiguazu saldia.

MAISU JUAN: Zelan pagauko deustudaz niri egin deustazuzan mesa-diak, ta euki dozun kastuba, nik zugaiti ezer egin baga?

PERU: Niretzat da mesedia etortia ona lagun neure gogokuak. Jan egizu atsakaba baga, ta bijar edo etzi arkitu neinde zure biarrian.

MAISU JUAN: Jangoikuak osasuna emon dagizula, baña gaisotuten bada zure etxekorik, edo bizi nasan erriyan ezer biar bazendu, ez besterik billatu. Txakur zaunkak dira... Olesa da, nor ete dogu?

PERU: Zuaz nor edo nor, zein dan ikustera; une ezin obian dator; bada jarri baño ez dauka geugaz majjan. Nor da?

TXOMIN: Izerdi bitsa darijola dator ona gizon bat eskopetiaz, ta aita, dino. zu biar zaitubala.

PERU: Datorrela aurrera... adiskidia, nor zara, ta zer biar deustazu?

AGUAZILLA: Ni nas justizijako aguazila. Artu dot arrastuba, ta esan jaku onuntz etorri dala barberu ondo apaindu bat, pantaloeduna, ta moda modara janzija. Nun da bera? Erakutsiko jako zelan bizi.

PERU: Estago nire etxian beste gizon gauzarik ementxe gagozanak baño, alperrik aratuko dituzu zokondo ta bazter guztiak?

AGUAZILLA: Eztaguala? Guzurra badinozu, zeuk bere etorri biarko dozu karzelara.

PERU: Egizu naozuna; billatu eizu albadaizu: orra etxe guztija, jaube baziña legez, eztago besterik ementxe gakusuzanak bano.

*(Registra la casa el alguacil, y entre tanto le habla Maisu Juan á
Peru al oido lleno de pavor.)*

MAISU JUAN: Ai Peru neuria! Galduba nas. Osatu zan atsua: emon dau kerellia; artu ditube informazinoe batzuk. Bentako otseñak saldu nau. Igarriko deust neu nazala, ta dongago dana, zu bere eruango zaitube preso erru baga.



PERU: Zagoz geldi geldi zurbildu baga; ez agertu bildurrik. Zure zorionian aldatu zenduzau soñokuak. Nire emazte ta umiak isillak dira: bestiok ezdakije ez nor zarian, ez zer igaro dan; etxako zure atzian etorri danari burura etorriko, zu zarianik: iminiko dogu, gura badau, geugaz bazkaitan, ta ez arren ikararik erakutsi, ta jan egizu ardura baga. Juango da etorri dan bideti zu baga.

MAISU JUAN: Ai Peru neuria! Ill jat jaateko gogo guztija; ikara jabil-taz belauanak: nire arpegiko markaren batzuk emon badeutsez, igarriko deust beste soñoko batzuk euki arren, ta bijok izango gara galdubak. Eta, zelango atsakabia zure emazte ta ume onentzat? Ze plagak zirikatu nenduban atso benteria banatuteko? Pekatubaren kastiguba da au.

PERU: Zagoz issillik, ta arpegi bildur bagiaz; badator ona ezer topau baga, ta enzungo dogu zer dinuan.

AGUAZILLA: Ez da emen ezer agiri; guzurak esan deuskubez onuntz etorri zala.

PERU: Jarri zaite bada emen geugaz jaaten, ta gero juango zara.

AGUAZILLA: Eskribauba zain dago benta baten, emendi neroiana eruateko preso; makina bat kostu egin dira; ez dakit nok pagauko dituban.

PERU: Zer egin dau zuk billatuten dozun gizonak, katigu eruateko?

AGUAZILLA: Zer egin daben? Bentera andra zar erdi itxu bat dana banatu berarijaz urdai azala aurrian iminita, labandu ta jausi zedin. Gero barberuba dala, ta Jangoikuak daki zertzuk erakutsi deutzazan gaissuari; illagirik egon da, ta gastubak jaanian egin, ta ezer pagau baga juan jakon. Neskatilla bere otseñiak agertu dau guztija; antxe dago urdai azal, labandu eragi-eutsana. Ez dau plagiak geijago asmau. Beragaz eban lagun base-rritar bat; baña neskatillak berak deklarau dau, ez eukeela bijak erruba, ezpada bakarrik barberubak. Ezin jakin izan ditugu nunguak zirian: bai bakarrik barberuba eguala txito apainduba buruti beera. Esan deuskube onutz artuebela; baña besteren batzuk izan biar eben. Or konpon. Eskribaubari ta niri pagau biarko jakuz geure alogerak nundi edo andi; baña atrapau bagendu barberu dontsuba, kenduko geuntsan bizarra.

PERU: Jan egizu ondo orain, ta zuaz gero zeure bakian.

AGUAZILLA: Bai, baña zerbait eskubetan biderako artuta, tragotxu bat ezarrita, banua laster. Euki egizube bazkalondo on bat, ta agur milla eskerregaz.

PERU: Zuaz ondo ta ordu obian.

MAISU JUAN: Arnasa artuten dot orain; askatuten asi jat bijotza. Peru, nik egin dot eskapadia. Zorijoneko soñoko aldatutia izan dot. Zer izango zan nizaz ezagutu, artu, lotu ta eruan banendu? Eskerako bidian iminiko nenduben lotsaari andijaz, karzelan buruba ikustiaz ostian. Aguzil etorri dana, ze mutil sendua!

PERU: Bai Maisu Juan; ondo mardua dauka bere gerrija; zilbota txito eskerga ta urtena; zanko batzuk ondo lodi ta mamintsubak; arpegi gorrista, ta matralla albuak gizen gizenak, zelango kolatsa okotzpian! Zein guri, gori ta malatsa guztija? Eskutur bakotxa iragoten da arraa batian lodieran; eta zein uletsuba! Besteti, zein ondo janzija! Gauza batek zurtu nau, ain ardao gitxi edatiak, emen era ona eukita.

MAISU JUAN: Ni ez nau orrek zurtu. Bentara dua; an euko dau naikua zer edan. Matralla alde aek ez dagoz alan eginda makallao saldia artuta, ez sardina usteldubak janda. Zain dagoz nor jausi aldedin zetan edo atan esesteko. paperak balzituteko, eta andikijak baño bizitza obia daruatzube iñoren negarren kostura. Aztuten dira errukijaz, ta daukeez biotz batzuk atxak baño gogorraguak. Ikusi ditut nos bait idijak korteatati atera, ta salduten euren pagurako, arrantza batian isten zitubela idi-jaubiak? Nekezaliak eurak daukee erru ez txikarra. Utsa gaiti, berba txatxar batzuk gaiti, zor premiñaz atzeratuba gaiti, duaz kerellak emotera; erraztuten deutsee bidia, esanaz, despatxu bat aterata, lau egun barru urtengo dabee-la gura dabeenaz. Lau egunak elduten dira lau illera; despatxubak dakaz deklarazinoiak, eta egiten dabee prozesu asko litzatiana amar bide lapur-ren agiri edo probantzak egiteko. Ni Jangoikuak gorde nau euren atzarretati, merezi ezpaneban bere.

PERU: Bai Maisu Juan. Dongaro egin zenduban, ta guztiok galduteko bidiak edegi zenduzan. Zor dozuz ardan etxe atan jan zenduzanak. Onezaz ostian, zure erruz izan ditu atso gaisuak kalte asko osatuten. Eta, nok zor ditu beste kostubak? Errazto garbituko dozu arima ori, itundubaz abade aitu bategaz.

MAISU JUAN: Bai Peru neuria. Emoten deutzat berbia orain artian baño obagua, ta arima zaliagua izango nasala. Zure berba onak, zure etxe-ko ta etxekuen jarraigari edo ejenplu onak iraatsi ditu nire biotzian gogo barri ta on izatekuak. Emoidazu laztan bat urten orduko emendi. Ez esan pranzes luebagin, ta kiputz arzain oneei zer igaro dan. Banua issill issillik



neure etxera ta zeure erropa oneekaz; bada neuriakaz baninua, menturaz ezagutu ta atrapauko nendukee. Bialdu egizuz neure erri ta etxera zeure semeren bategaz deritxun baten, ta nik beragaz biurtuko deutsudaz zeuriak. Eta kezkarik euki ez dagizun, neu aituko nas erriko kuriaz, zein dan jakituna, ta pagauko ditut esaten deustazan guztijak. Egin gura deutseet agur bat beste bijoi, esan ez daijen iges egin dodala ezer aitatu baga; baña isten dot zure kontura zeure emazte ta ume onakaz kunplietia... Agur adiskidiak; etxera biarra eldu jat, agindu ta gera zaitzeze Jangoikuaz. Agur Peru neure biotzekua; agur osterako artian; ez nizaz aaztu. Agur.